



POLISSETATIK INPERIORA: HAINBAT SENDABIDE FILOSOFIKO

“Zer da filosofia? Bizipoza erdiesteko sendagaia.”

IBAI ZABALA PÉREZ DEL PALOMAR

Ikasmaterial honek Hezkuntza Sailaren Onespena du. 2024-10-25

ESKERRAK

Lan honetan aldi oro adierazitako “gu” ez da plural maiestatikoa soilik. *Gu* hori barik, ezinezkoa izango zatekeen joanaldi hau egitea. Hori dela eta, *gu* horretan partaide izan direnen izenak aditzera emateko beharra daukat, haiekin dudan zor erraldoia neurri ñimiño batean konpentsatzeko. Eskerrak eman behar dizkiet bidaia honi nirekin ekin dioten hauei: Garazi Pascual Cuestari, Itsaslore Yarza Lopezi, Nagore Portillo Bilbaori, Jaione Galdos Cazaboni eta Markos Zapiain Agirrerri, proiektu hau elkarrekin gauzatzeagatik; Markosi bereziki, bere zakutoa nirekin partekatzeagatik; Agora filosofia elkarteari, bidaldia mahaigaineratzeagatik; Javier Aguirre Santosi, bere iparrorratzarekin norabidea markatzeagatik; Ignacio Pajón Leyrari, bere makila uzteagatik; Ieray Galtzagorri Uliri, bere largabista mailegatzeagatik; *Laurak* liburu-dendako Mikel Antón Garcíari, jakiz hornitzeagatik; Oihana Bartra Arenasi, inguru zoragarrietara hurbiltzeko aukera emateagatik; IRALeren kontsulta zerbitzuari eta Dolaretxeko irakasleei bidaia-gida izateagatik; batez ere, nire tutoreari, Ana Aldekoa Diezi, artaziak gehiegi erabili barik, bitartea etengabe txukuntzeagatik; eta, nola ez, Susana Martinez Fuentesi eta Leize Zabala Martinezi, bidaldi luzeen ondoren aterpe ezin atseginagoa izateagatik.

Esker anitz!!!!

AURKIBIDEA

0. Sarrera.....	4
1. Pentsamendua kokatuz.....	6
1.1. Testuinguru historikoa.....	6
1.2. Argibide batzuk.....	10
2. Zinismoa.....	13
2.1.- Autoreak.....	14
2.1.1. Antistenes.....	14
2.1.2. Diogenes.....	15
2.1.3. Krates.....	18
2.1.4. Hiparkia.....	19
2.2. Pentsamendu zinikoa.....	22
2.2.1. Sarrera.....	22
2.2.2. Etika.....	24
2.2.3. Politika.....	34
2.3. Azken bi ideia.....	37
2.4. Laburpena.....	38
3. Epikureismoa.....	43
3.1. Epikuro.....	44
3.2. Lorategia.....	45
3.3. Pentsamendu epikurotarra.....	47
3.3.1. Sarrera.....	47
3.3.2. Ezagutzaren teoria (Kanona).....	48
3.3.3. Fisika.....	49
3.3.4. Etika.....	52
3.3.5. Politika eta adiskidetasuna.....	60
3.4. Azken bi ideia.....	61
3.5. Laburpena.....	62

4. Estoizismoa	67
4.1. Autore nagusiak	68
4.1.1. Zenon Zitiokoa.....	68
4.1.2. Seneka.....	71
4.1.3. Epikteto.....	72
4.1.4. Marko Aurelio.....	73
4.2. Pentsamendu estoikoa	74
4.2.1. Sarrera.....	74
4.2.2. Logika.....	75
4.2.3. Fisika.....	76
4.2.4.- Etika.....	80
4.2.5.- Politika.....	86
4.3. Azken bi ideia	87
4.4. Laburpena	88
5. Jarduerak	94
5.1. Sofiaisia	95
5.1.1. Zinikoak.....	95
5.1.2. Epikurotarrak.....	98
5.1.3. Estoikoak.....	101
5.1.4. Zeharkakoak.....	104
5.2. Filokizun	108
5.2.1. Testuaren aurrean.....	108
5.2.2. Irudien parean.....	113
6. Bibliografia	116

O. SARRERA

Zer dut nire aurrean?

“Polisetatik ineriora: hainbat sendabide filosofiko” izeneko lan hau bost atalek osatzen dute. Lehenengo lauretan, pentsamendu filosofikoak azalduko ditugu. Haiek ezagututa, ikasleak bere burutazioez harago hausnartzeko aukera izango du. Azken epigrafean, hainbat motatako jarduerak daude. Haietako batzuk batxilergoko bigarren mailako ikasleek ikasturte amaieran egin behar duten kanpoko proba lantzeko dira: testuen edo irudien iruzkinak eta disertazioak. Haiekin batera, ataza ludikoak ere badira; esate baterako, dilemak, erronkak...

Zergatik da beharrezkoa lan hau?

Lan honek, beste bost lanekin batera, proiektu oso bat¹ osatzen du. Elkarlanean egindako proiektu honen helburua da batxilergoko bigarren mailako ikasleak zein irakasleak materialez hornitzea hezkuntza-lege berrian Filosofiaren historia arlorako ezarri den gaitegia landu ahal izateko, hainbat gai eta autore berri gehitu baitira gai-zerrenda horretan.

Hala ere, pragmatismoak alde batera utzita, proposamen honek indarrean dagoen legeriaz harago joan nahi du, gero eta ugariagoak diren hezkuntza-erreformetatik bizirik irteteko asmoz.

Walter Benjaminek adierazi zuenez, pentsamendu, kultura, genero eta gizarte-estratu batzuek besteek baino pribilegio handiagoak izan dituzte historian zehar. Filosofiaren historia ez da salbuespena.

Hargatik, erabateko umiltasunez, filosofiaren historia ofizialean bigarren mailan geratutako hainbat pentsamolde agerian jarri nahi dugu; zehazki, Antzinako filosofiaren historiakoak, zeren garai hartako filosofoak ez ziren soilik izan Sokrates, Aristoteles edo Platon. Horregatik, material honek Grezia helenistikotik Erromatar Ineriora bitartean garatu ziren beste hainbat filosofia ezagutarazi nahi ditu.

Gainera, orri hauetan, ahal den neurrian, emakume filosofoekin dugun zor historikoa konpentsatu nahi² izan dugu. Zailtasunak zailtasun, garai guztietan izan dira emakume filosofoak, baina ezabatuak izan dira.

¹ Lan hauek osatzen dute proiektua: Garazi Pascual Cuestaren *Filosofia eta Herritartasuna Greziar Ilustrazioan. Femeninotasuna Grezia Klasikoan: Aspasia Miletokoa*, Nagore Portillo Bilbaoren *Proiektu ilustratua: arrazoiaren ahalmena, itzal eta mugak. Olympe de Gouges eta Mary Wollstonecraft*, Itsaslora Yarza Lopezen *Existenzialismoa. Heidegger, Unamuno eta Txillardegi*, Markos Zapiain Agirreren *Txillardegi hizkuntzalari*, Jaione Galdos Cazabonen *Gure garaiko gal(bi)deak*.

² Aldez aurretik, barkamena eskatu behar dugu, hasieran pentsatu genuen berreskuratze-lana denbora faltagatik murriztu behar izan dugu-eta. Horregatik, azkenean, bereziki, Hiparkia zinikoaren figura baino ez dugu garatu.

Zentsuratuak, isilduak, mitifikatuak edo beren ideiez desjabetuak izan ziren, eta horrek zaildu egiten du gaurko genealogia-lana.

Bestalde, genero-ikuspegia ez ezik, klase-ikuspegia ere kontuan hartu dugu. Gaur egun, askotan esaten da antzinako filosofia aberatsen kontua izan zela; baina, garai helenistikotik aurrera, filosofia beste estratu sozial batzuetan ere zabaldu zen. Beraz, filosofia goi-klasearekin lotzen duen ideia arrakalatzea da lan hau egin izanaren beste arrazoi bat.

Konpentsazio historikoak alde batera utzita, amaitzeko, material honek ikasle kritikoak sortzen ez ezik, beste prozesu batzuetan ere eragin dezake; ikasleen autoezagutzan eta emozioen autorregulazioan, besteak beste. Ikasleek beren egoera sozio-emozionala kudeatzen ikasteko premia dute, eta, horretarako, zinismoak, epikureismoak eta estoizismoak proposatutako sendabideak gaur egun ere aprobetxatzeko modukoak dira.

Zailtasunak ote?

Asmoak asmo, lan hau gauzatzean, denbora faltagatik murriztu egin behar izan ditugu aurreikusten genituen atalak. Gauzak horrela, lan honetatik kanpo geratu dira, alde batetik, eszeptizismoa eta neoplatonismoa, eta, beste aldetik, Hipatia filosofoa. Aukera izatekotan, eranskin bat egingo diogu aurrerago lanari, pentsamolde horiei azaletik bada ere tokia egiteko, gero beste norbaitek merezi duten moduan landu ahal izan ditzan, hala nahi badu.

Horretaz aparte, agerian utzi nahi dut proiektu honetako kide batzuek (are guztiek) hizkuntza-zailtasun bati egin behar izan diogula aurre: nola itzuli jatorrizko testuetako *gizon* hitza?

Hizkuntza performatiboa da, hau da, gure pentsamenduan eta ekintzetan eragina du. Horregatik, zenbait egilek *gizon* terminoaren ordeztze, beste hitz batzuk erabili dituzte kontzeptuari hitzaren konnotazio sexistak kentzeko; *gizaki* edo *pertsona*, kasurako. Hitz horiek hautatu izan dituzte hizkuntza ez-sexista erabiltzeko esanahi unibertsalaz ari direnetan (*gizakiek* ari direnean, hain zuzen ere, eta ez gizonez). Hala ere, zaila da ordeztzeko termino ez-problematikoak topatzea: zirkulu batzuetan, *gizaki* hitza ere ez da onartzen, *giza* erroa duelako. *Pertsona* hitzak, bestalde, kutsu erlijioso-transzendentalak izan dezake.

Itzulpenak egitean, ahal den neurrian, autorearen eta lanaren testuinguru historikoa errespetatu behar da. Hori dela eta, zenbaitek uste du testu klasikoez ari garela ez dela egokia *gizon* hitza izen generiko inklusibo baten bitartez ordezkatzeko, testuak berezitasuna galtzen baitu.

Auzi horri aurre egiteko, lan honetan erabili dugun irizpide metodologikoa autorearen hitzak errespetatzea izan da. Hori bai, testuetan *gizon* eta halako hitzak agertzean, gaur hitz inklusiboak erabiliko genituzkeela azpimarratu dugu, oin-oharren bitartez. Bestalde, beste arrazoi bat ere izan dugu jatorrizko forma zaintzeko erabakia hartzeko: ikasleei testuen garaiko gizarte-desorekak ez ezkutatzeko.

1. PENTSAMENDUA KOKATUZ

1.1. TESTUINGURU HISTORIKOA

Lan honetan garatuko ditugun filosofiak **bi arotan** sortu eta hedatu ziren: **Grezia helenistikoaren garaian** eta **Erroma inperialaren garaian**.

ARO HELENISTIKOA

Polisetatik...

Helenismo³ terminoak “grekoek bezala hitz egitea”⁴ esan nahi du, eta **kultura grekoa** Egeo itsasoaz haratago **zabaltzeari egiten dio erreferentzia**. Filipo II.ak eta batez ere haren seme Alexandro Handiak Inperio Mazedoniarra sortu zutenean ezarri zen helenismoaren hazia. Hala ere, kontsideratzen da aro helenistikoa **Alexandro Handiaren heriotzarekin** (K.a. 323. urtean) **hasi**, eta **Egipto Erromatar Inperioaren barruan kokatzearekin batera** (K.a. 30. urtean) **amaitzen dela**.



ALEXANDRO HANDIA (K.a. 356 - 323)

<https://www.img2go.com/ai-creator-studio>

Alexandro hil ondoren, haren jeneralak elkarren aurka borrokatu ziren, **Diadokoen**⁵ gerretan, haren inperioa oinordetzan hartzeko. Azkenean, **Inperio Mazedoniarra hiru erresumatan banatu** zen: erresuma mazedoniarra, erresuma egiptoarra eta erresuma asiarra. Inperioa banatzeak

³ *Helenismo* hitza Johann Gustav Droysen historialari alemaniarrek sortu zuen, XIX. mendean.

⁴ Esaten da garai honetako zibilizazioa mistoa izan zela, greziar elementu tradizionalak ekialdeko beste batzuekin nahasten baitziren. Hala eta guztiz ere, kultura-osagai grekoak nagusi izan ziren, ekialdekoen aldean. Helenizazio-prozesuaren adibide da *koinea* (“hizkuntza komuna”), erresuma helenistikoetan zabaldu zen dialekto grekoa.

⁵ Grekoz, *diadoko* hitzak “oinordekoa” esan nahi du.

ez zuen bakea ekarri. Are gehiago, beligerantziak iraun egin zuen; erresumen artekoak ez ezik, barbaroen eta Erromaren aurkakoak ere. Helenismoaren garaian, etengabea izan zen **ezegonkortasun soziala eta politikoa**. Kleopatra, jatorri grekoa zuen Ptolomeotarren familiako azken erregina, hil zenean, Egipto Erromaren probintzia bihurtu zen, eta amaitu egin zen aro helenistikoa. Horrekin batera, Erromaren aro inperiala hasi zen, Augusto enperadorearen eskutik.

Ezbairik gabe, Grezia klasikotik⁶ helenistikorako trantsizioak **krisi-egoera latza** eragin zuen hainbat esparrutan. Hasteko, Keroneako guduan irabazi ostean Filipo II.ak bere burua grekoen errege izendatzeak “grekoek askatasuna galtzea” ekarri zuen. Izan ere, polisak⁷ haien gainetik zegoen erakunde baten (erresumaren) barruan kokatzean, grekoek galdu egin zuten autonomia⁸ politikoa, eta **hiritarrak**⁹ **izatetik** errege baten **mendekoak izatera** pasatu ziren. Horrekin batera, Alexandroren konkisten ondotik, **birdefinitu** egin behar izan zen **nor zen grekoa**, inperio barruan zeuden guztiak grekotzat hartzen baitzituzten. Hala, hautsi egin zen Grezia klasikoko grekoen eta barbaroen arteko bereizketa¹⁰.



KLEOPATRA (K.a. 69 - 30)

⁶ Antzinako Grezian, hiru aro bereizten dira: arkaikoa, klasikoa eta helenistikoa. Grezia klasikoa (K.a V-K.a. IV) iraultza joniarrekin hasi zen eta Alexandro Handiaren erregetzarekin amaitu. Garai horretan, gorengo mailara iritsi ziren Greziako polisak eta haietan garatutako adierazpen kulturalak (filosofia barne). Aro klasikoko filosofo nagusiak Sokrates, Platon eta Aristoteles dira. Hortik aurrerako filosofia (hau da, Helenismoaren eta Erromatar Inperioaren garaikoa) “Aristotelesen ostekoa” deiturarekin izendatzen da.

⁷ Hasieran inperioaren barruan eta gero erresumen barruan kokatzeagatik polisak edo hiri estatuak erakunde politiko gisa autonomia galdu izanak ez du esan nahi polisak desagertu egin zirenik. Hiri horiek ugaritu eta handitu egin ziren, baina jada ez ziren estatu burujabeak.

⁸ Polisak ezartzen zuen marko soziopolitikoari esker, grekoek beren burua gizakitzat har zezaketen. Behin polisei autonomia politikoa kenduta, hau da, grekoei gizatasuna ematen zien erakundearen boterea ezabatuta, grekoen nortasuna (ez bakarrik politikoa) galzorian zegoen.

⁹ Hiritarrek eskubide zibilak zituzten eta politikan parte har zezaketen. Hiritartasunaren ildotik, silogismo bat proposatzen dizuet: P1: Atenasen aro klasikoan, hiritarrek eskubide zibilak zituzten eta politikan parte har zezaketen. P2: Emakumeak, atzerritarrak eta esklaboak ez ziren hiritarrak. **K: Zer ondoriozta daiteke horretatik?**

¹⁰ Grezia klasikoan, bereizi egiten ziren “barbaroak” eta “grekoak”. Grekoa zibilizatua zen; barbaroa, aldiz, txarto hitz egiten zuena, txarto bizi zena, txarto pentsatzen zuena (grekoak ez bezala) eta harreman desagokiak zituena. Grekoarentzat, barbaroa, ezberdina izateaz gain, etsaia izan zitekeen. Denborarekin, barbaroa ezjakinaren sinonimo bilakatu zen. Beraz, dikotomia horretan, grekoak edo heleniarrak lehentasuna zeukan barbaroaren gainetik. Aro

Grekoak politikatik urruntzen ari ziren, haien **sinesmenak**, identitate grekoarena barne, **galtzen** ari ziren eta ezegonkortasun sozial eta politikoa nagusi zen. Ez da harritzekoa, testuinguru aldakor horretan **proposamen filosofiko berriak** (batez ere etikan zentratuak) **agertzea**, krisi-egoerari aurre egiteko. Garai helenistikoan **filosofia sendabide** bihurtu zenez, joera filosofiko bakoitzak bere farmakoa errezetatu zuen: zinismoak naturara itzultzea, epikureismoak plazera garatzea, estoizismoak arrazionalki jokatzeko, eszeptizismoak balorazioak ez egitea eta neoplatonismoak¹¹ *Batarekin* uztartzea.

ERROMATAR INPERIORA

...inperiora

Antzinako Erromaren bilakaeran hiru aro bereiz daitezke: arkaikoa, errepublikanoa eta inperiala. Erromaren inperialismoa¹² lehenagokoa izan arren, zabaldu egin zen aro inperialean. Erromako senatuak Julio Zesarren ilobari, **Oktaviori, Augusto titulua ematean** (K.a. 27. urtean), Erromako lehenengo enperadore bihurtu zuen; eta horrekin **hasi** zen **Erromaren aro inperiala**. Aro hori **Mendebaldeko inperioa erori zenean** (K.o. V. mendean¹³) **amaitu** zen. Erorialdi hori Erdi Aroaren hasiera izan zen.



The course of empire-destruction,

Thomas Cole (1836)

Inperioaren lehenengo bi mendeetan, I.lean eta II.lean, *Pax romana* esaten zioten garaian, itxurazko egonkortasuna zegoen arren, izan ziren boterea eskuratzeko barne-gatazkak¹⁴, baita mugak babesteko edo handitzeko **etengabeko gerrak** ere. Haiekin batera, herritarren iraultzak eta gari-

helenistikoan, bereizketa horrek zentzua galdu zuen, “barbaroak” inperio grekoaren edo, hobeto esanda, Greziako erresumaren barruan kokatzean.

¹¹ Autore batzuen ustez, neoplatonikoen helburua, *eudaimonia* izan beharrean, *esoteria* edo arimaren salbazioa da.

¹² “Beste lurralde batzuk ustiatzeko asmoarekin konkistatzeko nahia”: hala definitu izan da inperialismoa. Aditu askoren ustez, II. Gerra Punikoaren ostean hasi zen Erromaren inperialismoa, gerra horretatik aurrera Erromak etengabe zabaldu baitzituen bere mugak.

¹³ Ezin da garbi zehaztu zein urtetan hasi zen (Mendebaldeko) Erroma inperialaren gainbehera, arrazoi ugari konbinatzen dituen prozesu konplexua baita.

¹⁴ Armadaren, pretoriarren, senatuaren eta herriaren arteko tirabirak eta gerrak ziren.

horniduraren krisiak ere gertatu ziren. Halere, III. mendetik aurrera, areagotu egin zen ezegonkortasuna. Garai horretan, armadaren fakzioek aukeratu zituzten enperadoreak, senatuaren hitza (herriarena, zeresanik ez) kontuan hartu barik. Hori dela eta, enperadoreen agintaldiak laburragoak izan ziren, eta, batzuetan, gertatu zen aldi berean enperadore bat baino gehiago izatea.

Inperioa desagertzea hainbat arlotan gertatu ziren aldaketen eta krisien ondorioa izan zen. Lehenik, erlijioan, kristautasuna ezarri zen inperioaren erlijio gisa, paganismoaren (eta judaismoaren) gainetik, eta hedatu egin zen kristauen boterea. Bigarrenik, ekonomian, inflazioa etengabea izan zen, eten egin zen lekadunen eta zerealen horniketa, zerga-salbuespenak ezarri ziren klase pribilegiatuen alde eta agintari kristauek ez zituzten baimendu jarduera ekonomiko batzuk (maileguak, salerosketa batzuk...). Hirugarrenik, politikan, inperioa banatu egin zen ekialdeko eta mendebaldeko inperioen artean, eta mendebaldekoa, gainera, hainbat estatutan zatitu zen; horrez gain, barbaroak inperioaren hainbat lurraldez jabetu ziren. Azkenik, gizartean, iraultzak izan ziren, Afrikan, Galian eta Hispanian.

Erromatar inperioan ere, **bizirik iraun zuten** aro helenistikoan **sortutako filosofiek**: zinismoa¹⁵ kale-filosofia zen; aldiz, epikureismoak¹⁶ eta batez ere estoizismoak¹⁷ arrakasta lortu zuten goi-klaseen artean. Hala ere, kristautasunaren gorakadak¹⁸ filosofia horien bukaera ekarri zuen.

Zergatik nagusitu zitzairen kristautasuna filosofia horiei?

Lan honetan agertzen diren pentsamendu filosofikoen jarraitzaile izateak ahalegina eskatzen zuen. **Erantzun kristaua, ordea, erakargarriagoa** zen, arrazoi hauengatik: mundu guztiari zabalik zegoen; hurkoarenganako

¹⁵ Esaterako, Demetrio zinikoa.

¹⁶ Erromako epikurotarren edo epikurozaleen zerrenda luzea da: Filomeno, Virgilio, Horazio (*carpe diem* adierazpenaren asmatzailea), Lukrezio, Kalpurnio Pison (Julio Zesarren aitagarreba)...

¹⁷ Erromatar Inperioaren garaian, estoizismoa izan zen filosofia arrakastatsuen, eta, inperioaren hasieran batez ere, jarraitzaile asko izan zituen eragin handiko pertsonen artean (baita bestelako jendearen artean ere). Esate baterako, estoikoak izan ziren Seneka, enperadoreen eskuineko (edo hobe, ezkerreko) eskua, eta Marko Aurelio enperadorea.

¹⁸ Prozesu horretan, garrantzi handia izan zuten bi enperadorek: batetik, Konstantinok (272-337), Lizinio enperadorekidearekin batera, "Milango ediktua" sortu zuen. Agindu horrek kultu-askatasuna ekarri zuen eta, horren ondorioz, bukatu egin zen kristauen kontrako jazarpena. Konstantino izan zen kristau bihurtu zen lehenengo enperadorea. Haren ondoren, Teodosiok (347-395), Tesalonikako ediktuaren bidez, inperioaren erlijio ofizial izendatu zuen kristautasuna. Handik aurrera, beste erlijio guztiak, besteak beste paganismoa eta judaismoa, heretikotzat jo ziren, eta jazarri egin zituzten. Horretaz aparte, Teodosiok ezarri zuen bera hil ondoren Erromatar Inperioa bitan banatuko zela: inperioaren mendebaldea haren seme Honorioaren esku geratuko zen, eta ekialdea (Bizantziar Inperioa) haren seme Arkadioren esku.

maitasuna aldarrikatzen zuen; salbazioa eskaintzen zuen justizia nagusi izango zen beste mundu batean; sentimenduetan oinarritutako proposamena zen, eta ez arrazoimenean edo pentsamenduan oinarritua; eroso zen dogma frogagaitzetan sinestea

1.2. ARGIBIDE BATZUK

Helenismotik Erromatar Inperiora egindako **ekarpen filosofiko nagusiak** “**bizitzaren zerbitzura**” zeuden, hau da, proposamen horiek erantzun bat eman zuten krisi garaiak eragiten zuen ezinegonaren aurrean. Zentzu horretan, **hainbat sendagai** eskaini zituzten garai hartako “gaixotasuna” gainditzeko. Hori bai, guzti-guztiek **helburu bat**¹⁹ zeukaten: **eudaimonia** edo zoriontasuna lortzea. Oro har, zoriontasuna erdiesteko orduan, hainbat bide proposatu zituzten joera filosofiko horiek: batzuek bertutea ezartzen zuten, beste batzuek plazera. Horregatik, filosofia horiekin hasi baino lehen, ezinbestekoa da oinarrizko kontzeptu batzuk argitzea.

Zer da etika?

Etika edo filosofia morala gizabanakoaren jokabidearen azterketa filosofikoa da. Etikak ez du aztertzen nola portatzen garen, **nola portatu behar dugun** baizik. **Filosofia praktikoa** da (ez teorikoa), filosofia politikoa izateaz gain. Aro helenistikoan, politikan parte hartzeko aukera kendu zietenez, grekoek **etikari** eman zioten **lehentasuna, politikaren gaintik**. Hori dela eta, zinismoak, epikureismoak eta estoizismoak proposatutako filosofiek ardatz etikoa zuten, **zoriontasuna edo bizimodu ona** bilatzen duen ardatz etikoa, hain zuzen ere.

Zer da zoriontasuna?

Zoriontasuna edo eudaimonia da bizitzaren helburua. Aristotelesen etikatik aurrera, filosofoek bizitza onarekin lotzen dute zoriontasuna. Bizimodu on bat izatea norberaren eginkizuna denez, norbanakoaren lasaitasunarekin eta autogobernuarekin, alegia autarkiarekin, lotzen da. Zoriontasuna naturaren arabera bizitza lortzen da. Beraz, terminoak luzaroan irauten duen egoera bati egiten dio erreferentzia. **Zenbait formularen bitartez**, zinikoek, epikurotarrek, estoikoek, eszeptikoek eta neoplatonikoek ere gizabanakoaren

¹⁹ Grekoz, *telos* helburua da. Horregatik, helburu bat duten etikei edo filosofia moralei *teleologiko* deritzegu.

zoriontasuna²⁰ bilatu zuten. Halere, orobat, bizipoza edo bizimodu ona lortzeko, bi ibilbide ezarri zituzten: **batzuk plazeraren** aldekoak ziren; **beste batzuek, ordea, bertutea** defendatu zuten.

Zer da Bertutea?

Bertutea (grekoz, *Arete*) 'bikaintasun' bezala uler daiteke. Hobetzeko aukera ematen diguten ahalmenak dira bertuteak²¹. Nola ondu dezakegu geure burua? Alde batetik, arriskuak eta distrakzioak gaindituz, eta, bestetik, gauzak, ongia eta norbere burua ezagutuz. Hasieran, bertutea familia onekoen ezaugarria izan zela pentsatu arren, sofistengandik aurrera, bertutea esfortzuarekin edonork lor dezakeelako ideia zabaldu zen. Greziako filosofoek bertute-mota asko bereizi zituzten. Aristotelesek, kasurako, etikoak eta dianoetikoak (irakaskuntzakoak) bereizi zituen. Grezian, gogoeta bizia izan zen bertuteaz: **bakarra dago ala asko daude?, jatorrizkoa(k) dira ala ikas daite(z)ke?, edonork ikas dezake/ditzake?** Besteak beste, bai zinikoek eta bai estoikoek defendatzen dute bertutea dela *eudaimonia* lortzeko bidea.



Bertutearen ibilbidea aldapatsua da.

Allegoria del colle della sapienza, Pinturicchio (1505).

²⁰ Seguru asko, pentsalari haiengandik gugana, jauzi handia dago zoriontasuna ulertzeko eran. Gaur, agian gain-estimulazioaren ondorioz, uste dugu noizbehinkako aldarte bat dela zoriontasuna. Neurozientziaren ikuspegitik, berriz, aldarte hori hormonen erreakzio kimiko gisa sortutako sentazio bat baino ez da. Gure kontsumo ohituren eraginez, apika, asegabetasunarekin edota luzaroan iraungo ez duen sentazio subjektibo batekin lotzeko joera izan dezakegu?

²¹ Bertutearen definizio hau Alasdair MacIntyrekin egin zuen, *After Virtue* obran (gaztelaniaz, *Tras la virtud*).

Zer da plazera?

Plazera (grekoz, *hedone*) **gozamenarekin** lotuta dago. Horregatik, plazera bilatzen duten filosofiei **hedonista** deritzegu. Hedonistentzat, zorionak iraun egiten du; plazera, aldiz, puntuala da, eta orainaldian (*kairos*) gertatzen da. Filosofia hedonisten aburuz, **plazera handitzeko eta sufrimendua gutxitzeko joera** izan behar dugu. Hala ere, plazera ulertzeko eran aldeak daude hedonista batzuetatik besteetara. Epikurotarrak hedonistak ziren, haien ustez bizipoza lortzeko orduan plazera lagungarria zelako.

Nor da jakintsua?

Jakintsua **eudaimonia lortu duena** da. Filosofoak “jakintsua” hartzen du eredutzat, jakintsua izatea baita **filosofoaren jomuga**. Beraz, ezjakinaren eta jakintsuaren artean kokatzen da filosofoa. Eskola filosofiko bakoitzak, **eudaimoniarako** bide jakin bat eskaintzen duen neurrian, ezaugarri ezberdinak ezartzen dizkio jakintsuari.

2. ZINISMOA

«(Diogenes) Jendea ateratzen ari zela kontrako bidean sartzen zen antzokian. Galdetu ziotenean zergatik jokatzekoa zela, erantzun zuen: “Horretan saiatu naiz, bizitza osoan”.»

Diogenes Laertzio, VI, 64 (Itzulita)



Autarkia

<https://www.img2go.com/ai-creat>

2.1. AUTOREAK

2.1.1. ANTISTENES

“Plazera baino nahiago dut eromena.”


Antistenes (K.a. 445-K.a. 365) zinismoaren **sortzailetzat** hartu ohi da, baina gero eta gehiago dira zinismoaren **aurrekaritzat** hartzen dutenak. Garai klasikoaren eta helenistikoaren artean bizi izan zen. **Sokratesen ikaslea** izan zen, eta, maisua hil zitzaionean, bere erara moldatu zituen jasotako irakaspenak, Sokratesen beste jarraitzaile batzuek²² bezala.

Antistenesek, Atenasen bizi arren, ez zeukan atenastar hiritartasunik, **mestizoa** zelako. Haren aita atenastarra zen; baina ama traziarra zuen, esklabo izanikoa. Beraz, *metekoa*²³ zen, hots, atzerritar askea. Horregatik, atenastar askok nagusikeriaz begiratzen zioten. Atzerritarra izatea leporatzen ziotenei jainkoen ama ere frigiarra zela erantzuten zien²⁴.

Hasieran, Antistenes Gorgias sofistaren ikaslea izan zen. Ondoren, ordea, Sokrates ezagutu, eta, haren izaerarekin eta pentsamenduarekin liluratuta, haren jarraitzaile bihurtu zen.

Atenastar askok pentsatzen zutenaren kontra, Sokratesek defendatzen zuen Antistenesi zintzotasuna ez zetorkiola leinutik, ahaleginetik baizik. Horregatik, Sokratesek honela esan zuen: “Antistenes, bi gurasoak atenastarrak izan balitu ere, ez zatekeen hain zintzo jaioko”.

Beste behin, Antistenes ikaslearen gainjantzi zaharraren zuloak ikusita, honela esan zion Sokratesek: “Mantuaren zuloetatik, zure handinahia ikusten dut”.



ANTISTENES (K.a. 445 -365)

<https://twitter.com/EstoEsArgos/status/1341078365281918979>

²² Sokratesen ikasleek beren eskola filosofikoak sortu zituzten: Platonek, Akademia; Aristipok, eskola zirenaikoa; Euklidesek, Metarako eskola; Fedonek, Elisko eskola; Antistenesek, zinismoa. Bestalde, Xenofon -Sokratesen ikaslea hura ere- historia-arloan aritu zen batez ere.

²³ Grekoz, *meteko* hitzak atzerritar askea esan nahi du. Hitz hau *meta* (aldaketa) eta *oikos* (etxea) hitzekin osatuta dago, eta “etxez aldatu dena” esan nahi du.

²⁴ Grekoentzat, Rea zen jainkoen ama; eta Rea frigiarra zen.

Antistenesek, atzerritarra zenez, **gimnasio**²⁵ **publiko batean**, Kynosargesen²⁶, ematen zituen **eskolak**.

Antistenesen arabera, **filosofoak** bizimodu ona (*eudaimonia*) ekar dezakeen **bertutea landu behar du**. Horretarako, ezinbestekoa da izpiritua askatzen eta bertutea lortzen laguntzen duten praktikak egitea. Praktika horiei **askesis** deritze. *Askesis*a lanarekin, ahaleginarekin eta borondatearekin lotuta dago; eta, praktika horien bidez, ondasun naturalak, eta ez konbentzionalak, lor ditzake jakintsua izan nahi duen filosofoak. Beraz, Antistenesen aburuz, **bertutea ikas eta irakats daiteke**.

Bertutearen ifrentzua bizioa da. Bizioa plazerekin erlazionatzen du Antistenesek. Plazerak txarrak dira, gizakiok sortu ditugulako eta giza autonomiatik urruntzen gaituztelako.

2.1.2. DIOGENES

“Zertarako balio du filosofiak? Zoriaren edozein erasotarako prest egoteko.”

Diogenes K.a. 412tik K.a. 323ra bitartean bizi izan zen, eta bere garaiko filosofo ziniko ezagunena izan zen. Sinopen²⁷ jaioa, erbesteratu egin zuten handik, aitarekin batera dirua faltsutzeagatik. Diogenesen esanetan, galdera bat egin zion Delfoseko orakulari, eta haren erantzunak (*Paracharattein to nomisma*) bide eman zion dirua faltsifikatzeko. Egia esan, orakuluaren esaldi horrek²⁸ esanahi bat baino gehiago ditu: **‘txanpona faltsutu’, ‘legeak aldatu’ edo ‘ohiturak mudatu’** esanahiak izan ditzake. Zeregin horietan guztietan aritu zen Diogenes.

Sinopetik Atenasera joan zen. Han ere, **metekoa** zenez, ez zituen atenastarrek zituzten eskubide berberak. Gainera, atenastar askok mespretxuz tratatu zuten. Batek honako hau leporatu zion: “Sinopetarrek erbesteratua izatera kondenatu zaituzte”, eta Diogenesek erantzun zion: “Eta haiek han geratzera kondenatuta daude”. Hala, Diogenesek ez zuen bere

²⁵ Antzinako Greziako gimnasioetan, hezkuntza fisikoa eta psikikoa lantzen zituzten.

²⁶ Gimnasioaren izenak ‘txakur zuria’ esan nahi du. Izen horrek kontakizun baten du jatorria. Behin, atenastar bat jainkoei sakrifizio bat egiten ari zitzaien, eta, halako batean, txakur zuri batek lapurtu egin zion eskaintza. Atenastarra, hasieran asalaturik bazegoen ere, baretu egin zen orakuluaren esanarekin: “Eraiki tenplu bat, txakurrak eskaintza jan duen leku berean”. Hala, leku horretan tenplu bat eraiki zuten: Kynosarges izenekoa.

²⁷ Gaurko Turkiako hiri bat da.

²⁸ Grekoz, *Paracharattein to nomisma* adierazpen polisemikoa da. Horrez gain, adierazpen enigmatikoa ere bada, orakulu batengandik espero daitekeena.

burua ezein hiritako edo inperiotako hiritartzat hartu, **kosmoseko hiritartzat baizik**.

Diogenesen biografia kondairaz osatuta dago. Haietako batek Antistenesen ikaslea izan zela kontatzen du; baina, bataren eta bestearen jaiotza- eta heriotza-datei erreparatuta, ondorioztatu daiteke Diogenesek eta Antistenesek ez zutela elkar ezagutu. Hala ere, **Antistenesen pentsamenduaren jarraitzailea** izan zen Diogenes. Zorroztasun historikoa alde batera utzita²⁹, kontakizun batek dio Diogenesek Antistenesen ikasle izan nahi zuela baina hark ez zuela ikaslerik nahi. Horregatik, jarraitzaile astun hura uxatzeko, buruan jo zuen makila batekin. Baina Diogenes ez zen makurtu, eta honela ihardetsi zion: “Jo nazazu! Ez baituzu aurkituko ni zugandik uxatzeko bezain gogorra den makilarik niri zer irakatsia daukazun artean”. Hortik aurrera, Antistenesek onartu egin zuen Diogenes ikasle gisa.



DIOGENES (K.a. 412 - 323)

Diogenes, Jean-Léon Gérôme (1860).

Ohituren aurka eta naturala dena berreskuratzearen alde agertu zen Diogenes. Haren bizitza aldarrikapen horien erakusgarri diren hainbat pasadizok osatzen dute. Arauak errespetatzen ez zituenez eta basapiztiak bezala portatzen zenez, hirikideek **“txakurra” deitzen zioten** Diogenesi. Behinola, oturuntza batean, bazkaltiar batzuek hezurak bota zizkioten, haren kontura barre egiteko. Diogenesek, haiengana patxadaz hurbildu, eta txiza egin zien.

Duda barik, Diogenesen aburuz, **animaliek izan behar zuten giza jokabidearen eredu**, haien jarrera naturarekin bat zetorrelako. Sagutxo bati begira ari zitzaiola, konturatu zen zein axolagabea, beldur gabea, askea eta independentea zen animalia hura. Gertaera hori izan omen zen haren filosofiaren abiapuntua.

Naturaren beharra ez ezik, **legeen zentzugabekeria** ere agerian uzteko, edozein lekutan edozer egiten zuen Diogenesek. Esate baterako, behin, agoran, plaza publikoan, masturbatu egin zen, eta honela esan zuen: “Nahiago nuke tripa igurtziz ere gosea kentzea”.

²⁹ Iturriak gutxi eta urrunak direla ikusita, ez dago beste aukerarik. Literaturarako joera ere sumatu liteke kontakizun hauetan, askotan kondairak pentsamenduari forma ematen laguntzen duelako.

Aberastasunak autarkiatik (burujabe izatetik) urruntzen gaituela defendatzen zuen Diogenesek. Horregatik, etxe batean bizi beharrean, anfora batean bizi zen. Makila, mantua, zorroa eta kaikua baino ez zituen. Hori bai, behin, ume batek ura eskuetan hartuta edaten zuela ikustean, bere kaikua eman zion. Diogenesen bizipen horiek ezagututa, galdera bat bururatzen zaigu: **egokia al da beharrezkoak ez diren objektuen metaketari “Diogenesen sindromea” deitzea?**

Platonek Diogenesi *Sokrates txoraa* deitzen zion. Diogenesentzat, dirudunez eta politikariz inguratutako handiusteko bat zen Platon. Diogenes zinikoa **Platonen idealismoaren aurka** zegoen, pasadizo honek islatzen duen moduan: gizakia “lumarik ez duen hankabiko animalia” zela esanda definitu zuen Platonek. Horren aurrean, Diogenesek oilar bat hartu, lumatu eta Platoni bota zion esanez: “Hona hemen zure gizona”. Hori ikusita, Platonek “azazkal lauak dituen” perpausa gehitu zion definizioari.



PLATONEN GIZAKIA?

Hain handia zen Diogenesen ospea, non Alexandro Handia enperadoreak hura bisitatzea erabaki baitzuen. Harengana heldu zenean, eguzkitan etzanda zegoen Diogenes. Alexandrok honela esan zion: “Eskatu nahi duzuna, eta emango dizut”. Diogenesen ihardespina honako hau izan zen: “Kendu erditik, eguzkia estaltzen didazu eta”.

Pirata batzuek Diogenes harrapatu eta esklabo gisa saldu zuten Korinton. Saldu baino lehen, saltzaileak galdetu zion: “Zuk zer dakizu egiten?” Eta Diogenesek esan zion: “Agintzen. Galdetu ea inork jaberik erosi nahi duen”. Hala, Xenias izenekoak, jabe bat behar zuenez, Diogenes erosi, eta askatu egin zuen, haren semei zinismoaren zuhurtasuna irakats ziezaien.

Alexandro Handia hil zen egunean hil omen zen Diogenes ere. Haren heriotzari buruz, hainbat kondaira daude: batzuek diote koliko batek jota hil zela, bizirik zegoen olagarro bat jateagatik. Beste batzuen arabera, arnasa hartzeari nahita utzita hil zen.

Nolanahi ere, Diogenesen bizitza (eta heriotza) da hark filosofatzeko erabili zuen modua. Hori dela eta, garaikideek asko miresten zuten. Besteak beste, Alexandro Handiak honako hau esan zuen kosmoseko hiritar ziniko horri buruz: “Alexandro ez banintz, Diogenes izatea gustatuko litzaidake”.

2.1.3. KRATES

“Jeneralak asto-gidari gisa irudikatu arte filosofatu behar da.”

Krates (K.a. 368-K.a 288) Tebasen jaio zen. Antistenes eta Diogenes ez bezala, familia **aberatsekoa zen**. Behin antzerkian Euripidesen tragedia batean errege bat eskalez jantzita ikusteak eta Sinopeko Diogenesen irakaspenek bizitza aldarazi zioten, eta bere **jabetzei** uko egin zien zinikoen eran bizitzeko.

Hiru istorio daude bere diruaz nola libratu zen kontatzen dutenak. Haietako batek dio tebastarren artean banatu zuela. Bigarrenak, dirua itsasora bota zuela “Kratesek Krates askatzen du” esanda. Azken bertzioaren arabera, Kratesek bankari bati utzi zion haren jabetasuna gordailu gisa, eta honako argibide hau eman zion: “Nire seme-alabak nagusiak direnean, emaiezu dirua *hiritar arruntak* badira; baina, filosofoak baldin badira, sosik ere ez eman, filosofian diharduenak filosofia bera beste ezer ez baitu behar”. Izan ere, Kratesen arabera, aberastasuna ez du diruak ematen, ezagutzak³⁰ baizik, jakintza baita ondasun iraunkor bakarra.

Diogenesen jarraitzailea izan omen zen. Dena den, maisua zakarra izan bazen ere, Krates ez zen halakoa, aldarte oneko pertsona baitzen. Kratesek, alaitsu, hainbat etxe bisitatzen zituen hirikideen gatazkak konpontzeko asmoz. Etxe horien atarian, “Sarbide askea Kratesentzat, adiskide ona baita” irakur zitekeen. Horregatik, **“Ateak irekitzen dituen”** ezizenez izendatzen zuten Krates.

Metroklesena da Kratesek egindako auzotasun-egitateen adibide bat. Metroklesi, diskurtso bat botatzen ari zela, puzker bat atera zitzaion. Lotsatuta, etxean giltzapetu zen, ezer ez jateko hautua egin eta hala hiltzeko asmotan. Kratesek horren berri izan zuenean, lekaleak janez bapo egin



KRATES (K.a. 368- 288)

Allegoria del colle della sapienza, Pinturicchio (1505).

³⁰ “Ezagutzak” aipatzean, zinikoen ikuspuntuaz ari gara: “Bizimodu egokia lortzeko behar diren ezagutza praktikoak eta ez teorikoak”.

ondoren, lotsatuta zegoenaren etxera hurbildu zen. Han, Kratesek uzker bat bota zuen, eta Metroklesi azaldu zion gertatu zitzaiona naturarekin bat zetorrela eta beraz ez zeukala lotsatzeko arrazoirik. Hortik aurrera, lotsa gaindituta —eta, orobat, konbentzioak ukatuta—, ziniko bihurtu zen Metrokles.

Hiparkia, Metroklesen arreba, **Kratesekin ezkondu** zen. Ezkontza horri *kanigamia* izena ematen zaio, zinikoen artekoa delako. Hiparkia epigrafean helduko diogu gai horri. Kontu bat baino ez dugu aurreratuko: zinikoen artean ezkontzea (konbentzionalismo bat denez) txarto ikusita zegoen, baina *kanigamia* hura ez zen izan batere ezkontza ohikoa.

Metrokles eta Hiparkia ez ezik, **Zenon ere**, estoizismoaren sortzailea, Kratesen **ikasle izan zen**. Zenon aztertzen dugunean ikusiko dugu nola ezagutu zuten elkar.

Kondairaren arabera, Kratesek topo egin zuen behin Alexandro Handiarekin. Topaketa horretan Alexandro enperadoreak galdetu zion: “Nahi duzu Tebas, zure hiria, berreraikitzea?” Kratesek, Alexandrok berak gerran Tebas suntsitu zuela kontuan hartuz, honela erantzun zion: “Zertarako? Beste Alexandro batek berriro suntsi dezan?”

Bizitza luzea izan ondoren, hiltzeko unea heldu zitzaion Kratesi. Itsusia eta txikia zen, eta, urteekin, gero eta konkortuago zegoen. Hori ikusita, umorez, honela esan zion bere buruari: “Lagun konkorduna, infernuko etxaldeetara hurbilduz zoaz”.

2.1.4. HIPARKIA

“Nik, Hiparkiak, ez nituen soineko zabaleko emakumeen lanak aukeratu, txakur indartsuen bizimodu kementsua baizik.”

Hiparkia, Antologia palatinarra, VII, 413

Maronean jaio zen Hiparkia (K.a. 350-K.a 300), eta familia **aberats baten alaba** zen. Metroklesen arreba zenez, Krates ezagutzeko aukera izan zuen. Hiparkiak **Kratesekin ezkontzeko** burubidea hartu zuen. Haren gurasoek Kratesi berari eskatu zioten alabari asmo hori burutik kentzeko. Helburu horrekin, Kratesek Hiparkiaren aurrean biluztea erabaki zuen, zaharra, txikia eta zatarra izanik erraz uxatuko zuelakoan. Alabaina, emakume hark ez zuen Krates gustuko haren edertasun fisikoagatik, ezta leinu argikoa edo aberatsa

zelako ere. Horregatik, tematu egin zen hartutako erabakian. **Bere bizitza modu autonomoan gobernatzen** uzten ez bazioten bere buruaz beste egingo zuela adierazi zien gurasoei. Gauzak horrela, azkenean onartu egin behar izan zuten alabaren nahia, eta Kratesekin ezkondu zen. Bion arteko elkartze horri, bi zinikoren artekoa zenez, **kanigamia** izena eman zioten.

- Ez dago ezkontza baino ezer konbentzionalagorik. Horregatik, zinikoeek uko egiten zioten ezkontzeari. Badirudi, beraz, Kratesek eta Hiparkiak, ezkondu zirenez, ez zutela zinikoki jokatu. Hala ere, onartu behar da bion arteko ezkontza-harremana ez zela batere ohikoa izan, besteak beste plaza publikoan larrua jotzen baitzuten edo kalean lo egiten baitzuten mantu soil batekin babestuta.

- Zentzu horretan, Hiparkiak irauli egin zituen Greziako **gizarteak ezkontza kontuetan ezarrita zituen eskema moralak**; bi arrazoiengatik, batez ere. Lehenik eta behin, norekin ezkondu behar zen erabakitzeko orduan, familiak inposatutakoa onartu ez zuelako eta ondorioz ezkontidea aukeratzean, **emakumearen erabakitzeko eskubidea**³¹ **gizonarekin parekatu** zuelako. Bigarrenik, bikote harreman hori bere garaiko gizarteak ezarritako **arauetatik kanpo** bizi izan zuelako.



HIPARKIA (K.a. 350 -300)

Emakumeentzako beste debeku batzuen aurrean ere entzungor egin zuen Hiparkiak. Garai hartan, emakume zintzoek etxean geratu behar zuten, ehuntzen eta seme-alabak hazten. Oro har, **leku publikoak** eta, zehazki, agora eta filosofia praktikatzeko egiten ziren oturuntzak **ez ziren leku egokiak emakumeentzat**; baina, hala ere, haietara joaten zen Hiparkia.

Oturuntza batean, Atenasen bisitan zebilen filosofo batek, Teodoro Ateoa zeritzonak, atsekabe handia hartu zuen emakume bat, Hiparkia, gizonei zegokien lekuan ikustean. Bien arteko elkarrizketa adierazgarria denez, hona ekarri dugu pasartea:

³¹ Kasu honetan, Hiparkia Troiako Helenarekin pareka daiteke, biek beren bikotekidea aukeratu nahi izan zutelako. Helenak inposatu zioten senarra (Menelao, Espartako erregea) utzi, eta Troiako printze bat, Paris, aukeratu zuen. Bi amorante horiek Troiara egindako ihesaldiak eragin zuen Troiako gerra. Dena den, Hiparkiak eta Helenak bikotekidea aukeratzeko orduan irizpide desberdinak erabili zituzten. Lehenengoak jakinduria bilatu zuen; bigarrenak, aldiz, edertasuna, leinu argikoa izatea eta aberastasuna.

Bankete batean Hiparkia ikustean, Teodoro Ateoa haserre altxatu zen, eta haren aurrean jarri zen, honako hau esanez:

- Kendu girlanda hori. Ez al dakizu kortesanei eta *hetairei* bakarrik onartzen zaiela oturuntzetara etortzea? Filosofia zikindu nahi al duzu zure generoaren ahuleziarekin?
- Teodoro maitea —erantzun zion—, zuri buruz gauza asko eta onak entzun ditut. Atenas osoan gorai patzen da zein trebea zaren silogismoetan. Aztertuko zenuke nire silogismo bat?
- Aurrera, txakur emea, aurkeztu ezazu hemen gaudenon aurrean, barre egin dezagun eta zure lekua zein den irakats diezazugun, logika ez baitago eginda emakume baten haur-ulermenerako.
- Erantzun iezadazu, Teodoro: Teodorok egiten duen ekintza bat gaitzesgarria ez bada, ekintza hori ez da gaitzesgarria izango Hiparkiak eginez gero ere. Ez da hala?
- Egia da, txakur eme —erantzun zuen, mespretxuz, ateoak.
- Beraz, Teodorok bere buruari zaplazteko bat eman ez gero gaizki jokatzeko ez badu, Hiparkiak ere ez du gaizki jokatzeko Teodorori zaplaztekoa ematen badio.

Han zeudenak barre egin zuten, baina Teodoro isilik geratu zen. Aukera izan zuenean, haserre erantzun zion Hiparkiari:

- Ixo, txakurren eulia! Utzi filosofia gizonei, eta jardun ehungintzan, emakumei dagokien bezala!

Garai hartako arauen arabera, Teodororen hitzen aurrean isilik³² geratzea zegokion Hiparkiari. Hala ere, erantzun hau eman zion:

- Teodoro, zergatik uste duzu ehuntzeko artea filosofiarena baino hobea dela?

Berriro, zer esan ez zekiela geratu zen Teodoro, eta, Hiparkia lotsatzeko asmoz, tira egin zion soinekotik eta biluzik utzi zuen. Baina Hiparkiak, zinikoa izanda, ez zekien lotsa zer zen, eta Teodoro geratu zen lotsa gorritan.

Pasadizo horretan, gizonek eta emakumeek *logosa* edo hitza erabiltzeko eskubide berbera dutela defendatzeaz gain, ezagutza emakumeak ahalduzko bidea dela irakasten digu Hiparkiak.

³² *Logosa* gizon batzuen, hiritarren, eskubidea baino ez zen. Arau greko baten arabera, emakumeek ez dute publikoki hitz egiteko eskubidea, eta ez diete gizonei zeresanik eman behar. Zentzu horretan, *Politika* obran, Aristotelesen honela dio: “Isiltasuna emakumearen apaingarria da”.

Historian zehar, emakume filosofo honen irudia oso negatiboa izan da, alde batetik, zinismoan -pentsamendu heterodoxo batean- kokatzen zelako eta, bestetik, gizonei zegozkien ekintzak egiten zituen emakumea zelako. Heldu zaigun **Hiparkiaren irudian, mistifikazio prozesu bat** dago. Mistifikazio horren arabera, haren meritu bakarra Kratesen emaztea izatea zen. Gainera, Hiparkia, emakume askorekin gertatzen zen (den) moduan, neska gazte eta eder gisa irudikatu da. Hiparkiaren eta Kratesen irudiak antitetikoak dira: Hiparkiaren itxura fisikoa idealizatu egiten da eta Krates gizon zahar eta jakintsu baten irudian agertzen da. Hala eta guztiz ere, epigrafe honetan aztertu dugunaren arabera, mendeetan erakutsi den irudi ezkor eta eskas hori baino askoz gehiago zen Hiparkia.

2.2. PENTSAMENDU ZINIKOA

2.2.1. SARRERA

Zergatik filosofatu ertzetik?

“Gezuraren kulturean, egia esateko behar bezain oldarkorrek eta libreak diren pertsonen eskuetan dago egiaren prozesua.”

Peter Sloterdijk, *Arrazoimen zinikoaren kritika* (Moldatuta, itzulita)

Helenismoaren garaiko filosofoek hainbat erantzun filosofiko berri eman zituzten, *Polisaren* eta *hiritar* izatearen ideiak suntsitzen zituztenak. **Krisiaren aurrean, *eudaimonia*** (bizitza ona) **lortzeko hainbat bide** proposatu zituzten: epikureismoak, *aponia* (gorputzak minik ez izatea) eta *ataraxia* (arimaren lasaitasuna); estoikoek, *apatia* (asaldu gabe bizitzea) eta norberaren burua zaintzea; eszeptikoek, *epoche* (usteak etetea) eta *ataraxia*... Zinikoen erantzuna izan zen, agian³³, iraultzaileena, besteak beste, haiek adierazitako *adiphoria* (axolagabekeria) eta *anaideiak* (lotsagabekeria) aldaketa handia eragingo baitzuten bizitzeko moduan.

Hala, planteamendu zinikoak **kolokan jartzen zituen gizartearen jarrerak**. Kulturak (konbentzioak, arauak, tradizioak...) bizitza korapilatzen zuen, eta, horrekin batera, zorientasuna lortzeko aukera zailtzen zuen. Horren aurrean, **naturara bueltatzea** zen irtenbidea. Zentzu horretan, zinismoa, **iraultzailea**

³³ Bizitzan duen eragina kontuan hartuz gero, eszeptizismoa ere proposamen subertsiboa izan daiteke.

izateaz gain, **kontrakulturala** ere bazen, kultura ofizialaren aurka egin eta naturara bueltatzea proposatzen baitzuen.

Ez hori bakarrik, zinismoak **gizartearen bazterretatik egiten zuen filosofia**. Ziniko nagusiak marjinatu sozialak izan ziren: ez ziren hiritarrak, pobrezian bizi ziren eta gizartearen arauetatik aldentuta zeuden. Garai eta kultura hartako ideia nagusietatik urrun zeudenez, hirikideek, gehienetan, **ez zituzten aintzakotzat hartzen** zinikoak, eta trufatu egiten ziren haietaz.

Zinismoa **ez zen eskola**³⁴ filosofikoa izan, ez zelako teorikoa, ez zuelako eskolak emateko kokaleku konkretu bat eta mugimenduaren barruko pentsamendua aldakorra zelako. **Ez zen sistema bat**, jarrera bat baizik. Zentzu horretan, zinismoa, eskola baino gehiago, joera filosofiko bat da.

Zinismoak **Sokratesen bertutea** bere egiten zuen. Hala ere, sokratismoa hartu, eta **muturrera eraman** zuen: Sokratesen ironia sarkasmo bihurtu zuen; haren laztasuna, pobrezia; haren sendotasuna, autarkia... Sokratesen eta zinikoen artean ere bazeuden desberdintasunak. Sokrates atenastar sentitzen zen; zinikoen, berriz, Kosmoseko hiritarrak zirela esaten zuten. Horrez gain, Sokratesek, ados ez egon arren, legeak onartzen zituen. Duda barik, haren heriotza³⁵ da horren adibide argiena. Zinikoen, ordea, naturara itzultzea aldarrikatuz, ezeztatu egiten zituzten legeak, konbentzioak diren heinean.

Proposamen zinikoa ez zen batere teorikoa, zeren eta haientzat bizitza baitzen irakaspen-iturria eta ez diskurtso teorikoak. Beraz, teoria murriztuta, **filosofia praktikoa eta bereziki etikoa** (filosofia morala) baino ez da zinismoa, bakoitzaren jarreran zentratzen da eta.

Nondik dator zinismo hitza?

Bi teoria daude zinismo hitzaren jatorriaz. Lehenengoak Antistenesek klaseak ematen zituen lekuari egiten dio erreferentzia: *Kynosarges* (txakur zuria) deitutako gimnasioan irakasten zuenez, *kynikos* deitzen zieten han biltzen zirenei. Bigarren bertsioak dio hirikideek Diogenesi ***kynikos* (txakurra) deiturarekin**



Diogenesen estatua, Sinopen (Turkian)

³⁴ Garai hartan, *Akademia* platondarraz eta *Lizeo* aristotelikoaz aparte, beste eskola filosofiko batzuk ere sortu ziren, bereziki epikureismoa eta estoizismoa.

³⁵ Gogoratu Sokratesen aurkako epaian bi aukera eman zizkiotela filosofoari: edo erbesteratzea edo bere buruaz beste egitea. Epaiaren aurka egon arren, Sokratesek onartu egin zuen eta...

iraintzen zutela -filosofo hori txakur basatien erara bizi omen zen- eta hortik hartu zuela zinismoak izena.

Grekoentzat, “txakur”³⁶ hitza irain handia zen. Hori ulertzeko, gaur dugun txakur etxekotuen irudia burutik kendu, eta txakur basatiei erreparatu behar diegu. Kaleko txakurrek gaixotasunak dituzte, arriskutsuak izan daitezke eta gauza dira beren espeziekoei ere traizio egiteko janaria eskuratzeko. Zinikoek, laidozko hitza beren burua izendatzeko erabiliz, gutxiespen-zentzua kendu eta **esanahi positiboa**³⁷ eman zioten kontzeptuari.

2.2.2. ETIKA

NATURARA BUELTATZEA

Testuinguruan ikusi dugunez, helenismoaren garaia oso aldakorra izan zen politikoki, eta horrek atsekabea eragiten zuen pertsonengan. **Urduritasun** horri **aurre egiteko**, hainbat proposamen filosofiko agertu ziren. Zinismoak, kasurako, **nomosaren aurka eta physisaren alde egitea** aldarrikatu zuen.

Zer da naturala eta zer kulturala?

Physis eta *Nomos* kontzeptuen arteko bereizketa **sofisten pentsamendutik** hartu zuten zinikoek. **Physis**a ‘**natura**’ da eta ordena geldiezin batekin lotzen da. **Nomosa** ‘**legea**’, ohitura edota giza sinesmena da; beraz, kulturarekin identifikatzen da. *Physis*a emanda dago; *nomosa*, berriz, gizakiok sortzen dugu.

Sofista batzuk *physis*aren alde daude, eta beste batzuek *nomos*aren lehentasuna defendatzen dute. Adibide gisa: Protagoras *nomos*aren aldekoa da, baina Hipiasek eta Kaliklesek *physis*ak lehentasuna duela pentsatzen dute. Ziniko guztiek, bestalde, **nomosa negatiboa** eta **physis**a **positiboa dela** defendatzen dute. Haien ustez, kulturak, bizitza zailtzen digunez, bizimodu

³⁶ Grekoentzat “txakur” hitza baino irain handiagoa zen “txakurraren eulia” esatea.

³⁷ Historian, asko dira jatorriz zentzu negatiboa izanik zentzu positibo batera ekarri diren terminoak, pertsona edo kolektibo batek jatorrizko iraina bere burua definitzeko hartuta. Esate baterako, *punk*, *queer*, *marikoi* eta *bollera*.

Esanahiaren aldaketa hizkuntzaren gaitasun performatiboarekin dago lotuta; hau da, hizkuntzak, mundua deskribatzeaz aparte, mundua sortzen (mantentzen, aldatzen...) du. Zinikoek, beren ekintzen bitartez, aldatu egin zuten *ziniko* hitzaren esanahia. Performatibitatearen gaia landu duten autore batzuk John Searle eta Judith Butler dira.

egokitik (*eudaimonia*) urruntzen³⁸ gaitu. Ohituretatik, hau da, urte askoan gauzak behin eta berriro modu berean egitetik, ez da ondorioztatu behar gauzak hala egin behar direnik. Gauzak modu naturalean egin behar dira, *physisak* ezartzen duen moduan. Arazoa da **naturala eta kulturala bereizteko gaitasuna galdu** dugula ohituren poderioz.

Naturala eta kulturala bereizteko, zinikoen **animaliak** hartzen zituzten **eredutzat**. Haien iritziz, guk araeekin, legeekin, balioekin... korapilatu egiten dugu bizitza. Horregatik, ekintza errazak, lotsagabeak eta naturalak egiten dituzten izakiei, hots, animaliei erreparatu behar diegu. Animaliak gizakiak baino hobeto bizi dira, naturalki bizi direlako. Aurrerago ikusiko dugunez, sagua jokabide egokiaren eredu zen Diogenesentzat, sagua konplexutasun barik bizi delako eta nahi duena nahi duen lekuan eta momentuan egiten duelako, hau da, autarkikoa delako. Arrazoi berberengatik, txakur basatia ere zinikoen eredu zen, eta, horregatik, *txakur* deitzea, laidoa izan beharrean, laudorioa zen haientzat.

Behin *physisa nomosetik* bereizita, ***physisera bueltatzea*** ez da lan makala. Zeregin hori orakuluak Diogenesi esandakoaren³⁹ ildotik doa, legeak, konbentzioak eta tradizioak aldatzeak⁴⁰ naturara bueltatzea baitakar. Horrela, zinikoen ezohiko portaerak ikuskizun edo performance bitxi bat baino gehiago dira, ezen naturala zer den desberdintzen eta naturalki bizitzen irakasten baitigute, gehienok egiten dugunaren aurka, hau da, konbentzionalismoaren aurka.

BERTUTEAK ETA BIZIOAK

Nola hobetu geure burua?

Honezkero, badakigu bertutea (*arete*) gauza bakoitzak duen **bikaintasuna** dela. Bertuteak **helburu** (*telos*) bat du. Helburu hori, filosofia helenistikoaren kasuan -zinismoaren kasuan ere bai-, ***eudaimonia*** edo zoriontasuna da. Zinikoen ustez, konbentzioak ahaztu eta naturara bueltatu behar dugu

³⁸ Gaurko adibide bat jarriko dugu. Internet, gizakion asmakizuna denez, kulturala da. Zinikoak haren aurka egongo ziratekeen, hainbat arrazoiengatik: Interneten harremanak azalekoak izaten dira; *likeak* bilatuz gero, besteon onarpenaren bila gabiltza, eta besteekiko mendekotasun hori autarkiaren (gizabanakoaren burujabetzaren) aurkakoa da; delituen heren bat sarean egiten dela kontuan hartuz, sarearen erabiltzaileak bagara, biktimak izateko aukera handitzen da; autarkiarako, gauza gutxirekin bizitzen jakin behar dugu, eta ordenagailua ez da ezinbestekoa. Arrazoi horiek (eta beste batzuk) kontuan hartuta, zinikoen iritziz, Internet erabiliz ez genuke bizitza on bat eskuratuko.

³⁹ Begiratu Diogenesen idazpurua.

⁴⁰ Nietzsche zinikoen ideia honetan oinarritu zen “balioen eraldaketa” edo “transbalorazio” nozioa ezartzeko. Ordura arteko balio faltsuak baztertu eta, haien ordean, bizitzaren benetakoak ezartzea da balioak eraldatzea.

zoriontasuna lortzeko. Baina naturara itzultzeko bidean (*askesisean*), ezinbestekoa izango da **bertuteak garatzea**. Hala, garai hartako kultura ukatzen zuten, gizarteak biziotsat jotzen zituenak ziren zinikoentzat bertuteak, eta alderantziz. Hona hemen bertute ziniko batzuen zerrenda:

- **Parresia.**⁴¹ Egia⁴² argi eta garbi esatean datza: egia batzuk gordinak izan arren esateko orduan leungarririk ez erabiltzea. **Hitz egiteko askatasuna** da. Adibidez, Diogenesek honela esan zion oso apainduta zihoan adineko emakume bati: “Bizidunentzat bada, erratu egin zara; baina, hildakoentzat bada, berandu zabilta”. *Parresiaz* jokatzeko **ez da eroso**. Gainera, erantzukizuna eta arriskua⁴³ ekar ditzake. *Parresiaren antonimoa koipekeria* da. Lausengariak bere horretan mantendu nahi du gizartea; *parresia* erabiltzen duena, *parresiastes* delakoa, aldiz, iraultzailea da. Antistenesen⁴⁴ esanetan: “Hobe da beleen atzaparretan erortzea lausengarien eskuetan erortzea baino. Beleek hildakoei bakarrik egiten diete kalte; lausengariak, berriz, bizirik daudenak irensten dituzte”.
- **Anaideia.**⁴⁵ Lotsagabekeria da. *Parresia* hitz egiteko askatasunarekin lotuta dago; *anaideia*, berriz, **gizakiaren portaera-askatasunarekin**. Lotsa erabiltzen da gizartearen kohesioa lortzeko; adibidez, denen aurrean pertsona bati barre egiteak⁴⁶ —eta ondorioz hura lotsarazteak— behartu egiten du pertsona hori besteok bezala portatzera. Horregatik, **giroaren presioa ekiditeko**, ezinbestekoa da lotsa alde batera uztea. Esaterako, Hiparkiak eta Kratesek *anaideiaz* jokatu⁴⁷ zuten guztion aurrean sexu harremanak



Anaideiak esfortzua (ponos) eskatzen du.

<https://www.bing.com/>

⁴¹ Grekoz *parresia* hitzak “dena esatea” esan nahi du. Zabal, askatasunez edo ausardiarekin hitz egiteari ere aplikatu daki.

⁴² Egia, grekoz, *Aletheia* da, eta “ezkutatuta dagoena argitara ateratzea” esan nahi du terminoak.

⁴³ Pentsatu zer erantzun zion Diogenesek Alexandro Handiari enperadoreak zer nahi zuen galdetu zionean.

⁴⁴ “Asko dira goretzi zaituztenak” esan ziotenean, honela erantzun zuen Antistenesek: “Eta zer egin dut txarto hainbeste jendeak ni laudatzeko?”.

⁴⁵ Grekoz, *anaideia* hitza *a* (murrizketa, gabezia...) eta *aidos* (lotsa, apaltasun) elementuez osatuta dago.

⁴⁶ Henri Bergsonen barrea ikertu zuen izen bereko obra batean. Haren ustez, barrea fenomeno soziala da; hau da, barre-algararen bitartez, desberdin jokatzen duena salatu eta besteok bezala portatzera bideratzen dugu. Zinismoan, aldiz, barrearen funtzioa kontrakoa da: zinikoek besteok bezala portatzen denari egiten diote trufa.

⁴⁷ Batzuek gehiegikeriatzat jotzen dute, baina kondairak dio Krates maisuak lotsagabea izateko eskatu ziola Zenoni eta hark aginduari jarraitu ezinik zinismotik urrunduta eta estoizismoa sortu zuela.

edukitzean, baita Diogenesek ere, plaza publikoan masturbatzean. *Anaideiaren* beste adibide bat honako hau da: gazte batek Diogenesi eskatu zion haren ikasle izan nahi zuela. Filosofo zinikoak arrain bat eman zion mutikoari eta esan zion arraina aldean zuela jarraitu behar ziola toki guztietara. Laster, mutikoa aspertu egin zen toki guztietan barregarri geratzeaz, eta arraina bota eta alde egin zuen. Handik denbora batera berriro elkartu zirenean, Diogenesek esan zion: “Pena da arrain batek gure arteko adiskidetasuna hondatu izana”.

- **Adoxia.**⁴⁸ **Jendearen onarpenik eza** da. Are gehiago, **ospe txarra** ere izan daiteke. Jakintsuak ez die jarraituko askatasuna mugatzen duten moda edo sinesmenei. Ez hori bakarrik, askotan, usadio horien aurka biziko da, eta horrek, lehenengo, **inguruko onarpen eza** eta, bigarrenez, **gutxiespena** dakartza. Fama txar horiek *parresiaren* eta *anaideiaren* ondorio zuzenak dira. Oturuntza batean, mahaikideek Diogenesi hezurak botatzea eta hark haiei txiza egitea *adoxia* bat da. Horrekin batera, garaikideen onarpen eza bitxikeria honetan antzematen da argi: Diogenes estatua bati dirua eskatzen ari zitzaion eta galdetu zioten zergatik egiten zuen hori. Diogenesen erantzuna honako hau izan zen: “Porrot egiteko trebatzen ari naizelako”.
- **Autarkia.**⁴⁹ Filosofoak bere buruaren aginduko izan behar du, hots, bere **burujabetza** erdietsi behar du. Ez du onartuko inoren edota ezeren mendeko izatea, bakoitza norbere jabe baita. Horrela, zinikoek ziklopeekin alderatzen dute beren burua, izaki mitologiko horiek lege idatzia onartzen ez dutelako, modu basatian bizi direlako eta autonomia garatzen dutelako. Autarkia eskuratzeko baldintzak *parresia*, *anaideia* eta *adoxia* dira. Behin horiek izanda, autarkia lortuko du jakintsuak, eta, horren ondorioz, bere bizitzaren aspirazioa, *eudaimonia*, ere bai. Hori bai, *eudaimonia* lortzeko, ezinbestekoak dira ahalegina (*ponos*) eta entrenamendua (*askesis*).

⁴⁸ Grekoz *adoxia* hitza *a* (murrizketa, gabezia...) eta *doxa* (iritzia, gehiengoaren ustea) elementuez osatuta dago.

⁴⁹ Grekoz *autarchia* norberaren buruaren jabe izatea da, hots, bat-beraren kontuetan norbera ez den beste inork esku ez hartzea. Autarchia *autarkeia* (autosufizientzia, nork bere burua hornitzea) ideiarene ondorioa da.

Zergatik dago gizartea gaixorik?

Kulturak gizakia usteltzen duenez, hirikideak endekatuak daude -konbentzioen jarraitzaile baitira- eta, oro har, gizartea gaixorik dago. Eritasun sozial hori gizartean zabaldu diren bizioen ondorioa da. **Bizioak bertuteen ifrentzua** dira. Bertuteek bikaintasunera garamatzate; bizioek, ostera, dekadentziara. Bizioak, mota askotakoak izan daitezke, baina batzuk baino ez ditugu aipatuko: plazeren esklabotza, norberaren buruari eusteko gai ez izatea, lotsa izatea, *akrasia*⁵⁰ edo neurririk eza, *aphronesisa*⁵¹ edo zuhurtasun falta, *agnoia* edo ezjakintasuna, handitasun nahia, *hybris*⁵² edo handikeria...

PLATONISMOAREN AURKA

Eta gizakirik ez badago?

Zinikoen aburuz, **Platon** *hybrisaren* jabea zen eragin handiko jendez inguratuta egon arren autoestimua bizkarra⁵³ baino handiagoa zuelako. Platonek, bestalde, Antistenesekin batera jaso zituen Sokratesen irakaspenak, eta ikaskidea mespretxuz tratatzen zuen, ez zelako atenastar peto-petoa. **Diogenesi** ere, ikusi dugunez, “**Sokrates txorora**” deitzen zion Platonek.



Diogenes in searching for an honest man,

Jacob Jordaens (1650).

Platon bera ez ezik, **platonismoa**⁵⁴ ere izan zen

⁵⁰ Grekoz *akrasia* (a aurrizki pribatiboaren eta ‘botere’ esanahia duen *kratos* hitzaren batuketan) norberaren jabetasuna ez izatea da, eta irrazionaltasuna du ondorioa. *Akrasian* erortzen da bere burua kontrolatzen ez duena edo egin behar dena egiten ez duena, hori egiteak ahalegin bat eskatzen diolako.

⁵¹ *Aphrosyne* (a aurrizki pribatiboaren eta ‘zuhurtzia’ edo ‘jakinduria praktikoa’ esanahia duen *phronesis* hitzaren batuketan) zuhurtasun falta da. Beraz, *phronesisa* bertute bat denez, *aphronesisa* bizio bat da.

⁵² *Hybris* hitzak urguilua, harrokeria edo handikeria esan nahi du. Grekoentzat, bizio txarrenetariko bat da. Horren aurrean, zinikoen neurritasuna defendatzen dute. Adibidez, Platonek, gaixorik egonda, kaiku batean oka egin zuen batean, Antistenesek honela esan zion: “Gopor barruan zure behazuna ikusten dut, bai, baina ez dago zure handikeriaren arrastorik”.

⁵³ Jakingo duzue, *Platon* ezizen bat da, ‘bizkar zabalekoa’ esan nahi duena. Platonen benetako izena Aristokles zen.

⁵⁴ Diogenesek kanibalismoa defendatu zuen. Ideia horretan, gizarte grekoaren ohituren aurkako eraso batez gain, atomismoaren aldarrikapena (eta platonismoaren ukapena) ikusten du Michel Onfray filosofoak.

zinikoen erasoen jomuga, gizakiak sortutako artifizioak ukatzen zituztenez Platonen idealismoa ere ezeztatu behar zutelako. Diogenes landu dugunean ikusi dugu Platonen gizakiaren definizioaren parodia: platonismoaren kontrako jarrera erakusten duen pasadizoa. Jarraian, idealismoaren kontrako jarreraren erakusgarri diren beste pasadizo batzuk kontatuko ditugu.

Behin Diogenesek, eskuan zeraman kriseilu baten argipean egunez jende artean paseatzen zebilela, aldarri hau egin zuen: “Gizonaren⁵⁵ bila nabil”. **Zergatik da pasarte hori antiplatonikoa?**

Beste behin, mugimendua ez dela existitzen arrazoitzen ari zen baten aurrean, “Ibiliz egiaztatzen da mugimendua” esan, altxatu eta ibiltzen hasi zen.

Hurrengo batean, Diogenesek honako hau galdetu zion heriotzaren ondorengo bizitzaren ontasunak predikatzen zituen apaiz bati: “Eta zergatik ez duzu zeure burua hiltzen?”

MAITASUNA ETA SEXUALITATEA

“Goseak baretzen du maitasuna, edo, bestela, denborak; eta haietako batek ere ezin badu, urkamendiak.”

Krates

“Behin Diogenesi galdetu zioten ea zein zen ezkontzeko adin egokiena. Zinikoa erantzun hau eman zuen: ezkontzeko, goizegi da gaztaroa eta beranduegi zahartzaroa.”

Diogenes Laertzio, VI, 54

Zinismoak **zalantzan** jartzen du **maitasun ideala**. Maitasuna denbora galtzea da. **Ezkontzea merkataritza-akordio**⁵⁶ bat baino ez da. **Maitemintzea zitala** ez ezik, kaltegarria ere bada, egoera horretan gogo-aldarte aldakorrak gertatzen baitira, plazera eta nahigabea nahasten dutenak. Horregatik,

⁵⁵ Unibertsala adierazteko, badira *gizon* terminoa baino hitz egokiagoak (*persona* edo *gizaki*, kasurako). Hala ere, jatorrizko testuko hitza, hau da, *gizon* hitza erabili dugu, garaiaren eta autorearen pentsamendua bere horretan adierazteko. Ikusi “Sarrera” ataleko “Zailtasunak ote?” atala. Hala ere, ikasleei honako galdera hau planteatu diezaiekegu: “Gaurko testua izango balitz, nola moldatuko zenukete inklusiboagoa izateko?”.

⁵⁶ Norekin ezkondu erabakitzeke orduan, parametro ekonomikoak baino ez ziren kontuan hartzen. Antzinako Greziako emakumeen egoeraz gehiago jakiteko, lan honek eta beste bostek osatzen duten proiektuaren barruan, Garazi Pascualek emakume greziararen rola eta Aspasiaren pentsamendua aztertzen ditu *Filosofia eta Herritartasuna Greziar Ilustrazioan. Femeninotasuna Grezia Klasikoan: Aspasia Miletokoa* lanean.

maiteminduak egoera hori gainditu eta berreskuratu egin behar du aldarte-oreka⁵⁷. Maitasunaren kontzepzio negatibo hori ikusita, ez da arraroa zinikoek ezkontza eta halako konbentzioak gaitzestea.

Ba al dute zerikusirik sexualitateak eta moralak?

Zinismoan, **praktika sexualak funtzio sozialetik eta moral tradizionaletik aske** zeuden. Gure gorputzaren zati bat ere ez da lizunkoia, eta **harreman sexualak aske** praktika ditzakegu.

Sexu-kontuetan axolagabetasuna⁵⁸ defendatzearen ondorioz, hamaika aukera disidente proposatu ditu zinismoak: guztien arteko harremanak izatea, abstinentzia ez praktikatzea, rol aktiboa ala pasiboa garatzea, emakumeek prostituzioa erabili ahal izatea, andre ezkonduen senarrak uztea eta nahi dutenarekin harremanak izatea, sexu bereko jendearekin oheratzea, afera poligamikoak izatea...



KRATES ETA HIPARKIA

K.o. I. urteko margo erromatarra

Hori bai, **kontu sexualetan, plazera ez da autarkia bezain garrantzitsua**. Beste era batera esanda, harreman sexualetan helburua ez da plazera, baizik eta praktika subertsiboak eginez bakoitzaren autonomia garatzea. Horregatik, zinismoan, harreman sexualen artean, masturbazioak dauka lehentasuna, independentzia eta autonomia, eta, azken finean, autarkia bermatzen dituelako.

⁵⁷ Planteamendu hori epikurotarren eta eszeptikoen *ataraxia* (arimaren lasaitasuna) eta estoikoen *apatheia* (aldarte barea) kontzeptuetatik gertu dago.

⁵⁸ Puntu honetan, estoizismoak defendatzen duen usteen sailkapena (ona, txarra eta axolagabea) aurreikusten da.

HEZKUNTZA

“Diogenesen aburuz, heziketa zentzutasuna da gazteentzat, kontsolamendua zaharrentzat, aberastasuna pobreentzat eta apaindura aberatsentzat.”

Diogenes DL, VI, 68

Heziketaren eraginez, gizakiak hobeak ala eskasagoak gara?

“Gaizki hezitako mutil bat ikustean, Kratesek makila hartu, eta gaztearen irakaslea jo zuen.”

Kintiliano, *Erakunde oratorioak*, I, 9, 5

Gizartean dauden bizio guztiak hezkuntzaren ondorio dira. Heziketa ofiziala⁵⁹, naturaren sinpletasunari bizkarra ematen dionez, urrun dago garrantzi handiena duten giza auzietatik. Bestalde, gazte bat gaizki hezita baldin badago, irakaslearen errua izango da. Beraz, hezkuntza klasikoaren orde, teoritik urruntzen den eta *physisean oinarritzen den bizitza praktikoa* izango da zinikoen **hezkuntza-eredua**.

Bikaintasuna irakats daiteke?

“Bertutea ekintzetan dago, eta ez dauka hitz edo ezagutza (teoriko) askoren beharrik.”

Diogenes Laertzio, VI, 10

Sofisten iritzi berekoak dira zinikoak: bertutea ez da aristokratikoa, hau da, ez da familia batzuen ezaugarria bakarrik, ez da biologikoa, ezta jatorrizkoa ere. Bertutearen **gaineko ikuspegia zabaltzeak, neurri batean, igualitarismoa** dakar, edozein klase sozialeko edonori irakats dakioko-eta

⁵⁹ Zinikoak *paideiaz* edo hezkuntza tradizionalaz ari dira, baina kritika hau egungo hezkuntzari ere aplikatu diezaiokegu.

bertutea. Irakasgarria denez, nahitaezko irakaspena da, bai sofistentzat, bai zinikoentzat.

Sofisten iritziz, bertutea irakasgarria izateak nolabaiteko berdintasuna zekarren. Horrek *logosean*⁶⁰ oinarritutako hezkuntza berria ere ekarri zuen berekin (logosa oratoria gisa ulertzen zuten sofistek). Zinikoek, aldiz, **physisarekin uztartzen** dute **bikaintasunaren** irakasgarritasuna, *logosarenetik* bereizita. Zentzu horretan, ikasteko ez da teoria handirik behar, esperientzia eta bizipenak baizik. Esfortzuaren (*ponos*) eta entrenamenduaren (*askesis*) emaitza bezala interpretatzen dute zinikoek hezkuntza. Horrela ulertuta, heziketa sofistikoa (argudiaketan oinarritua) baino sakonagoa da zinikoena. Zinikoen aburuz, hezkuntzak orokorra izan behar du, bai aldartea eta bai gorputza⁶¹ ere gogortu behar direlako.

Ikas daiteke bikaintasuna?

Heziketa zinikoan, **ikasleak rol aktiboa** dauka. Azken finean, ezin zaio irakatsi ikasi nahi ez duenari. Irakaspen-prozesuak **lan itzela** eskatzen dio ezjakinari; besteak beste, beti egia esatea (*parresia*), lotsa ez izatea (*anaideia*), gehiengoan iritziaren aurka aritzea edo ospe txarra bilatzea (*adoxia*)... Horrela, zinismoak, klaseari, generoari edo hiritartasunari dagokionez igualitarismoa ekartzen badu ere, ekintzen arabera bereizten ditu gizakiak. Beste era batera esanda, bi motatako pertsonak ditugu: *nomosa* edo konbentzioak jarraitzen dituztenak (ezikasiak) eta *physisaren* arabera dihardutenak (jakintsuak).

JANZKERA ETA POBREZIA

Nor da zoriontsuen? Aberatsa ala pobrea?

“Jainkoen pribilegioa da ezer nahi ez izatea; eta gizon⁶² jainkotiarrena, gutxi nahi izatea.”

Diogenes

⁶⁰ Grekoz, *logos* terminoak esanahi asko izan ditzake: besteak beste, ‘hitza’, ‘diskurtsoa’, ‘arrazoia’, ‘adimena’, ‘arrazoiketa’...

⁶¹ Bertutea lortzeko, adimena ez ezik, gorputza ere hezi behar da. Diogenesen garaian, gorputz-heziketa onena Espartan egiten zen. Hala ere, espartarrek ez zuten hainbeste zaintzen psikearen hezkuntza. Horregatik, gizon onak non ikusi zituen galdetu zionari, “Gizon onak inon ez, mutil onak Espartan” erantzun zion Diogenesek.

⁶² Unibertsala adierazteko orduan, *gizon* terminoa baino hitz egokiagoak (*persona* edo *gizaki*, kasurako) egon arren, jatorrizko testuko hitza, hau da, *gizon* hitza erabili dugu, ahal den neurrian garaiaren eta autorearen pentsamendua bere horretan adierazteko. Ikusi “Sarrera” ataleko “Zailtasunak ote?”. Hala ere, ikasleei honako galdera hau planteatu diezaiekegu: “Gaurko testua izango balitz, nola moldatuko zenukete inklusiboagoa izateko?”.

“Aberastasuna zoriaren oka da.”

Monimo

Aberastasunak zinikoez aldarrikatzen duten **autarkiatik urruntzen** gaitu. Gauza materialen beharrak (eta birtualenak ere) mendekotasuna sortzen digu, eta bizitza naturaletik urruntzen gaitu. Horregatik, autore zinikoez, haien bizitzetan⁶³ ikusi dugunez, aberastasuna mespretxatzen zuten eta pobrezian bizi ziren. Txirotasunak mendekotasunik gabeko bizitza dakar eta, horrekin batera, bizipoza lortzeko aukera ere bai.

Zer dio zure janzkerak zutaz? Zer adierazten duzu itxuraren bidez?

Itxura fisikoa posizio estetikoaren eta politikoaren erakusgarri izan daiteke, haren bitartez gizatalde batekin identifikatzeko edota gizartea kritikatzeko aukera ematen digulako. Zinismoaren kasuan, **janzkera pobrezia**ren aldeko aldarrikapena da. Itxurari dagokionez, antzinako zinikoez minimalistak ziren: makila bat⁶⁴, mantu bikoitz bat⁶⁵, zorro bat⁶⁶ eta nahaspilatutako ilea eta bizarra⁶⁷.



Janzkera zinikoez pobreziaren aldeko aldarrikapena dira.

<https://www.bing.com>

⁶³ Antistenesek zuloz beteta zegoen mantu zahar batekin estaltzen zuen gorputza (hari eskainitako atalean ikusi dugu zertzuk esan zizkion Sokratesek horren kontura). Diogenesek ume bati oparitu zizkion zeuzkan gauza apurrak, eta anfora batean bizi zen (begiratu Diogenesen epigrafea). Kratesek utzi egin zituen bere aberastasunak (irakurri Kratesen goiburukoa). Hiparkia apaingarri gabe janzten zen, eta kale gorrian bizi zen (aztertu Hiparkiaaren atala).

⁶⁴ Noraezean dabilen ibiltariak makila eramaten du aldean. Erregeak zetroa zuen; zinikoez, aldiz, makila. Konbentzioen mehatxuaren (eta gizartearen) kontrako babesa zen. Irakasleak ikaslearekiko zuen boterea ere islatzen zuen.

⁶⁵ Mantua zen zinikoez gorputza estaltzeko zuten jantzi bakarra, eguraldia gorabehera. Bikoitza zen udan, beroagatik, tolestuta zeramatelako. Kanean lo egiten zuten, tapaki moduan ere erabiltzen zuten.

⁶⁶ Zorroan, zinikoez bizitzarako behar zuten guztia sar zezaketen. Haien bizitza ibiltarian, edonora mugitzeko autonomia eta independentzia ematen zien.

⁶⁷ Ile nahasia (ez-zaindua) Heraklesen eta lehoiaren pasadizoarekin lotzen zen. Kima lehoiaren ikurra zen, eta naturarekin batzea adierazten zuen.

Bizarrak egiten du⁶⁸ filosofoa?

“Edozeinek eraman ditzake Sokratesen edo Diogenesen arropak, baina oso urrun gaude gizon handi haiengandik, haiek bezala bizitzetik edo antzeko arrazoibideak pentsatzetik.”

Prusako Dion, *Diskurtsoak*, LXXII, 16.

Hain zen bitxia zinikoen itxura, non moda sortu baitzuen, eta bai aro helenistikoan eta bai Erromatar Inperioaren aroan ere asko ziren zinikoen tankeran jantziak, zinikoak izan ez arren. Kristautasuna nagusitu zenean, eskeko fraideek ere zinikoen itxuran hartu zuten eredia, janzteko orduan.

2.2.3. POLITIKA

Ba al dago politika zinikorik?

Lehen begiratuan, filosofia zinikoa ez da politikaz arduratzen, krisi baten aurrean auzi publikoei jaramonik egiten ez dion erantzun indibiduala baita zinismoa. Dena den, orobat, zinismoa interesgarriagoa da esaten ez duenagatik esaten duenagatik baino. Horretan, politika ez da salbuespena.

AUTARKIA

Nork du boterea: Alexandrok ala Diogenesek?

“Askatasunari dagokionez, bi pertsona izan ditzakegu eredu: denek obeditzen dutena eta inor obeditzen ez duena.”

Ignacio Pajón Leyra, *Los filósofos cínicos*

⁶⁸ Latinez, *Barba non facit philosophum* aipua “Bizarrak ez du filosofoa egiten” esan nahi du, antzinako Grezian eta Erroman filosofoek bizarra izaten zutelako (oro har, emakumeak filosofiatik baztertuta zeuden: zer esanik ez, filosofoaren irudi arketipikotik). Hortik, beren burua filosofotzat aurkeztu nahi zuten askok bizarra uzten zuten, nahiz eta jakinduria ilea bezain azkar ez hazi. Euskaraz, ideia berbera adierazteko, besteak beste, atsotitz hau dugu: “Astoa, zetazko manta jantzita ere, asto”.

Aginpideari dagokionez, Alexandro Handiak eta Diogenes zinikoak bi eredu antitetiko islatzen dituzte. Lehenengoa, Mazedoniako inperioaren erregea da; eta, bigarrena, kale gorrian bizi da. Dena den, lehenengo inpresiotik haratago, zinismoaren ikuspuntutik, Diogenesek Alexandrok baino botere handiagoa dauka, betebehar sozialak ukatuz bere burua askatasunez gobernatzen duelako, hau da, autarkikoa delako. Alexandro, aldiz, *nomosaren* edo ohituren esklaboa⁶⁹ da. Are gehiago, Diogenesek boterea du Alexandroengan⁷⁰, nahi bezala mugiarazten baitu gutxienez bi aldiz: lehenik, Alexandro Diogenes bisitatzera hurbiltzen denean (eta ez alderantziz); eta bigarrenik, eguzkia ez kentzeko eskatzen dionean.



I. Alexander The Great and Diogenes The Cynic
Nicolas-André Monsiau (XVIII. mendekoa)

HIRITARTASUNA ETA ABERRIA

Nor da hiritarra?

Grezia klasikoan barbaroen eta grekoen artean egiten zen bereizketan, grekoa zibilizatua zen; barbaroak, aldiz, txarto hitz egiteaz gain, bizi-ohitura txarrak zituen, txarto pentsatzen zuen (grekoak ez bezala), eta harreman desagokiak zituen. Grekoarentzat, barbaroa, ezberdina izateaz gain, etsai ere izan zitekeen. Denborarekin, barbaroa eskolagabearen sinonimo bihurtu zen. Beraz, dikotomia horretan, grekoak edo heleniarrak lehentasuna zeukan barbaroen gainetik. **Zinikoek, berriz, barbaroa estimatzen dute** grekoa baino

⁶⁹ Erregeak, tradizioak errespetatzen dituztenez, ohitura horien morroi bihurtzen dira. Horrekin batera, Hegelek defendatzen du, jaunaren eta esklaboaren dialektikaren barruan, jauna ere esklaboaren menpe geratzen dela, haren onarpena behar duelako.

⁷⁰ Alexandro Diogenes ikustera joan zen pasadizoari egin diot erreferentzia. Pasarte hori Diogenesen atalean dago.

gehiago, haietako batzuen jatorriagatik⁷¹ ez ezik, *nomos* grekoa ukatzen duelako ere.

Zinismoaren ikuspuntutik, **esklabismoak ez du zentzurik**, naturaren aurkako araua delako. Zentzu berean, naturaren arabera, **emakumeek eta gizonek eskubide berberak** dituzte eta, horren ondorioz, Hiparkiak egin zuen moduan, emakumeek ere filosofian parte har dezakete.

Gauzak horrela, zinikoen **hiritartasunaren ideia modu zabalean ulertzen dute**, atzerritarrei, esklaboei eta emakumeei ere hiritar izateko eskubidea aitortzen baitiete.

Hiritarra, nongo hiritarra da? Zein da haren aberria?

“Nire aberria ez da dorre bakar bat, ezta sabai bakar bat ere, lur osoa dut bizileku, bizitzeko estalpea eskaintzen baitit.”

Krates

Kosmopolitismo hitzak Diogenesengan du jatorria. Behin, nongoa zen galdetu ziotenean, Diogenesek erantzun zuen kosmopolita⁷² zela, munduko hiritarra.

Autore askorentzat, estoizismoaren kosmopolitismoa positiboa da; zinismoarena, ordea, **kosmopolitismo negatiboa** da, Diogenesen “munduko hiritarra” eta “inongoa ez den hiritarra” adierazpenak parekoak balira bezala interpretatu baitituzte. Diogenes Sinopetik erbesteratu zuten, baina *nomosa* defendatzen zen edozein lekutatik erbesteratua izan zitekeen. Beraz, ez da inongo herritarra, ez du aberririk.

Halere, **kosmopolitismo** zinikoan aldarrikapen **positibo** bat dagoela defendatzen dute beste aditu batzuek, haien aburuz, Diogenesek “munduko hiritarra” esan zuenean “naturaren hiritarra” esan nahi zuelako. Existitzen diren (eta konbentzioak ezartzen dituzten) hirien aurka, zinikoen nahiago dute naturara bueltatzen den hiria. Hango hiritartasuna lortzeko, ez da beharrezkoa bertan jaiotzea, nahikoa da naturara bideratutako ekintzak egitea⁷³.

⁷¹ Gogoratu Antistenes mestizoa zela, eta Diogenes erbesteratua izan zela.

⁷² Grekoz *kosmopolita* terminoa kosmos (unibertsoa, kosmosa edo mundua) eta polita (hiritarra) hitzez osatutako hitza da. Grezia klasikoan, zaila zen hiritarra hiritik kanpo irudikatzea. Horregatik, Sokratesek nahiago izan zuen bere buruaz beste egin deserriak zekarren heriotza soziala jasatea baino.

⁷³ Grezierazko hitzekin jolastuz, *Physipolis* hitza asma genezake naturara bueltatzen den hiria izendatzeko.

2.3. AZKEN BI IDEIA

ZINISMOA: BASATIEN FILOSOFIA? KRITIKAK APARTE, BADU EKARPENIK?

Zinikoak basajaun eta basandere dira? Nihilistak⁷⁴ dira?

Filosofia helenistikoak filosofiaren historia ofizialetik kanpo geratu dira; zer esanik ez, zinismoa. Izan ere, zinismoa gaizki ulertua izan da mendeetan: batzuetan, basati batzuen filosofiatzat hartua eta, beste batzuetan, kritikaz haratago ekarpenik egiten ez duen pentsamendu gisa interpretatua izan da.

Justuak izateko, pentsamendu zinikoari buruzko iturri gutxi daudenez, eta gehienetan iturri horiek zinikoen anekdota-bildumak direla kontuan hartuta, ezinbestekoa da, azaleko bitxikerietan geratu gabe, haien azpian ezkututzen den pentsamendu konplexua azalratzea.

ZINISMOA GAUR

Izan gaitezke gaur zinikoak?

Azken hamarkadetan, aditu askok lan azpimarragarria egin dute zinismoak jasandako desitxuratzeko horren aurka. Zinismoa berreskuratzeko behar horretan, lehengo mailako filosofoek ere parte hartu dute. Besteak beste, Nietzschek, Foucaultek, Onfrayk eta Sloterdijkek zinismoaren eragina landu dute edo zinismoaren auzietan sakondu dute.

Zinismoa berdintasuna eskuratzeko tresna bat da, generoen, pertsonen eta herrien berdintasuna defendatzen du eta. Zentzu horretan, zinismoak eragin zuzena izan du gaurko kontrakultura eta pentsamendu heterodoxo askotan. Inposatutako *normaltasun* kontzeptuaren aurka pentsatze horrek hainbat mugimendu subertsibo inspiratu ditu, besteak beste, anarkismoa, punka, LGTBIQ+ borroka eta abangoardia artistikoak. Azken finean, erdigunetik pentsatzearen orde bazterretik pentsatzea erabakitzen duen edonor da zinikoa.

⁷⁴ Latinez *nihil* hitzak 'ezer ez' esan nahi du. Nihilista ezdeusean sinesten duena da.

2.4. LABURPENA

Nor ziren filosofo zinikoak?

Antzinako zinikoen zerrenda luzea da; **besteak beste, Antistenes, Diogenes, Krates eta Hiparkia** ditugu. Duda barik, **Diogenes** izan zen ziniko **ezagunena**. Antistenesen ikaslea izan omen zen. **Ohituren aurka eta natura berreskuratzearen alde** agertu zen Diogenes. Haren bizitza aldarrikapen horien adibide multzo bat izan zen. Arauak errespetatzen ez zituenez eta basapiztiak bezala portatzen zenez, hirikideek **kynikos (txakurra) deitzen zioten** Diogenesi, eta ziur aski horregatik izendatu zuten joera filosofiko hori zinismo.

Diogenesen aburuz, **animaliek giza jokabidearen eredu** izan behar dute, haien jarrera naturarekin bat datorrelako. Naturaren beharra ez ezik, legeen zentzugabekeria agerian uzteko, edozein lekutan edozein ekintza egiten zuen Antistenesen jarraitzaile honek. Esate baterako, agoran, plaza publikoan, masturbatzen zen. Horrekin batera, aberastasunak autarkiatik, burujabetzatik, urruntzen gaituela defendatzen zuen. Horregatik, etxe batean bizi beharrean, anfora batean bizi zen. Makila, mantu, zorro eta kaiku bana baino ez zituen. Diogenesen bizipen horiek ezagututa, galdera bat bururatzen zaigu: **egokia al da beharrezkoak ez diren objektuen metaketari “Diogenesen sindromea” deitzea?**

Zer da zinismoa?

Oro har, zinismoak **gizartearen jarrera kolokan jartzen** zuen. Kulturak (konbentzioak, arauak, tradizioak...) bizitza korapilatzen zuen, eta, horrekin batera, zorientasuna lortzeko aukera zailtzen zuen. Horren aurrean, **naturara bueltatzea** betebeharrak bat zen. Zentzu horretan, zinismoa, **iraultzailea** izatearekin batera, **kontrakulturala** ere bazen, kultura ofizialaren aurka, naturara bueltatzea proposatzen baitzuen.

Ez hori bakarrik, zinismoak **gizartearen bazterretatik egiten zuen filosofia**. Ziniko nagusiak marjinatu sozialak izan ziren, hiritarrak ez zirelako, pobrezian bizi zirelako eta gizartearen arauetatik aldentuta zeudelako.

Zinismoa **ez zen eskola**⁷⁵ filosofiko bat izan, korrante filosofiko bat baizik. Zinismoa **ez zen sistema bat**, jarrera bat baizik. Zinismoak bere egiten zuen Sokratesen bertutea. Baina **sokratismoa hartu, eta muturrera eraman** zuen;

⁷⁵ Garai honetan, Akademia platondarraz eta Lizeo aristotelikoaz gain, beste eskola filosofiko batzuk ere sortu ziren: bereziki, epikureismoa eta estoizismoa.

izan ere, pobrezia goraiatzeko zuten eta legeak ez zituzten onartzen, besteak beste.

Proposamen zinikoa ez zen batere teorikoa, zeren eta bizitza baitzen irakaspen-iturria, eta ez diskurtso teorikoak. Beraz, **filosofia praktikoa eta bereziki etikoa** (filosofia morala) baino ez da, bakoitzaren jarreraren zentratzen da eta.

1.- Etika: Nola jokatu behar dut?

Physis-Nomos bereizketa sofistek pentsamendutik hartu zuten zinikoen. **Physis** natura da eta ordena geldiezin batekin lotzen da. **Nomosa** legea, ohitura edota giza sinesmena da. Beraz, kulturarekin identifikatzen da. **Physis** emanda dago; **nomosa**, ordea, **gizakiok sortzen** dugu.

Zinikoen ustez, **eudaimonia** lortzeko, **gauzak modu naturalean**, *physis*ak ezartzen duen moduan, egin behar dira. Arazoa da ezen hainbeste urte gauzak modu berean egiten ibiltzeagatik **galdu dugula naturala eta kulturala bereizteko gaitasuna**.

Naturala eta kulturala ezberdintzeko orduan, zinikoen **animaliak** hartzen dituzte **eredu** gisa. Guk korapilatu egiten dugu bizitza, arauekin, legeekin, balioekin. Horregatik, ekintza errazak, lotsagabekoak eta naturalak egiten dituzten izakiei (hots, animaliei) erreparatu behar diegu. Animaliak gizakiak baino hobeto bizi dira, naturalki bizi direlako.

Physisera bueltatzea ez da lan makala. Hala, zinikoen ezohiko portaerak ez dira ikuskizun edo performance bitxiak bakarrik: naturala zer den bereizteaz gain, naturalki nola bizi gaitezkeen irakasten digute, konbentzionaltasunaren aurka, hau da, gehienok egiten dugunaren aurka.

Nola hobetu neure burua?

Eudaimonia lortzeko, **naturara itzuli** behar dugu. Baina, naturara itzultzeko ezinbestekoa izango zaigu bidean (*askesisean*) **bertuteak** garatzea. Bertute zinikoen artean, honako hauek bereiz daitezke: **parresia** (egiak esan egin behar dira, haietako batzuk gordinak izan arren,), **anaideia** (lotsagabekeriaz jokatzeko datza), **adoxia** (jendearen onarpenik eza edo ospe txarra erdieste) eta **autarkia** (norbera bere buruaren jabe izatea). Autarkia eskuratzeko baldintzak **parresia**, **anaideia** eta **adoxia** dira.

Platonismoaren aurka: eta ideiarik ez badago?

Platonismoa izan da **zinikoen erasoen jomuga**; izan ere, giza artifizioak ukatzen dituztenez, Platonen idealismoa ere ezeztatu behar dute. Platonismoaren edo idealismoaren kontrako Diogenesen bi pasadizo kontatuko ditugu. Behin, Diogenesek, eskuan zeraman kriseilu baten argipean egunez jende artean paseatzen zebilela, aldarri hau egin zuen: “Gizonaren⁷⁶ bila nabil”. Beste behin, mugimendua ez dela existitzen arrazoitzen ari zen baten aurrean, “Ibiliz egiaztatzen da mugimendua” esan, altxatu, eta ibiltzen hasi zen.

Zinismoan, ba al dago maitasunerako lekurik? Eta sexu-harremanetarako?

Zinismoak **zalantzan jartzen du maitasun ideala**. Maitasuna denbora galtzea da. **Ezkontzea merkataritza akordio⁷⁷** bat baino ez da. **Maitemintzea, zitala** ez ezik, kaltegarria ere bada, egoera horretan, plazera eta nahigabea nahasi, eta gogo-aldarte aldakorrek gertatzen baitira. Horregatik, maiteminduak egoera hori gainditu eta aldarte-oreka⁷⁸ berreskuratu behar du.

Bestalde, zinismoan, **praktika sexualak funtzio sozialetik eta moral tradizionaletik aske** daude. Gure gorputzaren zati bat ere ez da lizuna, eta harreman sexualak aske praktika ditzakegu. Sexu-kontuetan axolagabekeria⁷⁹ defendatzearen ondorioz, hamaika aukera disidente proposatu ditu zinismoak: guztien arteko harremanak izatea, abstinentsia ez praktikatzea, rol aktiboa ala pasiboa garatzea, emakumeek prostituzioa erabili ahal izatea, emakumeek senarrak uztea eta nahi dutenekin harremanak izatea, sexu bereko jendearekin oheratzea, harreman poligamoak izatea...

Hori bai, **sexu-kontuetan, plazera ez da autarkia bezain garrantzitsua**. Beste era batera esanda, harreman sexualetan helburua ez da plazera, praktika subertsiboak eginez bakoitzaren autonomia garatzea baizik.

⁷⁶ Unibertsala adierazteko, badira *gizon* terminoa baino hitz egokiagoak (*pertsona* edo *gizaki*, kasurako). Hala ere, jatorrizko testuko hitza, hau da, *gizon* hitza erabili dugu, garaiaren eta autorearen pentsamendua bere horretan adierazteko. Ikusi “Sarrera” ataleko “Zailtasunak ote?” atala. Hala ere, ikasleei honako galdera hau planteatu diezaiekegu: “Gaurko testua izango balitz, nola moldatuko zenukete inklusiboagoa izateko?”.

⁷⁷ Norekin ezkondu erabakitzeke orduan, parametro ekonomikoak baino ez ziren kontuan hartzen. Antzinako Greziako emakumeen egoeraz gehiago jakiteko, lan honek eta beste bostek osatzen duten proiektuaren barruan, Garazi Pascualek emakume greziarraren rola eta Aspasiaren pentsamendua aztertzen ditu *Filosofia eta Herritartasuna Greziar Ilustrazioan. Femeninotasuna Grezia Klasikoan: Aspasia Miletokoa* lanean.

⁷⁸ Planteamendu hori epikurotarren eta eszeptikoen *ataraxia* (arimaren lasaitasuna) eta estoikoen *apatheia* (aldarte barea) kontzeptuetatik gertu dago.

⁷⁹ Puntu honetan, estoizismoak defendatzen duen usteen sailkapena (ona, txarra eta axolagabea) aurreikusten da.

Zein da hezkuntza egokia?

Gizartean dauden bizio guztiak hezkuntzaren ondorio dira. Heziketa ofiziala⁸⁰, naturaren sinpletasunari bizkarra ematen dionez, urrun dago garrantzi handiena duten giza auzietatik

Bertutea ez da goi-klasekoen ezaugarri bat, **gizartearen talde guztiak eskuratu dezakete**. Beraz, edonork ikas dezake. Zentzu horretan, ikasteko ez da teoria handirik behar, esperientzia eta bizipenak baizik. Hezkuntza esfortzuaren (*ponos*) eta entrenamenduaren (*askesis*) emaitza dela interpretatzen dute zinikoek. Horien bitartez, *logosetik* bereizten den eta *physisarekin uztartzen den bertutea* (bikaintasuna) **ikas daiteke**.

Nor da zoriontsuago? Aberatsa ala pobrea?

Autore zinikoek aberastasuna mespretxatzen zuten, eta pobrezian bizi ziren. **Txirotasunak mendekotasunik gabeko bizitza** dakar eta, horrekin batera, bizipoza lortzeko aukera.

Itxura fisikoa posizio estetikoaren eta politikoaren erakusgarri izan daiteke, haren bitartez gizatalde batean identifikatzeko edota gizartea kritikatzeko aukera ematen digulako. Zinismoaren kasuan, haien **janzkera pobreziaren aldeko aldarrikapena** da.

2.- Politika: Ba al dago politika zinikorik?

Lehen begiratuan, filosofia zinikoa ez da politikaz arduratzen, krisi baten aurrean auzi publikoei jaramonik egiten ez dion erantzun indibiduala baita. Dena den, orobat, zinismoa interesgarriagoa da esaten ez duenagatik esaten duenagatik baino. Horretan, politika ez da salbuespena.

Nork du boterea?

Aginpideari dagokionez, Alexandro Handiak eta Diogenes zinikoak bi eredu antitetiko islatzen dituzte. Lehenengoa Mazedoniako inperioaren erregea da; eta bigarrena, kale gorrian bizi da. Dena den, lehenengo inpresiotik haratago, zinismoaren ikuspuntutik, Diogenesek Alexandrok baino botere handiagoa dauka, betebeharrak sozialak ukatuz bere burua

⁸⁰ Zinikoak *paideiaz* edo hezkuntza tradizionalaz ari dira, baina kritika hau egungo hezkuntzari ere aplikatu diezaiokegu.

askatasunez gobernatzen duelako, hau da, autarkikoa delako. Alexandro, aldiz, *nomosaren* edo ohituren esklaboa⁸¹ da.

Nor da hiritarra?

Zinismoaren ikuspuntutik, **esklabismoak ez du zentzurik**, naturaren aurkako araua delako. Zentzu berean, naturaren arabera, **emakumeek eta gizonek eskubide berberak** dituzte eta, horren ondorioz, emakumeek ere parte har dezakete filosofian, Hiparkiak egin zuen moduan. Gauzak horrela, zinikoek hiritartasunaren ideia modu zabalean ulertzen dute, atzerritarrei, esklaboeri eta emakumei ere hiritar izateko eskubidea aitortzen baitiete.

Hiritarra, nongo hiritarra da? Zein da haren aberria?

Kosmopolitismo hitzak Diogenesengan du jatorria. Behin, nongoa zen galdetu ziotenean, Diogenesek erantzun zuen kosmopolita⁸² zela, munduko hiritarra. Autore askorentzat, estoizismoaren kosmopolitismoa positiboa da; zinismoarena, ordea, **kosmopolitismo negatiboa** da, Diogenesen “munduko hiritarra” eta “inongoa ez den hiritarra” adierazpenak parekoak balira bezala interpretatu baitituzte. Diogenes Sinopetik erbesteratu zuten, baina *nomosa* defendatzen zen edozein lekutatik erbesteratua izan zitekeen. Beraz, ez da inongo herritarra, ez du aberirik.

Halere, **kosmopolitismo** zinikoan aldarrikapen **positibo** bat dagoela defendatzen dute beste aditu batzuek. Haien aburuz, Diogenesek “munduko hiritarra” esan zuenean “naturaren hiritarra” esan nahi zuelako. Existitzen diren (eta konbentzioak ezartzen dituzten) hirien aurka, zinikoek nahiago dute naturara bueltatzen den hiria. Hango hiritartasuna lortzeko, ez da beharrezkoa bertan jaiotzea, nahikoa da naturara bideratutako ekintzak egitea⁸³.

⁸¹ Erregeek, tradizioak errespetatzen dituztenez, ohitura horien morroi bihurtzen dira. Horrekin batera, Hegelek defendatzen du jaunaren eta esklaboaren dialektikaren barruan jauna ere esklaboaren menpe geratzen dela haren onarpena behar duelako.

⁸² Grekoz, *kosmopolita* terminoa “kosmos” (unibertsoa, kosmosa edo mundua) eta “polita” (hiritarra) hitzez osatutako hitza da. Grezia klasikoan, zaila zen hiritarra hiritik kanpo irudikatzea. Horregatik, Sokratesek nahiago izan zuen bere buruaz beste egin, deserriak zekarren heriotza soziala jasatea baino.

⁸³ Grezierazko hitzekin jolastuz, *Physipolis* hitza asma genezake, naturara bueltatzen den hiria izendatzeko.

3. EPIKUREISMOA

“Gizakiaren sufrimendua zuzentzen ez duen filosofoaren hitza alferrikakoa da.”

Epikuro



Ataraxia

3.1. EPIKURO

BIZITZA

Nor zen?


Epikuro K.a. 341. urtean **jaio** zen, **Samos uhartean**. Haren aita, Neokles, jatorriz atenastarra zen, baina uhartera bizitzera joan zen lursail bat jasotzearen truke; segur aski, arazo ekonomikoak zituelako. Eskola batean ibili zen, maisu-lanetan, eta bere seme Epikuroren laguntza izan zuen zeregin horietan.

Epikuro hamalau urte zituela hasi zen filosofia ikasten, Panfilo platondarrarekin. Garai hartan, atenastar baten semeak, **soldadutza eginez gero, hiritartasuna** eskuratzen zuen. Beraz, hemezortzi urte betetzean, asmo horrekin joan zen Atenasera. Garai hartan hil ziren, hirian, Alexandro Handia, Aristoteles eta Diogenes zinikoa.

Kanpoan zebilen bitartean, Kolofonera lekualdatu zen familia. Eta, familiakoengana itzuli zenean, han, Kolofonen, Nausifanes filosofo atomista izan zuen irakasle, lau urtez. Azkenean, Nausifanes maisuaren teoriaren eta bizitzaren arteko koherentzia falta zela eta, Epikuro urrundu egin zen harengandik. Are gehiago, ukatu egin zuen publikoki hura irakasle izan zuela.

Aurrerago, Epikurok **bere lehenengo eskola** sortu zuen, **Mitilenen**; baina ez zuen luze iraun. Utzi behar izan zuen, Aristotelikoekin zuen lehia profesionalarengatik; eta Lampsakora joan zen. Han, bere jarraitzaileekin, bigarren eskola bat eratu zuen.

Dena den, hogeita hamabost urte zituela, **Atenasera bueltatu** zen, eta han sortu zuen bere eskola nagusia: **Lorategia**. Azken finean, Atenas, gertaera politikoak gorabehera, mugimendu intelektualen erdigunea zen orduan ere. Lorategian, **adiskidez eta senideez inguratuta**, bere pentsamendua gorpuztu, eta lasai bizi izan zen. Giltzurrun-kalkulu batek jota hil zen, K.a. 270. urtean. Bere heriotzaren egunean, gutun bat bidali zion bere lagun Idomeneori, esanez bere bizitzako egunik zoriontsuena zela. Hala, jakintsu orok lortu nahi duen **arimaren lasaitasunaren (ataraxiaren) eredu** izan zen, heriotzan ere.



EPIKURO (K.a. 341 - 270)

<https://clipdrop.co/>

“Nire egunik zoriontsuena eta aldi berean nire bizitzako azken eguna den honetan, gure iraganeko elkarrizketa filosofikoak gogoratzeak ariman eragiten didan pozak luzaz konpentsatzen ditu maskurian eta hesteetan ditudan min biziak.”

Epikuro, *Idomeneorentzako gutuna* (moldatua)

LANAK

Nola heldu zaigu epikureismoa?

Epikurok **lan ugari** idatzi zituen, hirurehun bat papiro-biribilkitan. Zoritxarrez, haien **atal labur batzuk** baino ez zaizkigu **iritsi**. Haien artean, nabarmentzekoak dira lagunei bidalitako gutun batzuk. Aipatutako *Idomeneorentzako gutunarekin* batera, *Herodotorentzako gutuna*, *Pitoklesentzako gutuna* eta *Menezeorentzako gutuna* ditugu ezagunenak. Azken hori interesgarrienetarikoa da, maila literario handiagoa duelako eta bertan etikaren gai nagusiak lantzen dituelako filosofoak.

Gutunez gain, *Maxima nagusiak* ere gorde dira. Lan horrek bizimodu ona izateko aholkuak jasotzen ditu, esaera gisa formulatuta. XIX. mendearen amaieran, *Vatikanoko esaerak* bilduman aurkitu zituzten. Bilduma horrek Epikurok eta hainbat epikurotarrek idatzitako aforismo etikoak jasotzen ditu. Haiekin batera, K.o. 70. urtean Vesuvioren erupzioaren ondorioz lurperatutako Epikuroren testu batzuk ere berreskuratu zituzten, XIX. mendearen amaieran.

Asko izan dira epikureismoa zabaldu dutenak. Baina bi aipatuko ditugu, berriaz. Alde batetik, Filomeno dugu. Epikuroren lanak eta testuak biltzen eta antolatzen aritu zen. Beste aldetik, **Lukrezio** olerkaria dago, batez ere. Haren *De rerum natura* (Gauzen izaeran) lana epikureismoa azaltzen duen olerki bat da. Askoren ustez, garai guztietako poema filosofikorik handiena da.

3.2. LORATEGIA

Zein da lekurik egokiena ikasteko (eta irakasteko)?

Lehen esan dugun bezala, Epikurok etxe bat eta lursail txiki bat erosi zituen, Atenasen kanpoaldean, eskolak emateko. Hori dela eta, *Lorategia* deitzen zioten Epikuroren eskolari. Dena den, lore-baratzea baino gehiago, ortua zen. Han biltzen ziren, **hiriaren zalapartatik urrun**, hura eta haren ikasleak, bizimodu ona lortzeko asmoz. Epikuroren irakaspenei jarraituz,

adiskidetasuna eta eskuzabaltasuna lantzen zituzten. Ospakizunak ere egiten zituzten, neurriz. Adibidez, hilaren hogeian, maisuaren jaioteguna ospatzen zuten.

Lorategian, klase sozial desberdinetako pertsonak ez ezik, **emakumeak ere onartzen** zituzten. Haien artean ditugu Mammarión, Hedeia, Temista, Leontion, Nikidion edo Erontion emakume filosofoak. Harrigarriagoa oraindik, Lorategian **esklaboak ere** onartzen zituzten. Irekitasun hori ez zen ohikoa garai hartako eskola filosofikoetan, eta horrek jendea haserrearazi egin zuen.

Edonola ere, lore-baratzeak ekarri zuen berritasuna askoz sakonagoa izan zen. Horren adibide da Epikurok **filosofia edozein adinetarako** jarduera egoki gisa hartzea. Inor ez da zaharregia, ezta gaztegia ere, filosofian aritzeko.

“Bai gazteak, bai zaharrak, beharrezkoa du filosofian jardutea: bigarrenak, zaharra izanda ere, iragana atseginez gogoratzeari esker gaztetu dadin; lehenengoak, berriz, etorkizunaren aurrean beldurra kentzeari esker gaztea eta adindua izan dadin aldi berean.”

Epikuro, Menezeorentzako gutuna



The Philosopher's Garden at Athens, Iconographic Encyclopaedia of Science, Literature and Art, (1851).

Ez dago dudarik **Lorategiak** berak **hezkuntza tradizionalaren** (*paideia*) **kontzeptua irauli** zuela. Atenaseko eskola filosofiko nagusiak, hau da, Platonen Akademia eta Aristotelesen Peripatos edo Lizeoa, hirian bertan kokatzen ziren. Epikurorena, berriz, hiriko iskanbilatik urrun zegoen.

Zergatik erabaki zuen Epikurok bere eskola hirigunetik kanpo kokatzea?

Testuinguruan dugu gakoa. Sokratesen, Platonen eta -neurri txikiagoan-Aristotelesen Atenasen, hiritarrek baino ez zuten parte hartzen -neurri batean edo bestean- hiriaren kontuetan, hau da, politikan (emakumeek, esklaboek, atzerritarrek edo *metekoek* ez zuten horretarako eskubiderik). Horregatik, politika zen filosofia praktikoaren arlo nagusia, eta filosofo izan nahi zuenak politikaz jakin behar zuen. Hala ere, Alexandro Handiak inperioa osatu zuenean, aldatu egin ziren gauzak. Oro har, hiri-estatuek, polisek, galdu egin zuten modu autonomoan gobernatzeko aukera, eta hiritarrak mendeko bilakatu ziren. Alexandroren heriotzaren ostean haren jeneralek inperioa banatu zutenean, gauzak ez ziren asko aldatu, ez polisentzat, ezta biztanleentzat ere. **Kontu publikoetan parte hartu ezinik**, filosofo asko, Epikuro kasurako, **urrundu** egin ziren **politikatik**. Horren ondorioz, haientzat, politikaren ordeztu, **etika** bihurtu zen filosofia praktikoaren **eremu inportanteena**. Gauzak horrela, egon daiteke lorategi bat baino leku hoberik filosofia ikasteko (eta irakasteko)?

3.3. PENTSAMENDU EPIKUROTARRA

“Zoriontasuna gorputzak eta arimak atsekaberik ez izatea da; eta jainkoek bakarrik goza dezakete hartaz, absolutuki.”

Epikuro

3.3.1. SARRERA

Zertan datza pentsamendu hau?

Epikuroren sistema filosofikoa **gizakiaren ezinegona baretzeko** modu bat da. Beldurrari aurre egin, eta diren bezala onartzen ditu egitate naturalak. Horrela, zoriontsu izateko behar den lasaitasunaz goza daiteke.

Beraz, epikureismoak defendatzen du filosofiak praktikoa izan behar duela. Filosofiak eragin zuzena izan behar du **gizabanakoaren** bizitzan, eta,

ikuspuntu horretatik, **bizitzarako sendabide** bat da. Botika hori, gizabanakoaren bizitzan aplikagarria denez, sendagai etiko bat da. Horregatik, epikureismoan, etika edo filosofia morala da filosofiaren ardatz nagusia. Ideia horretan, zinismoarekin eta estoizismoarekin bat egiten du, baina hiru pentsaera horietako bakoitzak bide desberdinetik heltzen dio gaiari.

Filosofiaren ildo nagusitzat etika joz, Epikurok sinplifikatu egin zituen Platonek eta Aristotelesek diziplina filosofikoen gainean egindako planteamenduak, eta bere egin zuen Xenokratesen hiru arloko banaketa; **ezagutzaren teoriaren, fisikaren eta etikaren arteko banaketa**, hain zuzen ere. **Etika** da hiruretatik **garrantzitsuena**, eta beste biak haren mende daude.

3.3.2. EZAGUTZAREN TEORIA (KANONA)

Kanona **ezagutza-irizpideen teoria** bat da, eta egia eta gezurra bereizteko beharrezko irizpideak zehazten ditu. Teoria hori Epikurok idatzitako *Kanon* lanetik aterata dago. Lan horren zatiak baino ez zaizkigu heldu: *Herodotorentzako gutuna* testuan, adibidez, teoria horren laburpena egiten da.

Zer bide ditugu gizakiok ezagutza eskuratzeko?

Epikuroren arabera, **hiru ezagutza-bide** ditugu:

Sentsazioak: munduko objektuek atomo berezi batzuk askatzen dituzte eta, partikula-jario horiek gure zentzumenekin talka egitean, **irudiak edo errepresentazioak** sortzen dituzte gudan.

Aurreulerkerak edo prolepsiak: edozein errepresentazio behin eta berriro errepikatuz gero sortzen dira, oroimenaren eraginez. Zenbait irudi hautemanda **kontzeptu bat sortzean** datza. Ideia platonikoak edo unibertsal aristotelikoak bezalako abstrakzioak dira. Esate baterako, hainbat txakurren irudia ikusiz gero, txakurraren aurreulerkera ezartzen dugu. Prolepsiak egiazkoak dira, sentsazioak (*aisthesiak*) bezala; eta horiek **biak dira ezagutzeko bide fidagarrienak**.

Irrikak edo sentimenduak: maila txikiagoan bada ere, grinak (*pathos*) edo sentimenduak (*pathe*) informazio iturria izan daitezke gizakiontzat. Afekzio horiek **sufirimenduarekin eta plazerekin lotzen** ditugu. Gehienbat, etikan eta politikan dira funtsezkoak. Azken batean, ahalik eta plazer handienarekin

eta ahalik eta sufrimendu txikienarekin lotutako afekzioak dituen bizimodua baino ez da zorientasuna.

Horrekin batera, Epikurok laugarren irizpide bat aipatzen du kanonean: **“proiekzio irudimentsuak”** (*phantastikas epibolás tés dianoías*). Zentzumenek egiaztatu ez duten zerbait existitzen dela proiektatzea edo inferitzea da.

Gezurra eta egia bereiztea ezinbestekoa da Epikurorentzat. Azken finean, **jakintsuaren arimaren lasaitasuna** (*ataraxia*) huts egin ez izanaren segurtasunak **baldintzatzen** du. Hortaz, Epikurok, Sokratesek bezalaxe, intelektualismo etiko bat defendatzen du, ezinbestekoa baita egia ezagutzea moralki jokatzeko.

Nola bereizi egia eta gezurra?

Gauza bat nabaria izatea da hura egiaztat hartzeko irizpidea. Ebidentzia hori enpirikoa da. Zergatik? Gauza fisikoak baino ez dira existitzen, eta zentzumenak dira haiek ezagutzeko bide nagusiak. **Arrazoimena bigarren maila** batean geratzen da.

Baina sentsazio guztiak benetakoak badira, ez al gara objektibismo absolutu batean erortzen? Ez al dago akatsik zentzumenek hautemandakoetan?

3.3.3. FISIKA

Nolakoa da mundua?

Fisikak erakusten digu nola dagoen eratuta **mundu materiala (sentikorra)** eta zein diren haren printzipioak. Ideia horiek Epikuroren *Naturari buruz* lanean daude bilduta, baina lan horretako pasarte batzuk bakarrik iritsi zaizkigu, *Kanonarekin* gertatu bezala. Epikuroren *Herodotorentzako gutuna* eta Lukrezioaren *Gauzen izaeraz* lanen bidez jaso ditugu fisika epikurotarraren ideia nagusiak.

Epikuro **atomista** zen. Hura baino lehen, K.a. V-IV. mendean, izan ziren beste atomista batzuk: Leuzipo eta Demokrito. Demokritoren ideietan oinarritzen da Epikuroren fisika.

Epikuroren **fisika materialista** da, defendatzen baitzuen fisikoak ez diren gauzak ez direla existitzen. Munduko **objektu fisikoak atomoz osatuta** daude. “Atomo” horiek ez dira gaurko zientziak aipatzen dituen atomoen

baliokideak. Atomistentzat, objektu guztiak zatigarriak dira; hala ere, behin eta berriro zatikatu arren, momentu batean ezin izango ditugu gehiago zatitu. Bada, unitate zatiezin horiei “atomo” esaten diegu. Gogoratu dezagun grekoz *atomon* hitzak “zatiezin” esan nahi duela.

Atomoak deskribatzeko orduan, existitzen denak beti existitu behar duela defendatzen zuen Epikurok; eta, horretan, Parmenidesen planteamenduen jarraitzailea zen. Hala ere, ideia hori eta Demokritoren atomismoa uztartu, eta defendatzen zuen atomoak betidanik existitu direla. Epikurok dio atomoak **behin betikoak, amaigabeak eta aldaezinak** direla eta modu askotan konbina daitezkeela elkarren artean objektu fisikoak sortzeko. Atomoak betidanik izan badira, mundua ere bai. Horrek ez du esan nahi objektuak iraunkorrak edo izakiak hilezkoak direnik, gauzak agertu eta desagertu egiten baitira atomoak elkartzen eta banatzen direnean.

Elkarrekin batzeko eta elkarrengandik bereizteko, mugitu egin behar dira atomoak; eta, mugitzeko, espazioak egon behar du atomoen artean. Epikurok **huts** zeritzon atomoen arteko espazioari. Objektu konposatuak sortu aurretik, atomoak mugi daitezke, hutsari esker, eta, batik bat, erori. Dena den, erortzean, desbideratu egin daitezke, bai espazioan eta bai denboran. Desbideratze horri ***klinamen*** deritza, eta zorizkoa da.



Clinamen n° 22,

Bernard Moninot (2016)

Ba al daukagu askatasunik?

Nahiz eta Epikurok teoria atomikoa Leuziporengandik eta Demokritorengandik hartu, haren ekarpena da *klinamen* delakoaren ideia⁸⁴. Atomoen elkartzean oinarritu zen Epikuro **unibertsoaren sorrera** azaltzeko. Horrez gain, *klinamen* delakoaren bidez, izaki bizidunen jokabide-autonomia ere azaldu zuen, eta ahalmen hori aukeramenarekin, **askatasunarekin**, identifikatzen da. Hala, Epikurok saihestu egin zuen determinismoa. Halabeharra existitzen dela onartu arren, desbideratzeko aukera dagoenez,

⁸⁴ Egia esan, Lukreziok erabili zuen lehen aldiz *klinamen* hitz latindarra. Lehenago, Epikurok *parenklisis* hitz grekoa erabili zuen atomoen desbideratzea izendatzeko.

halabeharra ez da erabatekoa (aurrerago aztertuko dugu zer eragin izan zuen horrek etikan). Ideia horretan, talka egiten dute Epikuroren eta Demokritoren atomismoek. Lehenengoarenak askatasuna bermatzen du; bigarrenaren atomismo mekanizistak, ordea, defendatzen du dena erabakita dagoela eta ez dagoela askatasunik. Beraz, Demokritoren atomismoa determinista da, Epikurorena ez bezala.

Ba al da bizitza ostekorik?

Hutsa ez beste guztia materiala bada, **arima** ez da salbuespena. Atomo soutil batzuez osatuta dago, eta, gorputza desegiten denean, arima ere desagertzen da, hau da, **hilkorra** da; hortaz, bizitza hau baino ez dago. Baieztapen horren ondorio etikoak agerikoak dira: beste bizitzarik ez dagoenez, ez dugu zertan beldurrik izan. Bizitzen ari garen bizitza baino ez da existitzen, eta horretan bilatu beharko genuke zoriona.

Pitoklesentzako gutunean ematen du Epikurok bere **kosmologiaren berri**. Idazlan horretan, zeruko gertaerak (zeruan ikusten ditugun gauzak) argitzen ditu. Epikurorentzat, zeruko kontuak gauza naturalak dira, eta ez jainkotiarak. Horregatik, ez dira arrazoi mitikoen ezta erlijiosoen bidez azaldu behar, azalpen horiek ezinegona eragiten baitute jendearengan. Halako arrazoi ordez, hobe dugu planteamendu arrazionalak onartzea, egiaztatu ezin badira ere.

Zergatik da hain garrantzitsua mundua ezagutzea?

“Beldurrik ez bagenu, ez genuke zertan natura ikertu.”

Unibertsoaren **azalpen fisikoak behar etiko bati erantzuten dio**: zehazki, erlijioarekin eta mitoekin loturiko hainbat azalpen irrazionalak eta naturaz gaindikoek eragindako beldurren ondorioz, gizakiak bere larritasuna baretzeko eta bere burua lasaitzeko duen beharrari. Fisikak ezartzen dituen azalpen naturalek uxatu egiten dituzte beldur irrazional horiek. Atomoen mugimenduaren gaineko ezagutza ez ezik, arimarena, heriotzarena, minarena eta jainkoena ere inportanteak dira, ezagutza horiek ondorio etikoak baldin badituzte. Aldiz, **ezagutza fisikoak gutxiestekoak dira, inplikazio etikorik izan ezean.**

Ba al du zerikusirik fisika epikurotarrek fisika modernoarekin?

Fisika epikurotarra **etikaren mende** badago ere, egungo fisikak ez du loturarik ezartzen bere aurkikuntzen eta gizakiaren portaeraren artean.

Autore batzuek materiaren eta energiaren kontserbazio-printzipioaren lehen formulazioa ikusi nahi izan dute Demokritoren eta Epikuroren fisika atomistetan. Are gehiago, defendatzen dute printzipio hori Parmenidesen ideia honetatik ondorioztatzen dela: “Existitzen ez denetik ez da ezer sortzen; eta existitzen dena ez da suntsitzen”. Halere, nekez sinets daiteke ezen Demokritok eta Epikurok materia eta energia gauza bera izendatzeko erabiltzen diren bi izen direla pentsa zezaketarik, zientzia modernoan gertatzen den bezala.

3.3.4. ETIKA

Nolakoa izan behar du giza jokaerak?

Epikurok *Menekeorentzako gutuna* eta *Iritzi nagusiak* obretan azaltzen du bere etika. Lan horietan, ikus daiteke bai ezagutzaren teoria bai fisika etikaren mende daudela. Filosofia nahasmen politiko eta sozialaren aurkako erremedioa zen; beraz, etikak planteatutako sendabide indibidualek lehenetsuna hartu zuten, politikak proposatutako konponbide kolektiboetatik urrun.

Etika edo filosofia morala gizabanakoak nola portatu behar duen arazoitzen duen diziplina da. Epikurotarrek bakoitzaren jokaeraren bidez zorientasuna, **bizimodu ona, lortzea** dute helburua. Horretarako, ezinbestekoa da gizakiok burujabe izatea, askeak izan ezean ezinekoa izango bailitzateke portaera egokia (edo desegokia) hautatzea. Filosofia moral horri bide emateko, fisikaren arloan proposatutako *klinamen* mugimenduaren bitartez bermatzen du Epikurok askatasuna.

Zerk sortzen du larritasuna?

Aurreko paragrafoan ikusi dugun ideiatik abiatuta, gizakiaren **larritasunaren (angustiaren) aurkako botika** da filosofia. Zirkunstantzietan sosegua eta lasaitasuna ukatzen dizkiote jakintsuari, eta, filosofiaren bidez, sosegua eta lasaitasun horretaz hornitzen du arima jakintsuak. Hala, zorientasunera

iritsiko da. Arimaren baretasun hori (*ataraxia*) lortzeko, lau ataleko sendagai hau (*Tetrapharmakos*) proposatzen du Epikurok, zehazki:

“Ez izan jainkoen beldur.

Ez kezkatu heriotzagatik.

Ona erraz lortzen da.

Beldurgarria erraz jasaten da.”

Banaka aztertuko ditugu aipatutako lau sendagai horiek:

JAINKOAK⁸⁵

Beldurra eragin behar dute jainkoek?

“Ez izan jainkoaren beldur.”

Antzinako Grezian, politeismoak lekuaren eta sasoiaren arabera ezaugarriak izan zituen. Jainko homerikoen bertuteak (sendotasuna, jakinduria, estrategia...) gerrarekin lotuta zeuden. Jainkoak hilezkoak ziren, gazteak, eta betiereko bizitza eroso bat zeukaten, plazerez, festaz eta oturuntzaz betea. Arrazionalismo berrien eraginpean (oroz gain Platonen eta Aristotelesen eraginpean), moralismoak baldintzatu zituen jainkoak irudikatze erak, eta jainkoak ezaugarri moralekin (arrazionaltasunarekin, eskuzabaltasunarekin, ontasunarekin eta abarrekin) lotzen hasi ziren.

Zenbat eta aurreratuago egon jainkoen moralizazio-prozesua, orduan eta beldur handiagoa diegu gizakiok jainkoei. “Zigortuko gaituzte jainkoek, haiek markatutako irizpide moralak jarraitzen ez baditugu?”. Ikara horrek larritasuna eragiten digu. Ezinegon horri aurre egiteko, proposamen bat egiten du Epikurok.

⁸⁵ “Jainkoak” hitza erabili dugu (eta ez “jainko-jainkosak”) gizarte grekoan eta Olinpon ahalmen gehienak gizonen esku geratzen zirelako. Jatorrizko testuetan, ez zaie jainkosei aipamenik egiten (ikus, “Sarrera” atalean, “Zailtasunik ote?”). Galdera hau ere planteatu diezaiekegu ikasleei: “Gaurko testua izango balitz, nola moldatuko zenukete inklusiboagoa izan dadin?”.

Ikusi dugunez, Epikuroren garaia ziurtasunik gabekoa izan zen. Ezegonkortasun horren aurrean, jainkoek ez zuten ezer egin. Beraz, **nola sinetsi jainko zaharrengan, behar ditugunean laguntzen ez badigute?**

Gizakion larritasunaren aurrean Jainkoek ez erantzutea honela justifikatzen zuten epikurotarrek: jainkoak zoriontsu bizi dira, ez gure munduan, munduen artean baizik. Are gehiago, epikurotarren arabera, mundua ez zuten jainkoek sortu, betidanik existitutako atomoak zoriz konbinatzearen emaitza baitira munduko objektuak.

Mito eta erlijioetako ideiek jainkoek gure munduan egindako esku-hartzeen eta haiengandik gizakiok jasotako zigorren berri ematen digute askotan. Epikurorentzat, horiek herri xumearen sineskeriak baino ez dira. **Jainkoak bere munduan bizi badira eta bertan zoriontsu badira, ez dira gizakion kontuez kezkatzen;** jainkoek ez dute gure munduan parte hartzen, eta, horregatik, **zentzugabea da haiei beldurra izatea.**

Jainkoak, zoriontsuak ez ezik, hilezkorak, izukaitzak eta askeak ere badira, eta lasai bizi dira. Jakintsu izan nahi duenak, filosofoak kasurako, **jainkoen ereduari** jarraitu behar dio bere jarreraren bidez askatasuna, lasaitasuna eta zoriontasuna lortzeko.⁸⁶

Jainkoekin lotuta, Humek askoz geroago zabalduko "Epikuroren paradoxa" edo "gaitzaren paradoxa" delakoa daukagu. Honela dio: "Gure munduko gaitzaren eta sufrimenduaren existentzia ez da bateragarria Jainko orojakile, ahalguztidun, nonahiko eta guztiz onberaren ideiarekin".

HERIOTZA

Ba al du zentzurik heriotzaren beldur izateak?

"Ez kezkatu heriotzagatik."⁸⁷

Ez dakigu noiz eta nola hilko garen. Horrek antsietatea sortzen digu. Hala ere, Epikuroren ustez, jainkoez arduratzeak zentzurik ez badu, **heriotzaren gaineko kezkek ere ez.**

⁸⁶ Filosofoa ezjakinaren eta jakintsuaren artean kokatzen da. Filosofoaren helburua jakintsua izatea da; baina, jakintsuaren eredu ideal bat denez, filosofoa erdibidean dago beti. Filosofoarentzat, erreferentea jakintsua da; jakintsuarentzat, berriz, jainkoak dira.

⁸⁷ Epikurok baino lehen, Diogenes zinikoak defendatu zuen heriotzagatik ez kezkatzearen ideia. *Filosofo ospetsuen bizitza eta iritziak* lanean, Diogenes Laertzio historiagileak honela idatzi zuen: "Diogenesi heriotza gaitz bat zen galdetu ziotenean, zinikoak honela ihardetsi zien: Nola izan liteke gaitz bat hura presente dagoenean gu ez bagaude?"

Heriotza ez da ezer guretzat. Gure gorputza hiltzen denean haren atomoak sakabanatzen direnez, ez dago “Ni”-rik. **Ba al du zentzurik “ez dut ezer sentitzen” esateak sentitzen duen inor ez badago? Heriotza sentsaziorik eza da.** Ez gara inoiz hilda egongo, ez baikara inola ere egongo hil ondoren; hau da, jaio aurretik edo hil ondotik ez dago existentziarik (ezta horren subjekturik ere ez). Horregatik, heriotza, ezereza denez gero, ezin da buruhaustea izan gizakiontzat.

“Bizirik ez egotea ez dela beldurgarria benetan ulertu duenarentzat, bizitzeak ez du ezer beldurgarririk... Beraz, guretzat, heriotza ez da ezer. Izan ere, gu existitzen garen bitartean, heriotza ez dago presente; eta, heriotza presente dagoenean, gu ez gara existitzen.”

Epikuro, Menekeorentzako gutuna

Agian, heriotzari beldur izateak honako hau ezkututzen du: norberaren burua desagertzeko beldurra. Epikurorentzat —materialista (eta atomista) baitzen— guztiz irrazionala izango litzateke beldur hori, betikotasuna atomoei bakarrik baitagokie. Atomoz osatutako izaki konposatuak, gizakiok barne, desagertu egingo gara. Beraz, **zergatik ez onartu hilkorrak garela?**

Post mortem existentzia egoteak hau ekarriko luke: orain “heriotza” deritzogun gertaerari “bizitza” deitu behar izatea. Dena den, materialista izanik, Epikurori ez zaio ideia hori interesatzen, sineskeria idealistak egiaztatu gabeko hipotesiak besterik ez baitira.

Suizidioari dagokionez, epikureismoak ez du gaitzesten. Hori bai, bakarrik onar daiteke plazera lortzeko **aukera guztiak baztertu ondoren**. Bizitzari eustea litzateke beti aukerarik onena, kontuan hartuta bizirik jarraituz gero edozein momentutan plazera sentitzeko aukera izango dela. Horren harira, Epikuro eta Lukrezio epikureotarren heriotza antagonikoei errepara diezaiekegu: lehenengoak, bere bizitzaren azken egunean, min itzelak jasaten ari zela, gutun bat idatzi zion lagun bati, esanez hura zela bere bizitzako egun zoriontsuena; bigarrenak, berriz, bere buruaz beste egin omen zuen berrogeita lau urterekin, larritasun existentzialaren biktima⁸⁸.

⁸⁸ Ez dugu Lukrezioaren bizitzari buruzko datu askorik.

PLAZERA

Zerk eragiten du zorientasuna?

“Ona dena erraz lortzen da.”

Ona dena, plazera ematen duena, **erraz eskuratu** dezakegu. Beraz, Epikuroren ustez, **gozatzea lortuz gero, zorientsu** izan gaitezke.

Txerriak⁸⁹ al dira epikurotarrek? Gozamena besterik ez dute bilatzen?

Epikurotarren atseginarean teoriak **kritika asko** jaso ditu, ez baita oso argi egon zer ulertzen zuten haiek plazertzat. Hala, aurkakoek leporatzen zieten “txerriak” eta biziotsuak zirela, beste ezeren gainerik gozamena bilatzen zutelako. Egia esan, horretan **gaizki ulertu** da epikureismoa. Hori konpontzeko, komeni da plazeraren doktrina epikurotarra argitzea.



Askotan hedonismoa gaizki ulertua izan da.

Triumph of Bacchus, Ciro Ferri (XVII.mendekoa)

Epikuroren etika **hedonista** da, bakoitzaren jokabidearen bitartez plazera bilatzea eta mina ekiditea hobesten baitu. Antzinako Grezian, beste filosofia hedonista batzuk ere izan ziren. Fama handia zirenaikoa izan zen. Aristipok⁹⁰ (Sokratesen ikasle batek) sortu zuen eskola filosofiko hori. Haren arabera, plazera ondasun bat da beti, eta horregatik bilatu behar dugu une oro. Era berean, sufrimendu fisikoak eta arimakoak saihestu egin behar ditugu.

⁸⁹ Zinikoei “zakurrak” esaten zieten beren garaikideek, iraintzeko; epikurotarrei, berriz, “txerriak”. “Txerri” esaten zieten, animalia horrek munduko (eta berehalako) plazerak bilatzea irudikatzen duelako. Konparazio horrek adierazten du hedonismo epikurotarra gaizki ulertu izan dela. Halere, eta plazerak alde batera utzita, txerriak ondo irudika lezake materialismo epikurotarra, hankak motzak dituen eta burua zerurantz altxatzen ez duenez, idealismotik urrun lurrean iltzatuta dagoelako.

⁹⁰ Onfray filosofoaren ustez, plazera ulertzeko eran, Zireneko Aristipok eta Epikurok antzekotasun handiak dituzte. Besteak beste, ideia hauek defendatzen dituzte biek: neurrizko eta banakako plazera, orainaldira zuzendutako plazera (*kairos*) eta plazer kontzientea (ez basatieta). Onfrayen arabera, filosofiaren historia nagusietan Aristiporen eta Epikuroren artean egindako bereizketa ez da hain handia. Agian, desberdintasun nagusietako bat da zer ulertzen duten plazertzat. Izan ere, Epikurorentzat, plazer negatiboak (sufrimendurik eta kezkarik eza) du lehentasuna; Aristiporentzat, ordea, plazerak positiboa izan behar du (kezkarik ez izatea baino gehiago, zentzumenen atsegina).

Zirenaikoentzat, plazerak mugagabeak dira. Kritikek diotena gorabehera, hori ez da Epikuroren planteamendua.

Zer da plazera?

Epikurorentzat, plazera, lehenik eta behin, **ez sufritzean** datza. Sufrimendua saihestuta, gozamina lor daiteke, eta, ondorioz, baretasuna eta zorientasuna.

Bi plazer-mota bereizten ditu epikureismoak:

Plazer katastematikoak edo egonkorrak. Gorputzaren sufrimendurik eza (*aponia*) eta perturbaziorik gabeko arima (*ataraxia*) erraz lortu ditzakegu. Goserik eza, egarririk eza edo hotzik eza dira *aponiaren* adibideak.

Plazer zinetikoak edo mugimenduzkoak. Gainerako plazerak dira; adibidez, oturuntzaren, sexu-harremanen eta luxuaren plazerak.

Bi plazer-mota horietatik, egonkorrak garrantzitsuagoak dira mugimenduzkoak baino; beraz, haiek bilatu behar ditugu lehenago. Zirenaikoen ez dituzte plazer egonkorrak eta mugimenduzkoak bereizten, bai, aldiz, Epikurok bezala, **arimarenak eta gorputzarenak**. Epikurorentzat, gorputzarenak ez dira arimarenak bezain inportanteak.

Plazer guztiak onak al dira?

Zirenaikoen proposatzen duten moduan etengabe plazera bilatzen ibiliko bagina, asegaitzak izango ginateke, eta **plazeraren gurpil-zoro** batean biziko ginateke. Etengabe atseginaren bila dabilena ase gabe sentituko da, bekaizkeriaz eta gutiziaz beteta biziko da eta, azkenerako, **zorigaitzekoa** izango da. Hori dela eta, Epikurok ez ditu, inondik inora, plazer guztiak gomendatzen. Egia da plazerak berez onak direla eta sufrimenduak txarrak. Baina ez ditugu plazer eta sufrimenduak berez neurtu behar, eragiten dituzten ondorioengatik baizik. Esate baterako, noizbehinkako sexu-harreman bat izateak, momentuan gozatzen badugu ere, hamaika buruhauste ekar diezazkiguke gerora. Hori dela eta, plazeraren eta minen **kalkulu arrazional bat** egin behar dugu gozatzeari ekin aurretik, ondorioak onak ala txarrak izango diren aurreikusteko eta baloratzeko.

Gauzak horrela, Epikuroren arabera, eta zirenaikoen iritziaren aurka, plazerak mugatuak izan behar dute eta desirak kontrolagarriak dira.

Desiren sailkapen bat egiten du Epikurok:

Desira natural eta beharrezkoak. Bizirik irauteko ezinbestekoak dira; adibidez, edatea, jatea... Horiek asebate egin behar ditugu.

Desira natural eta hutsalak. Naturalak izanda ere, ez dira beharrezkoak. Desira naturalen eta beharrezkoen gehiegikeria izan daiteke, esate baterako, gehiegi edatea edo jatea, sexu-harreman gehiegi izatea... Neurrian gozatu behar dira.

Desira ez-natural eta hutsalak. Bizitzeko behar ez ditugunak dira. Guk sortu ditugu: ohorea, errekonozimendua, arrakasta, kasurako. Era horretakoei ez diegu jarraitu behar haien atzetik dabiltzan asko zorigaitzera daramatzatelako.



Sinposio (oturutza) grekoa

”Ezer ez da nahikoa, nahikoa gutxitzat duenarentzat.”

“Ez da urdaila asegaitza dena, jende xeheak dioen moduan, baizik eta urdailak aseezintasun infinitua duelako uste faltsua.”

Epikuro, Vatikanoko esaerak

Oro har, Epikuro urez eta ogiz elikatzen zen, eta pozik zegoen. Dena den, batzuetan, gazta jaten zuen, luxu moduan. Horrela, plazer bakan batzuekin, saihestu egiten dira plazer eta desira hutsalak. Beraz, oso gutxi da askatasuna, burujabetza (**autarkia**) eta arimaren lasaitasuna (**ataraxia**) lortzeko behar dena, eta, horiek lortuta, bizitza ona, hau da, zoriontasuna (**eudaimonia**) eskuratuko dugu.

Atsegin neurritsuen artean, adiskidetasunak emango dio gure bizitzari poz eta zorionik handiena. Adiskidetasunaren gaia garrantzitsua denez, aurrerago landuko dugu.

SUFRIMENDUA

Zoriontsu izan daiteke sufritzen duena?

“Beldurgarria erraz jasaten da.”

Plazeraren ifrentzua sufrimendua da. Beraz, plazerari buruz esandakoa minari edo sufrimenduari ere aplikatu dakiogun. Ahal den neurrian, mina ekidin egin behar da, eta sufrimendua, bere horretan baloratu ordez, ondorioen arabera baloratu.

Sufrimendu **psikikoak eta fisikoak** daude, eta fisikoak jasangarriagoak dira. Epikuroren esanetan, ez diogu min fisikoari beldurrik izan behar, handia bada laburra delako eta iraunkorra bada arina delako.

“Sufrimenduak ez du haragian etengabe irauten. Aitzitik, sufrimendu biziak oso denbora gutxi irauten du; eta haragiari dagokion atsegina gainditzea besterik egiten ez duen sufrimenduak ez du egun askoz irauten.”

Epikuro, Maxima nagusiak (4.a)

Dena den, **oinaze gehienak psikikoak** dira, eta fisikoek baino ondorio latzagoak izaten dituzte gugan, eta, kasu gehienetan, nor bere buruari ezartzen dizkio. Beraz, **guk geure buruari ezartzen** badizkiogu, guk geuk saihestu ditzakegu. Esate baterako, Epikuro bere elkarrizketa filosofikoen oroitzapen onez baliatu zen min fisikoa ez ezik heriotzari zion ikara ere gainditzeko. Izan ere, iraganeko oroitzapen onak gure sufrimendua arintzeko iturri izan daitezke.

Laburbilduz, **Tetrpharmakosen** esaten denez, gizakia askea eta zoriontsua izango da zentzugabeko beldurrak eta **sufrimenduak alde batera** utzita, eta **neurritzko plazerak** lortuta. Alegia, filosofiari esker, gizabanakoak irrika eta anbizio irrazionalak kontrolatuko ditu, beldurra eta estutasuna gainditzeko. **Baina prozesu hori indibiduala baino ez da?**

3.3.5. POLITIKA ETA ADISKIDETASUNA

Zoriontasuna indibiduala ala kolektiboa da?

Epikureismoan, eta oro har pentsamendu helenistikoan, filosofiak praktikoa izan behar du, bizitzan eragin zuzena izan behar duelako. Eragin horri etika esaten diogu indibiduala baldin bada eta bakoitzaren jarreran zentratzen bada. Ordea, gizatalde baten antolaketan eragina badu, politikoa deritzogu.

Bereizketa hori eginda, argitu behar da filosofia helenistikoek, epikureismoak barne, irtenbide praktikoa **etikoa** ematen dutela, eta **ez politikoa**. Horren arrazoia da, lehenago adierazi dugun moduan, atenastarrek ezin zutela politikan parte hartu. Hori dela eta, Epikurok Atenasen kanpoaldera, Lorategira, alde egin zuen, politikaz desengainaturik.

“Jakinduriak bizitza zoriontsua lortzeko ematen dizkigun gauza guztietatik, adiskidetasuna lortzea da, luzaz, ongirik handiena.”

Epikuro

Plazer iturri nagusienetariko bat **adiskidetasuna** (*philia*) da. Demokritok zioenez, “Ez du merezi bizitzea, lagun on bat ez baduzu”. Lagunekiko maitasuna ez da pasiozkoa (*eros*), ezta interesatua ere. Lagunen poztasunak edo sufrimenak haiekin batera bizi baditugu, adiskidantzak **poztasunak** edo **atsekabeak** eragin diezazkiguke.




Lorategiaren atea

Adiskideen arteko itun ez-idatziak **lasaitasuna** ematen digu, behar dugun guztietan laguntza izango dugula bermatzen baitigu. Baina horrek ez du esan nahi lagunak erabili egingo ditugunik, adiskideak laguntza lortzeko bide bat baino gehiago dira eta. Hau da, ez dugu behar adiskideen laguntza, baizik eta behar izanez gero lagunduko digutelako konfiantza. Halaber, jakintsua, lagunengandik jasotzeko baino gehiago, haiei emateko prest dago.

Gaiztatu daiteke, adiskidetasunaren bidez, epikureismoak proposatzen duen zoriontasunaren eredu bakarti eta bakartua (hau da, indibidualista)?

Hitz egin daiteke komunitate politikoaz, lagunaren komunitateaz harago?

Aristotelesentzat, gizakia izaki zibikoa edo politikoa da. Hiritar baten betebeharren artean, ezinbestekoa da politikan parte hartzea, komunitatearen ongizatea bilatzeko. Epikuroren ustez, ordea, jakitun izan nahi duenak **politikatik urruntzea** erabaki behar du, politikak gaitz handiak eragiten dituelako eta buruhausteen iturri delako. Filosofia, beraz, politikatik etikara hurbiltzen da, eta norbere sendabidea bilatzen du. Dena dela, Epikuroren filosofia ez da zinikoena bezain indibidualista, adiskidetasuna ere balioesten baitu. Horrela, epikurotarrentzat, gizakia **bakarrrik dago, baina ez bakartuta**.



Epikuroren Lorategia

<https://clipdrop.co/>

Hala, gizakiak, elkarlanaren bidez, onura lortzeko biltzen dira, baina gizabanakoa ez dago gizartearen zerbitzura. Horregatik, **justizia konbentzio erabilgarri** bat baino ez da, ahalik eta lasaitasun handiena bermatzeko; legeak ez daude eginda gizakiak ekintza bidegabeak egin ditzan, jasan ez ditzan baizik. Justizia, berez, ez da existitzen; zirkunstantzia eta akordioen arabera egokitzen da. Epikurotarren ideia horien antzekoak izan zituzten, mende asko geroago, Hobbesek, Rousseauk eta beste zenbait autorek.

3.4. AZKEN BI IDEIA

BA AL DU EPIKUREISMOAK DOGMATISMO KUTSURIK?

Filosofia: egia da, ala zalantzen iturri?

Epikureismoa filosofia-eskola bat izan zen, hamar mende inguru iraun zuena: Greziako garai helenistikotik Erromatar Inperioaren gainbehera gertatu zen arte. Urte horietan, Grezian eta Erroman Lorategi bat baino gehiago egon zen; esaterako, Napolesen. Hauek izan ziren epikurotar⁹¹ famatu batzuk: Filodemo, Virgilio, Horazio (*carpe diem* esaldiaren asmatzailea), Lukrezio, Kalpurnio Pison (Julio Zesarren aitagarre). Emakume epikurotarrak ere baziren; besteak beste, Mammacion, Hedeia, Eroztion, Nikidion, Leontion eta Temista. Nolanahi ere, beste eskoletan ez bezala, maisuaren irakaspenak ia

⁹¹ Epikurotar ezagunak edo, behintzat, epikureismoaren eragin zuzena izan dutenak.

ez ziren aldatu. Hori ez zen arrunta, normalean, ikasleen kritiken eraginez, doktrina ofiziala aldatuz joaten baitzen.

Epikureismoa ez zenez asko aldatu, mugimendu erlijioso gisa interpretatu izan da. Erlijioetan, sinesmen finkoak edo dogmak ezartzen dira, eta sinetsi egin behar dira. Alde horretatik, epikurotarrek dogmatikoak direla defendatu dute askok. Gauzak horrela, **filosofiaren helburua galderak egitea eta elkarrizketen bitartez gogoetatzea baldin bada, ez al da epikureismoa hortik urruntzen?**

Izan ere, Epikureismoaren hainbat elementu erlijioarekin parekatu daitezke. Adibidez, Erromatar Inperioan askok gurtzen zuten Epikuroren figura, oraindik ere; idazteko eran ere, erlijioeko liburu sakratuetakoak bezain egia biribilak agertzen dira, elkarrizketa eta zalantza baztertzen dutenak... Hala ere, epikureismoa urrundu egiten da erlijioetatik, transzendentetatik behintzat, ez duelako bere pentsamendua oinarritzen beste mundu frogagaitz batean. Aztertu ditugun ideiek agerian uzten dutenez, elementu erlijiosoak izan arren, proposamen arrazional ahaltzu baten aurrean gaude.

EPIKUREISMOA GAUR

Zergatik epikureismoa gaur?

Erdi Aroan, epikureismoa desagertu egin zen. Errenazimentuan, Antzinako klasikoak, epikureismoa barne, berreskuratu egin ziren. Gaur, epikureismoak munta handia du, zentzurik ikusten ez diogun mundu batean murgilduta gaude eta: ikasitako egiak, balioak eta sinesmenak eztabaidagarriak dira, politikariak ez dira gai (edo ez dute interesik) komunitatearen arazoak konpontzeko, komunikabideek markatzen dute zertaz hitz egin behar dugun, pertsonen arteko komunikatzeko gaitasuna eta giza harremanak murrizten ari dira, norbere bizitzan bitartekoak eta helmugak nahasten ditugu, noraezean gabiltza zoriontasunaren bila... **Ezgonkortasun horretan, nola ez bilatu, Epikurok dioen moduan, zoriontasuna lortzeko sendabide pertsonal bat?**

3.5. LABURPENA

Zertan datza pentsamendu hau?

Epikureismoa **Epikurok sortutako eskola filosofikoa** da. K.a. IV. mendean sortu zen, eta Erromatar Inperioaren gainbehera arte iraun zuen. **Autore** epikurotar asko izan ziren, baina **ezagunenak Epikuro eta Lukrezio** dira. Gutun batzuk izan ezik, galdu egin dira Epikuroren lan gehienak. Mende

batzuk geroago, Lukreziok, Erroman, sistematizatu egin zuen epikureismoa, olerki batean.

Epikuro **iraultzailea** izan zen **filosofia irakasteko moduan**, hiritik kanpo, *Lorategian*, irakasten zuelako, bere ikasleen artean esklaboak eta emakumeak zituelako, filosofia adin guztietara zabaldu zuelako eta filosofia, teoriara mugatu beharrean, etikaren zerbitzura jarri zuelako.

Haren ustez, filosofiak eragin zuzena izan behar du gizabanakoaren bizitzan, eta, ikuspuntu horretatik, **filosofiak sendabide** izan behar du. Platonen eta Aristotelesen planteamenduak sinplifikatu egin zituen, eta bere egin zuen Xenokratesen hiru arloko banaketa. Banaketa horren arabera, **ezagutzaren teoriak** (logika), **fisikak eta etikak** osatzen dute filosofia.

1.- Ezagutzaren teoria

Zer bide ditugu gizakiok, ezagutzeko?

Epikurok **kanona** deitzen dio **ezagutzaren teoriari**, eta ez logika. Kanona ezagutza-irizpideen teoria bat da, egia eta akatsa bereizteko beharrezko irizpideak ezartzen dituena. Epikurotarren arabera, gizakiok **hiru iturritatik** jasotzen dugu ezagutza:

Sentsazioak: munduko objektuek atomo berezi batzuk askatzen dituzte, eta partikula-jario horiek gure zentzumenekin talka egitean, **irudiak edo errepresentazioak** sortzen dituzte gudan.

Aurreulerkerak edo prolepsiak: edozein errepresentazio behin eta berriro errepikatuz gero sortzen dira, oroimenaren eraginez. Zerbait hainbat bider hautematen dugunean, irudi bat lortzen dugu. Irudi horretatik, **kontzeptu bat** sortzen da. Ideia platonikoak edo unibertsal aristotelikoak bezalako abstrakzioak dira. Prolepsiak, sentsazioak bezala (*aisthesis*), egiazkoak dira, eta ezagutzeko bide fidagarrienak dira biak.

Irrikak edo sentimenduak: garrantzi gutxiago izanda ere, grinak (*pathos*) edo sentimenduak (*pathe*) informazio-iturri izan daitezke gizakiontzat. Afekzio horiek **sufrimenduarekin eta plazerekin lotzen** ditugu. Gehienbat, etikan eta politikan dira funtsezkoak.

Laugarren iturri bat ere aipatzen du: **gogamenaren irudimenezko proiektzioak** (*phantastikai epibolai tes dianoiias*). Zentzumenek egiaztatu ez duten zerbaiten existentzia proiektatzean edo inferitzean datza.

Epikurorentzat, ezinbestekoa da **gezurra eta egia bereiztea**. Azken finean, jakintsuaren **arimaren lasaitasuna** (*ataraxia*) huts egin ez izanaren

segurtasunaren araberakoa da. Beraz, Sokratesek bezala, intelektualismo etikoa defendatzen du.

Gauza bat **nabaria** izatea da egiatzat hartzeko irizpidea. Ebidentzia hori enpirikoa da, gauza fisikoak baino ez direlako existitzen. Zentzumenak dira objektu material horiek ezagutzeko bide nagusia. Arrazoimena bigarren mailan geratzen da.

2.- Fisika

Nolakoa da mundua?

Fisikak **mundu materiala** nola eratuta dagoen eta zer printzipio dituen erakusten digu. Epikuroren fisika materialista da, fisikoak ez diren gauzak ez baitira existitzen. Horrez gain, **atomista** ere bada, haren ustez munduko objektu fisikoak atomoz osatuta daude eta. Atomistentzat, objektu guztiak zatigarriak dira. Hala ere, behin eta berriro zatikatu arren, momentu batean ezin izango ditugu gehiago zatikatu. Unitate zatiezin horiei atomo deitzen diegu. Epikuro, bere atomismo horretan, Leuzipo eta Demokrito filosofoen ideietan oinarritzen da.

Atomo horiek **behin betikoak, amaigabeak eta aldaezinak** dira. Elkarren artean modu askotan konbina daitezke objektu fisikoak sortzeko. Atomoak betidanik izan direnez, mundua ere bai. Hortik ez da ondorioztatzen objektuak iraunkorrak direnik edo izakiak hilezkoak, zeren atomoak elkartzen eta banatzen direnean gauzak agertu eta desagertu egiten dira.

Epikurok **hutsa** deritzo atomoen arteko espazioari. Objektu konposatuak sortu aurretik, atomoak hutsari esker mugi daitezke, eta, batik bat, erori. Dena den, erortzean, desbideratzeko aukera ere badute, bai espazioan eta bai denboran. Desbideratze horri *Klinamen* esaten dio. **Klinamen** deritzon zorizko mugimenduari esker, Epikurok unibertsoaren sorrera eta izaki bizidunen askatasuna azaldu dezake.

Hutsa izan ezik, dena dago atomoz osatuta, baita gure arima ere. Hala, **arima gorputza bezain hilkorra** da, haren atomoak sakabanatu ostean desagertu egiten direlako.

Fisika etikaren mende dago, eta etikan eragina duelako da garrantzitsua. Erljioarekin eta mitoekin loturiko hainbat azalpen irrazional eta naturaz gaindikok beldurra eragin eta larritasuna sortu diote gizakiari, eta hori deuseztatu eta baretzeko balio du fisikak; izan ere, fisikak ezartzen dituen azalpen naturalek **uxatu egiten dituzte beldur irrazional horiek**.

3.- Etika

Nolakoa izan behar du giza jokaerak? Zerk sortzen du larritasuna?

Etika edo filosofia morala gizabanakoak nola portatu behar duen arazoitzen duen diziplina da. Epikurotarrentzat, norbere jokaerak zorientasuna, bizimodu ona, lortu nahi du. Alde horretatik, filosofia **gizakiaren larritasunaren aurkako botika** da. Filosofiaren bidez, jakintsuak zirkunstantziek ukatu dizkioten soseguz eta lasaitasunaz hornitzen du arima eta, ondorioz, zorientasuna lortzen du. Arimaren baretasun hori (*ataraxia*) lor dezagun, Epikurok lau ataleko sendagaia (*Tetrapharmakos*) proposatzen du, zehazki:

Jainkoei beldurrik ez. Jainkoak zoriotsu bizi dira gure mundutik urrun, mundu artean, eta ez dira gutaz kezkatzen. Beraz, ez du zentzurik haien beldur izateak.

Heriotzari beldurrik ez. Hilkorrak gara, eta horretaz kontziente izan behar dugu. Heriotza ez da ezer, hura dagoenean ni ez nagoelako eta ni nagoenean hura ez delako. Agian, ez diogu beldurra heriotzari berari, hilzorian gaudeneko sufrimenduari baizik. Hala ere, sufrimendu hori jasagarria da.

Plazera erraz lor dezakegu. Plazerak onak dira berez, eta sufrimenduak txarrak. Baina ez ditugu plazer eta sufrimenduak bere horretan neurtu behar, eragiten dituzten ondorioengatik baizik. Sufrimendurik ez izatea da atseginik handiena.

Epikurok bi motatako plazerak bereizten ditu: **gorputzekoak eta arimakoak**. Arimakoak asebetetzea inportanteagoa da. **Plazer egonkorren** (*katastatematikoak*) **eta mugimenduzkoen** (*zinetikoak*) arteko bereizketa ere egiten du. Egonkorrak gorputzaren gabeziarik ezarekin, *aponiarekin*, eta perturbaziorik gabeko arimarekin, *ataraxiarekin*, lotzen ditu; mugimenduzkoak, gainerako plazerekin. Egonkorrek garrantzi handiagoa dute.

Etika epikurotarrak bereizi egiten ditu **desirak**, eta esaten du zein ase behar ditugun eta zein ez. Grina batzuk **naturalak eta beharrezkoa** dira: jatea, edatea... Ezinbestekoak dira bizitzeko. Beste batzuk **naturalak dira, baina ez beharrezkoak**: behar naturalak gehiegikeriaz gozatzean dautza. Esaterako, gehiegi jatea edo edatea; noizbehinka baino ez ditugu asebeste behar. Azkenak ez dira **naturalak, ezta beharrezkoak ere**. Adibidez, boterea, aberastasuna... Horiei ez diegu jarraitu behar, zorigaitzoko egingo gaituztelako.

Plazeren artean, nagusietako bat **adiskidetasuna** (*philia*) da. Lagunekiko maitasuna ez da pasiozkoa (*eros*), ezta interesatua ere. Lagunen pozak edo

sufrimenak haiekin batera bizi ditugunean, adiskidantzak poza edo atsekabea eragin diezaguke. Adiskideen laguntzak berak baino gehiago, haiengandik laguntza jaso dezakegulako konfiantzak baretzen gaitu. Gauzak horrela, dagokien balioa eman behar diegu lagunei, eta ez ditugu beste zerbaiteko lortzeko bitarteko gisa erabili behar.

Sufrimendua erraz jasan daiteke. Sufrimendua **plazeraren beste muturra** denez, sufrimenduari ere aplikatu dakioke plazerari buruz esandakoa. Ahal den neurrian, mina ekidin eta ondorioen arabera baloratu behar da.

Sufrimenduen artean, **psikikoak eta fisikoak** daude, eta fisikoak jasagarriagoak dira. Epikuroren esanetan, ez diogu min fisikoari beldurrik izan behar, min bizia bada laburra delako eta iraunkorra bada arina delako.

Dena den, oinaze **gehienak psikikoak** dira. Fisikoak baino zorrotzagoak dira, eta, kasu gehienetan, **nork bere buruari ezartzen** dizkio. Beraz, guk geure buruari jartzen badizkiogu, gu geuk saihestu ditzakegu.

Etikarekin amaitzeko, *Tetrapharmakosen* esaten den moduan, zentzugabeko beldurrak eta **sufrimenduak alde batera utzita eta neurritzko plazerak lortuta, gizakia askea eta zorientzua** izango da. Hau da, filosofiari esker, gizabanakoak irrika eta anbizio irrazionalak kontrolatuko ditu, eta beldurra eta estutasuna gaindituko ditu.

4.- Politika

Ba al dago lekurik politikarako lagun-komunitatetik haratago?

Argi dago epikureismoa **filosofia indibidualista** dela, ez delako politikaz kezkatzen eta sendabide kolektiboak baino gehiago indibidualak eskaintzen dituelako. Epikurok **politikatik urruntzea** aholkatzen dio jakintsuari; eta ez da harritzekoa, bizi izan zen garaia zein ezegonkorra izan zen ikusita.

4. ESTOIZISMOA

“Gizakia ez dute gertaerek aztoratzen, haiei buruz ematen diren iritziek baizik.”

Epikteto, *Eskuliburua*, 5



Apatia

<https://culturainquieta.com/>

4.1. AUTORE NAGUSIAK

Estoizismoa garai helenistikoko filosofia nagusietako bat izan zen, eta **Zenon Zitiokoa** izan zuen sortzaile.

Nondik datorkio izena?

Filosofia askok filosofo fundatzailearen izena hartzen zuten: platonismoak, aristotelismoak, epikureismoak... Estoizismoaren kasuan, berriz, ez da hala gertatzen. Zein da *estoizismo* hitzaren jatorria? Zenon, **agoraren arkupean irakasten** hasi zen eta, **stoa** hitzak grekoz arkupea esan nahi duenez, estoiko izena eman zieten arkuazpian biltzen zirenei.

Estoizismoa K.a. IV. mendearen eta K.o. V. mendearen bitartean garatu zen, eta tarte hori hiru arotan bereizi ohi da:

Stoa zaharra (K.a. IV-K.a. III): **Zenon**, Kleantes eta Krisipo izan ziren estoiko nagusiak. Haien lanak ez dira gorde.

Tarteko stoa (K.a. II-K.a. I): Rodaseko Panezio eta Poseidonio izan ziren estoiko nagusiak. Haien datu asko izan arren, ez zaizkigu obrak heldu.

Stoa berria (K.o. I. mendetik aurrera): **Epikteto**, **Seneka** eta **Marko Aurelio** izan ziren estoiko nagusiak. Estoizismo berrikoak ez ezik, estoizismo osoko autorerik ezagunenak dira. Egun, badugu haien lanak irakurtzeko aukera.

Estoizismoaren bilakaeran, izan ziren Zenon bera bezain garrantzitsuak edo are garrantzitsuagoak ere izan ziren beste autore batzuk, eta horietako batzuk aztertuko ditugu:

4.1.1. ZENON ZITIOKOA

“Zenonek dio badela natura osoa aldeztetik finkatutako zentzu batean mugitzen duen indar bat, eta probidentzia edo patua dei dakiokela.”

Aezio, I, 27, 5

Askotan, aukera onenak zorigaitzoko momentuetan sor daitezke. Estoizismoaren kasuan, behintzat (zorrotasun historikotik urrun eta literaturatik hurbil), hala kontatu zuten Zitioko Zenonen historia: K.a 334. urte ingurutik K.a. 260. urtera bizi izan zen merkatari bat izan omen zen.

Salerosketa-bidaia batean, Atenasera bidean zihoala, **itsasontzia hondoratu** zitzaion eta kargamentua galdu zuen. Ekonomikoki, porrot eginda zegoen eta orakuluari galdetu zion nola lor zezakeen ahalik eta bizimodurik onena. Orakuluak honela erantzun zion: “Jarri harremanetan hildakoekin”. Aholkuari jarraituz, liburu-denda batera joan zen. Han, Xenofonen liburu batekin egin zuen topo, eta liburu-saltzaileari galdetu zion ea non topa zezakeen liburuaren idazlea bezalako jendea. Kasualitatez (edo, estoikoen arabera, patuari esker), han inguruan, txiro itxura zuen gizon justu bat zebilen eta, hura seinalatuz, “Hor daukazu”, erantzun zion liburu-saltzaileak. Gizon hura Krates zen, eta, handik aurrera, Zenon haren jarraitzaile bihurtu zen.



Zenon (K.a 334 - 260)

The history of philosophy,
Thomas Stanley (1655)

Maisuarengandik emantzipatu zenean, beste jakintza batzuk ere eskuratu zituen: filosofia, medikuntza eta astronomia. **Agoraren arkupean** babestuta **klaseak ematen** hasi zen, eta, horregatik, “estoiko” esaten zieten hura entzutera hurbiltzen zirenei.

Filosofo askok bezala, argi erantzuteko artea landu zuen. Esate baterako, egun batean, etengabe hitz egiten ari zen ikasle bati hau esan zion: “Bi belarri eta aho bakar bat daukagu, hain zuzen ere gehiago entzun eta gutxiago hitz egin dezagun”.

Hiritarra izan ez arren, atenastarren **onarpena** erdietsi zuen. Hainbeste miretsi zuten, ezen hiriko giltzak eman baitzizkioten, urrezko koroa batez apaindu zioten burua eta, hil ondoren, haren itxura zuen brontzezko estatua bat eraiki zioten. Antigono errege mazedoniarrek ere asko balioesten zuen; Atenasera zihoan bakoitzean, Zenon entzutera hurbiltzen zen. Inoiz ez zuen ezkutatu Zition, Zipren, jaioa zela. Horregatik, haren omenez “Zenon filosofoa” zioen estela bat jartzea proposatu ziotenean, “Zitiokoa”⁹² ere jar zezatela eskatu zuen.

⁹² Ospe handiko filosofoen artean beste Zenon bat ere bazen, Zenon Eleakoa, Parmenidesen jarraitzailea.

*Politeia*⁹³ (estatuari dagokiona, errepublika) obra idatzi zuen, baina galdu egin dira lan hori eta hark idatzitako beste lan guztiak.

Haren heriotzari buruzko bertsio bat baino gehiago dugu. Horietako batek dio hirurogeita hamabi urterekin hil zela, inoiz gaixorik egon gabe, eskolatik irtetean erori egin zelako. Arkupeko eskaileretan estropezu egin omen zuen. Erortzen ari zela, denbora izan omen zuen esateko “Deitzen didazunez, banator”, eta hil egin zen.

Estoizismo zaharreko filosofoen artean, Krisipo⁹⁴ izan zen egilerik garrantzitsuena, baina Zenon izan zen estoizismoaren sortzailea. Haren ekarpenen artean, garrantzi handia du *patuaren* ideiak, estoizismoaren ikuskera etiko guztia mugatzen baitu. Izan ere, **gure patua ezarrita baldin badago, zenbateraino gara gure ekintzen jabe?**



Stoa

<https://clipdrop.co/>

STOA

Non ikusi, hura ikasi?

Irakasteko lekuak ez ziren ausaz aukeratzen eta, aukeratutako lekuari erreparatuta, pentsamendu filosofikoaren gaineko zenbait ondorio atera daitezke.

Epikurok hiritik kanpo sortutako lorategietan ematen zituen klaseak.

Zalantzarik gabe, helburua bizitza publikotik ihes egitea zuen. Aldiz, Zenonek, Polignotok margotutako agoraren (plaza publikoaren) arkupean ematen zituen klaseak, hau da, hirigunearen erdian. Filosofoak zuen kezka publikoaren adierazle zen. Kaleko filosofia izan zen harena, eta estamentu baxuko pertsonak eta emakumeak ere onartzen zituen.


⁹³ Beste autore batzuek ere *Politeia* izeneko obrak idatzi zituzten; besteak beste, Platonek, Antistenesek eta Diogenesek. Azkenak idatzitakoa da ezagunena (agian, beste biak ez zaizkigulako heldu).

⁹⁴ Krisiporen ekarpen nagusiak logikaren arlokoak dira.

4.1.2. SENEKA

“Ez dago inor zorigaiztokoagorik zorigaiztik jasan ez duena baino.”

Seneka, Probidentziari buruz



SENEKA (K.a. 4 - K.o. 65)

Senekaren erretratua,

Lucas Vorsterman (1638)

Luzio Anneo Seneka (K.a. 4.-K.o. 65.) **Kordoban** jaio zen.

Haren aita Erromatar Inperioko goifuntzionarioa eta erretorika-maisua izan zen. Senatuko kide ere izan zen, eta hizlari gisa nabarmendu zen han. Horrek Kaligula enperadorearen inbidia piztu zuen, eta **Seneka hiltzeko asmoa** izan zuen.

Senekak asma zuen, eta Kaligulak pentsatu zuen bizirik gehiago sufrituko zuela hilda baino. Azkenean, asma izateagatik salbatu zen, baina bizitza publikotik erretiratu behar izan zuen.

Hala ere, Senekak oraindik ere politikan eragina zuenez, enperadore berri Klaudiok Korsikara **erbestera**tu zuen.

Neronek, hamazazpi urte zituela, tronua eskuratu zuen eta **aholkulari** izendatu zuen Seneka. Dena den, enperadorearen agintaldiak aurrera egin ahala, Senekak gero eta eragin txikiagoa izan zuen harengan. Horrela, Neroni bizitza publikotik erretiratzen uzteko eskatu zion, eta hark onartu. Urte batzuk geroago, Senekak jakin zuen Neronek Seneka hiltzera kondenatzeko asmoa zeukala, bere aurkako konplot batean parte hartu omen zuelako. Hori jakinda, Senekak **bere buruaz beste egitea** erabaki zuen.

Tragediak ez ezik, *Kontsolamenduak* izeneko elkarrizketa moralak ere idatzi zituen. Hainbat gutun ere idatzi zizkion bere ikasle bati. Gutun horietan, hausnarketa eta bizi-aitorpenak bateratzen ditu. Lan horiek guztiak eskuragarri ditugu.

Zenbaitek hipokritatzat jo izan dute Seneka, bizitza xumea goraiatzeko izan zela arren elitekoen bizimodua izan zuelako.

Egia da Senekaren garaikide gehienek ez zituztela hark izandako aukerak izan, baina zoritxarrak ere jo zuen. Halere, haren ustez, **gertaerak ez dira ez onak eta ez txarrak** Zoritxar bat dela uste duguna “aukera” bat izan daiteke. Boxeolari batek bere trebetasuna aurkari gogorrekin bakarrik frogatzen duen bezalaxe, gure bertutea bizitzako “ezbeharrek” handitzen dute, eta ondu egiten gaituzte.

4.1.3. EPIKTETO

“Eta zentratu zure esku dauden gauzetan. Gainerako gauza guztiez zera esan dezakezu: Ez dit ezertan eragiten.”

Epikteto, Eskuliburua

Epikteto (K.o. 55.-K.o. 135) Hierapolisen jaio zen (egun, Turkia). Ume zela, Erromara joan zen, liberto⁹⁵ baten **esklabo**, eta, han, filosofia ikasi zuen, Musonio Rufo irakaslearekin. Epiktetoren jabeak, Epafroditok, hanka bat apurtu⁹⁶ zion hura zigortu nahian, eta, ondorioz, **herren** geratu zen.

Askatu zutenean, berrogei urte zituela, bere eskola sortu zuen, Nikopolisen. Egundoko ospea lortu zuen han, eta bertan hil zen.

Sokrates izan zuen erreferente nagusienetarikoa bat, eta, hark bezala, Epitetok ere ez zuen ezer idatzi. Halere, haren ikasleek irakaspenak bildu, eta bi testutan eman zituzten: *Bizi-gidaliburua* (edo *Enkhiridion*) eta *Diskurtsoak*.

Epiktetoren **etikak pertsonaren barrenari begiratzen dio**. Bakoitzak bere esku dagoen horri erreparatu behar dio, norberaren burua kontrolatzeko. Hortik harago kezkatzen denak frustrazioak bakarrik topatuko ditu. Beraz, ez dugu kezkatu beharrik gure esku ez dauden auziez.



EPIKTETO (K.o. 55 - 135)

Epiktetoren erretratu
(XVIII. mendekoa)

⁹⁵ Esklavo izandako pertsona librea.

⁹⁶ Anekdota honetan, aldarte barearen edo apatiaren eredu bihurtzen da Epikteto, hanka hautsi arren ez baitu emoziorik adierazten.

4.1.4. MARKO AURELIO

“Beldur batek bakarrik eragiten dit: nahi gabe gizakiaren naturaren, haren eginbeharraren eta guztion ongiaren aurka aritzeak.”

Marko Aurelio, *Gogoetak*

Marko Aurelio Erroman jaio zen (K.o. 121- K.o. 170). Haren familia Hadriano enperadorearen ingurukoa zen, eta enperadorea bera arduratu zen Marko Aureliok heziketa ona izateaz. Enperadoreak Marko Aurelio gazteari “zintzoa” deitzen zion. Enperadorearen familian izandako heriotzen eta adopzioen ondorioz, Marko Aurelio Erromako **enperadore** izendatu zuten, berrogei urte zituela. Karguan egon zen, hil arte; eta herriak estimatu egin zuen. Bi gertaera nagusik markatu zuten haren gobernua: alde batetik, tribu barbaroekin eta Partiar Inperioarekin izandako gatazkek eta, beste aldetik, ekialdeko erromatar probintzietako matxinadek.



MARKO AURELIO

(K.o. 121-170)

Marko Aurelioren bizitzako azken urteetan, germaniarren aurkako gerra-kanpainetan, haren seme Komodok lagundu zion. Urte horietan, egunerokoan bizi izan zuen **jardun politikoa jarduera filosofiko biziarekin uztartu** zuen. Horren emaitza *Gogoetak* lanean islatu zuen. Bere buruari idatzitako lan hori da pentsamendu estoikoaren gailurra, Epikteto eta Senekaren obrekin batera.

<https://clipdrop.co/>

Zenonek logika eta fisika landu zituen gehiago; Senekak, Epiktetok eta Marko Aureliok, ordea, etika landu zuten, batez ere. Marko Aureliok kanpora begiratuta antzematen dugun **handitasunari** erreparatu zion: nola gainditzen gaituen handitasun horrek eta nola gure bizitza hauts apur bat baino ez den, **unibertsoaren handitasunarekin alderatuta**. Hori da, hain zuzen, *Gogoetak* obraren abiapuntua.

4.2.-PENTSAMENDU ESTOIKOA

4.2.1. SARRERA

Zertan datza estoizismoa?

Estoizismoa deritzogu Zitioko Zenonek sortutako filosofiari. Epikureismoaren aldean, ez da **pentsamendu homogenea**; izan ere, estoikoek zenbait printzipio filosofikotan bat egin arren, autore bakoitzak bere erara garatzen ditu ideiak. Hala, epikureismoa maisuaren irakaspenekiko leial izan bazen ere, estoizismoak aldaketak izan zituen, urteen poderioz. Estoizismoaren polifonia horrek, jakina, zaildu egiten du doktrina sistematizatzeko lana.

Filosofia estoikoa **bi pentsamoldetan oinarritzen** da gutxienez: **sokratikoan eta zinikoan**. Estoikoek sokratismotik eta zinismotik hartzen dituzte teoriaren eta bizitzaren arteko lotura eta koherentzia. Horrekin batera, Sokratesengandik jasotzen dituzte bertutearen bilakaeraren eta arima zaintzearen ideiak; eta zinikoengandik, laztasunaren ideia eta naturarekin bat bizitzearena. Dena dela, zinikoen *anaideia*⁹⁷ alde batera uzten dutenez, *ziniko moldatuak* edo *ziniko etxekotuak* esaten diete aditu batzuek.

Zinismoan eta epikureismoan bezalaxe, estoizismoan ere, filosofiaren eta medikuntzaren arteko paralelismoa egiten da. Filosofia arimaren terapia da. Zerez osatu behar dugu gure arima? Filosofia estoikoa **grinen aurkako tratamendua** da; grina horiek baretuz, aldarte-baretasuna bilatzen du: *apatia*.

Errealitate desatsegin bati aurre egiteko, hiru irtenbide egon daitezke, besteak beste: (1) errealitate hori salatzea, (2) gure nahiak mugatzea edo (3) pentsatzea errealitate horrek zentzu gorena duela eta zentzu horrek (itxurazko) ezbeharrak ulertzen laguntzen digula. Lehenengo konponbidea hartzen dute zinikoek; bigarrena, epikurotarrek; eta hirugarrena, estoikoek. Aurrerago garatuko dugu ideia hori, etika estoikoa lantzean.

Lehenago esan bezala, Xenokratesek filosofiaren barruan, **logika, fisika eta etika** bereizi zituen, eta estoikoek ere onartzen dute banaketa hori. Estoikoek **baratze batekin alderatzen** dituzte filosofiaren zati horiek. Konparazio horretan, logika kanpoko harresia da: ortua mugatzeko eta defendatzeko balio du. Fisika zuhaitzek irudikatzen dute, haiek gabe ez litzatekeelako baratzerik egongo. Azkenik, etika fruituak dira, filosofiaren helburua etika

⁹⁷ Grekoz, *anaideia* "lotsagabekeria" edo "adeigabetasuna" da. Bertute hori ere defendatzen dute zinikoek, *parresia* eta *adoxiarekin* batera.

baita, ortuaren helburua fruituak lortzea den bezala. Jarraian aztertuko dugu atal bakoitza.

4.2.2. LOGIKA

Zer da logika?

Logika **logosaren zientzia** da. Grekoz, *logos* hitz polisemikoa da, eta 'pentsamendu', 'hitz', 'lege', 'diskurtso' gisa uler daiteke.

Ezagut daiteke errealitatea?

Fisikan aztertuko dugunez, **unibertsoa arrazionala** bada, gizakiok ere bai. Horregatik, gizakiok geure arrazoimena erabiliz gero, aukera izango dugu unibertsoaren arrazoimen orokorra ezagutzeko.

Nolakoa da ezagutza-prozesua?

Estoikoen logika epikurotarrena baino konplexuagoa da, besteak beste gramatika eta silogismoak lantzen baitituzte. Hala ere, bi eskola filosofiko horientzat berbera da logikaren zeregina: egia-irizpide bat ezartzea. Hori lortzeko, **honako ezagutza-bide hauek** ditugu:

Sentsazioak (*aistheseis*): **zentzumenen bidez** hautematen dute gure inguruko informazioa.

Irudiak edo irudikapen mentalak (*phantaisies*): sentsazioek kanpoko objektuen irudiak, **inpresioak**, sortzen dituzte gure ariman (psikean). Prozesu horretan, gure psikea arbel zuri (*tabula rasa*) batekin konpara daiteke, zeina hutsik baitago inpresioak jaso arte.

Atzematea (*katalepsis*): aurreko inpresio horiek onar ala baztertu ditzakegu; hau da, irudikapen mental horiek, argiak izanez gero, egiaztat hartuko ditugu, eta ez badira, ez. Ontzat hartzean, irudiak atzematen ditugu.

Ideiak edo kontzeptuak: *pertsona*, *autoa* eta halako kontzeptu orokorrak pertsonen edo autoen hainbat sentsazio metatzearen emaitza dira. Elkarketa horiei *prolepsi* esaten zieten epikurotarrek. Baina **ideia edo kontzeptu orokor** horiek, buruko abstrakzioak direnez, ez daude munduan; beraz, ez dira benetakoak, ezta gezurrezkoak ere. Munduan objektu indibidualak besterik ez dira existitzen.

Usteak edo iritziak: gizakiok, ideiak sortzeaz gain, interpretatu ere egiten ditugu. Etikan ikusiko dugunez, **balorazio bat** egiten dugunean, positiboki edo negatiboki interpretatzen ditugu garrantzirik gabeko hainbat kontu, eta **huts egiten** dugu **maiz**.

Laburbilduz, ezagutza-prozesuaren urratsak hauek dira: lehenik eta behin, zentzumenek munduko gauzen sentrazioak hautematen dituzte; ondoren, gure psikeak sentrazio horien irudiak sortzen ditu; geroago, irudikapen mental horiek onar ala baztertu ditzakegu; halaber, irudikapen multzoekin kontzeptu orokorrak sortzen ditugu; eta, azkenik, ideia horien gaineko balorazioak egiten ditugu.

Hortaz, **ezagutzeko orduan**, gizakiok **momentu pasiboa eta aktiboa** ditugu. Datuak hartzea pasiboa da; atzemateak, ideiak sortzeak eta iritziak eraikitzeak, ordea, subjektuaren inplikazio aktiboa behar dute.

Ezagutzaren teoriarekin bukatzeko, estoizismoak egindako **ekarpenen** artean, bi azpimarratu behar ditugu:

Batetik, logika, arrazoibide zuzenaren zientzia gisa; batez ere Aristotelesek azaldu zuen, silogismoen bidez⁹⁸. Estoikoek, berriz, silogismo hipotetiko⁹⁹ eta disjuntibo¹⁰⁰ bitartez, osatu egin zuten Aristotelesen logika. Horrekin batera, hainbat lokailutan oinarritutako proposizio-logika¹⁰¹ sortu zuten.

Bestetik, gramatika ere egin zuen ekarpena estoizismoak. Filosofia horretan adierazlearen, esanahiaren eta objektuaren beraren artean egindako bereizketa erabili zuen Saussure hizkuntzalariak, XX. mendearen hasieran, gramatika estrukturala azaltzeko.

4.2.3. FISIKA

Zer da mundua? Eta, beraz, zer da fisika?

Fisikak **munduan gertatzen** diren prozesuak azaltzen ditu, baita haien arteko harremanak ere. Beraz, fisikak mundua edo natura ikertzen du. Baina, estoikoentzat, munduaren kontzeptua egungoa baino zabalagoa¹⁰² zen; izan

⁹⁸ Adibidez, arrazoiketa deduktibo hau: P1: Gizakiok hilkorrak gara. P2: Sokrates gizakia da. Konklusioa: ???

⁹⁹ Esaterako, arrazoiketa deduktibo hau: p bada, orduan q; ez dago q, orduan ez p.

¹⁰⁰ Adibide gisa: edo p edo q; p, orduan ez q.

¹⁰¹ Estoikoek esakuneetan edo proposizioetan oinarritutako logika bat asmatu zuten. Logika horretarako “edo”, “eta” edo “baldin ba...” bezalako lokailuak sortu zituen Krisipo estoikoak.

¹⁰² Fisikaz haratago dauden auziak aztertzen dituzenez, “metafisika” deituko genioke egun.

ere, antropologia,¹⁰³ kosmologia¹⁰⁴ eta teologia¹⁰⁵, esaterako, fisikaren barruan kokatzen zituzten. Hori dela eta, orobat lan honetan, eta bereziki filosofia estoikoaz ari garela, **sinonimotzat** hartuko ditugu **mundua, natura, kosmosa eta unibertsoa**.

Zer ezaugarri ditu fisika estoikoak? Materialista al da? Bitalista?

Askok defendatu dute fisika estoikoa materialista dela. Hala ere, ez da guztiz horrela, estoikoentzat gorputzak bi printzipioz osatuta baitaude, materiaz eta adimenaz (jainkoa edo *logosa*). Beraz, adimen hori materiatik bereiz dagoenez, munduan ez daude soilik gauza materialak. Hala, estoizismoa **epikureismotik urruntzen da, materialismoan ez ezik, atomismoan ere**.

Fisika estoikoari materialista esan beharrian, **bitalista** esatea komeni da, *mundua, natura* edo *unibertsoa* hitzekin izendatutako errealitatea izaki bat dela ulertzen du eta; hau da, mundua bizitza duen osotasun organiko bat da. Hala, **kosmosa organismo handi bakar bat** da, non izakiak, gizakiak barne, haren zati ñimiño batzuk besterik ez baikara.

Gure buruak kosmosean duen leku eta garrantzi txikiaz jabetzeak birplanteamendu etiko bat dakar. Birmoldaketa horrek, **norberaren *nia* naturaren atal baten barruan kokatzen duenez**, bakoitzaren bizipenak eta eginbeharrak, indibidualki ordez, osotasunean birpentsatzeko beharra dakar. Etika atalean sakonduko dugu ideia horretan.



Circles in a circle, Wassily Kandinsky (1923)

Unibertsoa: ordenatuta dago, ala kaosa da?

Fisika estoikoa, bitalista izateaz gain, **arrazionala** ere bada, unibertsoak egitura arrazionala duela proposatzen duelako, hau da, dena arrazionalki

¹⁰³ Gizakiari buruzko ezagutza (Grekoz, *anthropos* hitzak gizaki eta *logos* hitzak ezagutza, hitza, pentsamendua... adierazten dute, hurrenez hurren).

¹⁰⁴ Unibertsoaren gaineko jakintza (Grekoz, *Kosmos* hitzak unibertsoa eta *logos* hitzak ezagutza, hitza, pentsamendua esan nahi dute, hurrenez hurren).

¹⁰⁵ Jainkoei buruzko ezagutza (Grekoz, *theos* hitzak 'jainko' eta *logos* hitzak 'ezagutza', 'hitza', eta 'pentsamendua' adierazten dute, hurrenez hurren).

antolatuta dagoela. Hala, kosmosean dauden izaki guztiak goi-unitate baten, naturaren, zatiak dira, eta naturaren adimen batek (*logosak*) antolatzen ditu arrazionalki.

Gizakiok ere **arrazionalak** gara, beste izakiak ez bezala (haiek beren senari jarraitzen diotelako). Gure izaera arrazionaletik, bi ideia ondoriozta ditzakegu. Lehengoa, epistemologikoa¹⁰⁶: gure arrazionaltasun partikularrarekin unibertsoaren arrazoimen orokorra ezagutzeko gaitasuna dugu. Bigarrena, etikoa: gizakiok arrazoimenaren arabera bizi behar dugu. Beste era batera esanda, **naturak markatzen duena** arrazionala da, eta horri **jarraitzeko beharra** daukagu.

Munduaren sorrera eta bilakaera bi printzipioren bitartez gertatzen da. Lehenengo printzipioa aktiboa da¹⁰⁷, eta arrazoimena edo *logosa* esaten diote. Bigarrena pasiboa da, eta materiarekin identifikatzen dute. Errealitate osoan sartzean, bi printzipio horiek munduan dauden askotariko izakiak sortzen eta aldatzen dituzte. Zehazki, *logosak* (printzipio aktiboak), nonahiko eta barneko indar gisa, materia kosmikoa (printzipio pasiboa) blaitzen eta bideratzen du. Alde horretatik, fisika estoikoa **panteista** da naturaren *logosa* edo jainkoa izaki guztietan dagoela uste duelako. Azken batean, gauza guztiak jainkoarekin identifikatzen dituen doktrinari esaten diogu panteismo.

Antolaketa arrazionala duen unibertso batean, ba al dago askatasunerako aukerarik?

"Patuak gidatu egiten du amore ematen duena; eta arrastaka eramaten du kontra jartzen zaiona."¹⁰⁸

Seneka, *Eskutitz moralak*, CVII

Esan dugunez, beste izakiak bezala, gizakiok unibertsoaren barruko atalak garenez, unibertsoaren bilakaera arrazionalaren prozesuan parte hartzen

¹⁰⁶ Epistemologia, logika eta ezagutzaren teoria sinonimotzat hartuko ditugu hemen.

¹⁰⁷ Printzipio aktibo honi jainkoa, adimena, arrazoimena, sua, *neuma*... ere esaten diote estoikoek. "Jainkoa" diogunean, ez gara ari jainko antropomorfiko batez, filosofiko batez baizik. Filosofia estoikoaren atal honetan, eragin zuzena du Heraklitoren suaren ideiak.

¹⁰⁸ Kleantesen esaldi bat da, Senekak grekotik latinera itzuli zuena: "Fata volententem ducunt, nolentem trahunt".

dugu. **Kausa-efektuzko bilakaera** hori **patua**¹⁰⁹ edo halabeharra da. Alde horretatik, naturak, gizakiok barne, helburu bat du, eta ezin da helburu horretatik desbideratu. Hau da, munduko **izaki guztiok** gaude **patuaren menpe**.



Ahinize Sanchez (2023)

Estoikoak adibide honetaz baliatzen dira ideia hori argitzeko: gurdi baten atzeko aldera lotuta dagoen txakur batek gurdi horri jarraitu nahi badio, jarraituko dio; eta jarraitu nahi ez badio, berdin-berdin segitu beharko dio, baina arrastaka. Ondorioz, etikaren atalean beste galdera bati erantzun beharko diogu: **etikoki jokatzeko askatasuna behar bada eta estoikoek patuak mugatzen gaituela defendatzen badute, ez dago askatasunik? Ezta etikarik ere?**

ANTROPOLOGIA

Zer da gizakia?

Estoizismoak gizakiaren garrantzia birplanteatzen du. Alde batetik, **garrantzi gutxiago** duela ematen du, ez baita izaki handiago baten, kosmosaren, zati bat besterik. Beste alde batetik, unibertso horren zatien artean, **pribilegiozko posizio bat** du gizakiak, unibertsoaren arrazionaltasunean gehien parte

¹⁰⁹ *Patua*, *beharra*, *halabeharra* eta *zoria* sinonimoak dira estoikoentzat. Greziarren Ananke, Tykhe, Heimarmene eta Moirak eta erromatarren Necessitas, Fatum, Parcae eta Fatae jainko-jainkosak patuaren pertsonifikazioak ziren. Izen horiek jainko-jainkosen izenak ziren, eta kontzeptu abstraktuak bihurtu ziren.

hartzen duen izakia baita. Izan ere, gainerako animaliek, senari jarraitzen diotenez, ez dute hainbeste parte hartzen naturaren adimenean.

Hala, **gizakion arima** munduaren arimaren partikula bat da, eta munduaren arrazionaltasun horretan parte hartzen du. Arrazoimena da arimaren gida, eta grinak gutxietsi egiten dira. Arima materiala da, eta, kosmosa ez bezala, **hilkorra**¹¹⁰ da. Beraz, desagertzean, bat egiten du unibertsoarekin.

4.2.4. ETIKA

“Beldur batek baino ez dit eragiten: naturaren aurka egiteak.”

Marko Aurelio, *Gogoetak*

Zer egin behar dugu?

Arimaren terapia da etika, eta helburua du gizakia zoriontasunera, **bizimodu on batera**,¹¹¹ eramatea. Etikak, gainera, norbanakoaren portaera finkatzen du. Etika estoikoan, halaber, giza jokabideak eta unibertsoak bateragarriak izan behar dute; alegia, giza arrazoimenak **bat egin behar du kosmosaren adimenak ezartzen duenarekin**.

PATUA

“Natura, emadazu nahi duzuna eta berreskuratu nigandik nahi duzuna.”

Epikteto

Zer da patua?

Estoikoen arabera, lege hautsezinek zuzentzen eta gidatzen dute natura. Naturaren adimenak nahita eta arrazoiz antolatu zituen lege horiek,

¹¹⁰ Arimaren hilkortasunaren harira, autoreen arabera, iritzi desberdinak egon dira. Batzuen aburuz, gorputzarekin batera hiltzen da; beste batzuen ustez, aldiz, gorputza baino gehiago bizi daiteke. Azken horien arabera, jakintsuaren arima, gehiago iraun arren, azkenean, kosmosera bueltatuko da, besteon arima bezala.

¹¹¹ Grekoz *eudaimonia* “bizitza on”, “bizimodu on”, “ongizate” edo “zoriontasun” gisa itzuli ohi da.

guztientzako onuragarriak baitira. Horrela, izaki guztiok behartuta gaude lege horiek onartzera.

Paturik bada, badago askatasuna eta etika salbatzerik?

Dena den, fisikan aipatu dugunez, izaki guztiok daukagu patu bat kosmosean, gizakiok barne. **Hortaz, gizakion etorkizuna alde zurretik idatzita badago, nola salbatu askatasuna? Zer leku uzten dio beharrak etikari? Hau da, egiten duguna egiten dugula ere emaitza berbera bada, zergatik pentsatu nola portatu behar dugun? Gizaki pasibo bihurtu ote gaitu patuak?**

Jakintsua izateko asmoa duenak —hots, filosofoak— kosmosean zer kokapen duen jabetu, eta halabeharra onartu behar du. Patuaren legeak bere gainetik egon arren, askatasunez eta, ondorioz, etikoki jokatu dezake. Horrela, **askatasuna zer den berrezarri** behar du: estoizismoan, askatasuna da norberaren bizitza ezartzea unibertsoaren adimenaren arabera (arrazionalki).

Horren haritik, Epiktetok *amor fati* edo “patuari maitasuna” delako ideia defendatzen du; gizakiok, patua onartu ez ezik, maitatu ere egin behar dugu. Hau da, gure bizitza indibiduala baino handiagoa den logika batetik, unibertsoaren logikatik, ulertu, onetsi eta atsegin izan¹¹² behar ditugu gertaerak. Marko Aurelioren esanetan, unibertso handi baten barruan gizakiok oso txikiak garela konturatzeak berekin dakar naturaren arrazoimenari jarraitzea, eta ez norbanakoen interesei.



Amor fati

<https://www.bing.com/>

ONA, TXARRA ETA AXOLAGABEA

Zer da ona eta zer da txarra? Eta axolagabea?

Naturan, zentzu hertsian, ez dago ez ona eta ez txarra denik. Horiek giza kontuak dira. Logikan ikusi dugunez, gure adimenak ideiak sortzen ditu zentzumenetatik lortutako sentazioekin. Ideia horien gaineko usteak

¹¹² Senekaren ustez, bizitzako nahigabeak gure burua gogortzeko aukerak dira.

sortzen ditugu. Iritzi horiek eraikitzean, errealitatea deskribatzeaz batera, epaitu egiten dugu, eta ekintza horretan erratu egin gaitezke. Adibidez, huts egiten dugu axolarik ez duen kontu bat ona balitz bezala baloratzean. Hori dela eta, kontuan hartuz gure usteak bakarrik kontrola ditzakegula, ezinbestekoa da ona, txarra eta axolagabea bereiztea, ganorazko iritziak sortzeko.

Izan ere, **ona edo txarra** ekintza **moralarekin** dago **lotuta**. Unibertsoaren arazoimenarekin bat egiten duen giza ekintza da ona. Hori bertutearekin dago lotuta. Aldiz, txarra deritzogu kosmosaren arrazoiak jarraitzetik aldentzen den ekintzari. Aurreko hori eta bizioa erlazionatuta daude. Moraletik at dauden kontu guztiak, alegia, bertutearekin edo bizioarekin zerikusia ez duten auziak **axolagabeak** dira, eta ez dugu horietan denbora galdu behar. Dena den, Epiktetoren proposamena aztertuko dugu, hobeto ulertzeko zertaz kezkatu behar dugun eta zertaz ez.

Zer auzitan dugu eragina? Bizitzaren zer kontu aldatu ditzakegu?

Ezbairik gabe, gure egunerokoan gauza asko gertatzen zaizkigu, batzuk gure gustukoak eta beste batzuk ez. Horien aurrean, betiere kosmosaren adimenaren ikuspuntua kontuan hartuz, Epiktetok sailkapen bat egitea gomendatzen digu, zer aldatu dezakegun eta zer ez argitzeko. **Gure esku dauden kontuen** artean, gure baitan sortzen ditugunak daude: esate baterako, desirak, apetak, suminak... **Gure esku ez dauden gaien** artean, gorputza, aberastasuna, familia, ospea... ditugu. Hala, gure esku dauden kontuetan baino ez dugu jardun behar. Gure esku ez dauden haietan aritu nahi izanez gero, aldaketarik lortu ezean, frustratuko egingo baikara.

BERTUTEA

Nola lortu bikaintasuna?

Epikurotarren ustez, plazera da gizakion lehenengo bulkada; estoikoentzat, aldiz, norberaren burua zaintzea. Estoikoen arabera, gure bigarren bulkada da naturarekin bat egiten duten kontuak onartzea eta horren aurka daudenak ukatzea. Gizakiarekin bat datorren bigarren bulkada horri jarraitzea da **bertutea**, eta hori arrazionalki jokatuz lortzen da. Gizabanakoaren arrazionaltasuna unibertsoaren arrazionaltasunarekin uztartzea da kontua. Beraz, bertute askori¹¹³ buruz hitz egiten bada ere, bertute bakar bat dago:

¹¹³ Begiratu “Pentsamendua kokatuz” atala. Bakoitzaren bertutea (grekoz, *arete*) “bikaintasuna” bezala uler daiteke. Greziako filosofiek bertute asko bereizi zituzten. Aristotelesek, kasurako, “etikoak” eta “dianoetikoak” (irakaskuntzakoak) desberdindu

norberaren betebeharrari ekitea; hots, **kosmoserako komenigarria dena egitea** (*kathekon*¹¹⁴).

Bertutea garatzeko, **esfortzua** (*ponos*) ezinbestekoa da. Hala, gauzak ahalik eta ondoen egiteko bertutea izateak eguneroko lana eta arreta eskatzen du. Horretarako, estoiko erromatarrek zenbait aholku ematen dizkigute: egunean egindako ekintzez gogoeta egitea (etorkizunean txarto eginda dagoena zuzentzeko eta ondo eginda dagoena berregiteko), orainaldian zentratzea (malenkonia eta utopismoa¹¹⁵ ekiditeko), gauzak goitik ikustea (zer txikiak garen konturatzeko), eta auziak biluztu eta esentziara eramatea (haiei garrantzia kentzeko)¹¹⁶.

ARRAZOIMENA ETA APATIA

Irrikek eta emozioek zaildu egiten dute bertutea aurkitzea?

Aurretik esandakoaren arabera, **giza arrazoimenak** markatzen du bertuterako bidea. Animaliek sena dute; gizakiok, ordea, arrazoimena dugu naturara moldatzeko. **Paradoxa bat** dago hor: adimenik gabeko izakiek hobeto betetzen dute unibertso arrazional honetan duten zeregina, gizakiok (arrazoimena dugunok) baino.

Beraz, berezia da gizakion kasua, beste izakiek ez bezala, geure adimenari jarraitu behar diogu eta. Ikuspuntu horretatik, estoizismoak **joera du arrazionala ez dena baztertzeko**; izan ere, haien ustez, gizakion endekatzeak kontu irrazionaletan eta grinetan du jatorria.

Grinak gehiegizko desirak edo bulkadak dira. Emozioek aldatu egin dezakete filosofoak lortu nahi duen jarrera hausnarkor eta arrazionala. Beraz, jarduera aske eta zoriontsuari dagokion animo barea lortzeko asmoz, estoikoek

zituen. Grezian, bizia izan zen bertutearen gaineko gogoeta: bat ala asko daude?, jatorrizkoa(k) d(ir)a, ala ikas daite(z)ke?, edonork ikas dezake/ditzake? eta abar. Estoizismoak aipatzen dituen bertuteak (jakinduria, justizia, ausardia...) zuhertasunaren barruan (grekoz, *phronesis*) kokatzen dituzte autore askok. Dena den, bertute bakarria kosmosari komeni zaiona egitea da.

¹¹⁴ Zenonek aipatutako *kathekon* hitz grekoa *officium* eta *convenientia* itzuli zuten latinera Zizeronek eta Senekak, hurrenez hurren. Egun, eginbehar gisa uler dezakegu.

¹¹⁵ Iraganaldiari eta etorkizunari begira, gaurkotasunetik urruntzen gaituzten beste gaitz batzuk ere egon daitezke, melankoliaz, idealismoaz edo utopismoaz gain.

¹¹⁶ Esaterako, jan berri dugun arrain goxoa arrain baten gorpua baino ez da: “gorpu bati eusten dion arima txiki bat besterik ez zara”, esan diezaiokegu. Zergatik teknika hori? Kontu serioez ari garela pentsatzeak sufrimendu gehiago sor diezaguke eta.

emozioak kontrolatzen dituzte, eta **grinak baztertzen**. Horri **apatia**¹¹⁷ edo aldarte-leuntasuna deritzote.

Askotan **txarto ulertu** izan da estoikoen apatia, sentimendurik ezarekin identifikatu delako. Edonola ere, apatia ez da sentimendurik ez izatea, baretasunari traba egin diezaioketen emozioak kontrolatzea baizik. Estoikoak besteoi laguntzeko prest daude, baina ez besteengandik sufritzeko. Hala, bizitzako nahigabeak ez dira aldarte gogortzeko aukera baino.

HERIOTZA

Nola egin aurre heriotzari?

“Bizitza naturak emandako dohain bat da. Heriotzarekin, naturari bueltatzen diogu mailegu hori.”

Epikteto

“Heriotza bat bera ere ez da goiztiarra: edozeini gerta dakiokena, guri ere bai.”

Seneka

Unibertso osoaren logikatik ulertuta, **erlatibizatu** egin behar dugu **norbanakoen heriotza**. Alde horretatik, Epiktetok unibertsoak emandako opari gisa ulertzen du bizitza. Presente izan behar dugu bizitza kosmosaren **mailegua** dela, eta egun batean bueltatu egin beharko diogula. Beraz, irauten duen bitartean, dohain horretaz gozatu behar dugu. Heriotza ez



<https://www.bing.com/>

¹¹⁷ Grekoz *apatheia*, besteak beste, “beldurgaiztasun”, “lasaitasun” edo “axolagabetasun” itzuli izan da. Baina IRALEko Kontsulta Zerbitzuaren aholkuei jarraituz, “aldarte-leuntasuna” eta “aldarte-baretasuna” kontzeptuak hitz grekoaren esanahitik hurbilago daudela uste dugu. Batzuetan, nahasi egiten ditugu *apatia* eta *ataraxia* kontzeptuak. Biek lasaitasuna eta askatasuna ekartzen diote jakintsuari. Ondorioz, biek ere bizimodu ona (*eudaimonia*) lortzeko aukera ematen diote jakitunari. Hala ere, antzekoak izan arren, badituzte desberdintasun batzuk. Esate baterako, estoikoek *apatia* erabiltzen zuten; eta epikurotarrek edo eszeptikoek, *ataraxia*. Esanahia ere ez da berbera, gorputzaren minaren eta egoera zailen aurreko sendotasun espiritualarekin identifikatzen dugu *ataraxia* edo arima-baretasuna. Apatiak, aldiz, pasioak eta emozioak kontrolatzeari egiten dio erreferentzia.

da ona, ezta txarra ere; axolagabea da. Gainera, gure esku ez dauden gauzetako bat da.

Senekaren ustez, ez dakigu noiz eta nola, baina badakigu hil egingo garela. Edonoiz hil gaitezkeelako ideiak, ondoeza baino gehiago, denbora balioestea ekarri beharko liguke. **Gure denbora mugatua¹¹⁸ da**, eta, horren zati bat joan delako kontzientzia hartuta, Senekaren gomendioa da gure azken eguna izango balitz bezala bizitzea: bizitzaz disfrutatu bai, baina ezinbestekoa da heriotza konkistatzen ikastea. Horregatik, ez du zentzurik heriotzari aurre egiteko orduan beldur izateak, iragate-momentu hori berehala pasatzen baita.

“Ke ilunak gela itogarri bihurtuz gero, atea ireki eta alde.”

Markos Zapiain¹¹⁹

Suizidioari dagokionez, **onargarria** izan daiteke estoikoentzat, **nahigabeak handiegiak badira**. Garai hartako adibide bat jarritz, gobernu-mota jasangaitza balitz, onetsi egin liteke erbesteratzea edo suizidioa.

ADISKIDETASUNA

Beharrezkoak al dira lagunak? Nolakoak izan behar dute?

Estoikoen kasuan, **hotza eta gogorra da adiskidetasuna ulertzeko era**. Epikurotarren ustearen kontra, adiskidantza ez da plazeren iturri. Adiskidetasuna abantaila bat edo ondasun erlatibo bat izan daiteke, baina inolaz ere ez bertute bat. Lagunen arteko harremana ez da afektibotasunean oinarritzen, arrazoimenean baizik. **Lagun arrazional eta bertutetsuekin elkartzea** gomendatzen digute estoikoek, lagun pasionalek eta sentimentalek bizimodu on bat lortzeko behar dugun apatiatik urruntzen gaituzte eta. Horrela, jakintsua izan nahi duenak, filosofoak, adiskideak behar izan ez arren, ez ditu baztertzen, benetako adiskidetasuna jakintsuen artean

¹¹⁸ Jeneral batek Erromako kaleetatik garaile desfilatzen zihoala, haren atzetik, morroi batek “*Memento mori*” (Gogoratu hil egingo zarela) esaten zion, jeneralak bere giza kondizioa (ez jainkotiarra) ahantz ez zezan. Segur aski, erabilitako esaldia *Respice post te! Hominem te esse memento!* (Begiratu atzera! Gogoratu gizon bat zarela!) izan zen.

¹¹⁹ Markos Zapiainen esaldia, <https://eibar.org/blogak/zapiain/estoikoak> webgunetik hartua. Bibliografian haren beste iturri batzuk ere aipatu ditut. Markos Zapiain euskal filosofoak argitalpen asko ditu. Besteak beste, EIMA katalogoan, lan honek eta beste bostek osatzen duten proiektuaren barruan, Txillardegiri buruzkoa daukagu.

bakarrik gertatzen baita, azken finean munduko adimena onartzeko prest haiek bakarrik daudelako.

4.2.5. POLITIKA

Nola antolatu gizartea?

“Erlauntzari onik egiten ez badio, kalte egingo dio erleari.¹²⁰”

Marko Aurelio, Gogoetak

Estoizismoak, gizabanakoengan zentratu arren, alde soziala eta politikoa ere berreskuratzen¹²¹ ditu, neurri batean. Gizakia **animalia soziala**¹²² da. Gizakiaren alde soziala ez da eraikuntza historiko edo kultural baten ondorioa, baizik eta giza naturaren ondorioa.

Unibertsoaren adimenak sortzen duen lege unibertsalari jarraitu behar diogu, hura baita lege legitimo bakarra. Hala, lurralde bakoitzean dauden antolaketa politikoez harago joanda, **kosmopolitismoa** defendatzen dute estoikoek. Kosmosaren legeei jarraitu behar diegunez, munduko hiritarrak gara gizakiok.

Hori defendatu arren, orobat, autore estoikoak ez ziren batere **iraultzaileak**¹²³ izan, zeren eta kexa barik onartu baitzituzten gobernuen legeak. Are gehiago, kosmopolitismoa inperialismoaren legitimazio¹²⁴ gisa uler daiteke. Horregatik eta demokrazia ez defendatzeagatik, estoizismoaren



Kosmosen hiritarra

<https://www.bing.com>

¹²⁰ Aristotelesentzat, gizakiekin batera, inurriak eta erleak animalia politikoak edo zibikoak (*zoon politikon*) dira, taldeetan antolatzeko gaitasuna dutelako.

¹²¹ Zenonen eta Krisiporen ondoren, estoizismoan, politika berreskuratzen hasi ziren, autore horiek oraindik nahiko indibidualistak zirelako.

¹²² Grekoz, *Koinonikos physei* “gizartekoia naturaz” itzul daiteke.

¹²³ Salbuespena Gaio Blosio Kumasekoa, Katon edo Klodio Trasea Peto izan ziren.

¹²⁴ Kosmopolitismoaren “munduko hiritartasunaren” ideia erabilgarria izan zen erromatar inperioaren espantsionismoa justifikatzeko.

ideologia, askotan, kontserbadoreak babesteko modu bat bezala ulertu izan da.

4.3. AZKEN BI IDEIA

GELDITASUNERA GARAMATZA ESTOIZISMOAK?

Badirudi estoizismoak defendatzen dituen ideia batzuek —hala nola *gure esku ez dauden kontuak*, *apatia*, *patua* eta *amor fati* kontzeptuek— injustiziak onartzera eramaten gaituztela. Horrela ulertuta, ideologia erabilgarria izan daiteke *statu quo*¹²⁵ legitimatzeko. Hala ere, pentsamendu iraultzailea ere bazen: gizaki guztiok (baita esklaboak ere), kosmosaren adimenean parte hartzen dugun heinean, berdinak gara (gehienetan, teorikoki bakarrik defendatzen zuten hori).

Estoizismoa, geldi geratzea baino gehiago, gure arreta eragina duten gauzetara mugatzea eta ahalguztidunak ez garela konturatzea besterik ez da. Hala, estoizismoak hamaika buruhauste aurreztu diezazkiguke.

ESTOIZISMOA GAUR

Zergatik estoizismoa gaur?

Estoizismoak eragin zuzena izan du autore moderno askorengan; esaterako, Montaigne, Descartes, Spinoza eta Nietzscherengan, bereziki betebeharrak, autonomia morala, jakintsuak naturarekin harremanak izateko era eta *amor fati* kontzeptuengatik.

Gaur egun, ordea, krisi ekologikoak, gerrak, desberdintasun sozialak eta halako arazoak ditugun mundu batean, zaila egiten zaigu, estoikoek bezala, kosmosaren arrazionaltasunean sinestea. Dena den, egun, zenbaitetan gaizki ulertu badira ere, proposamen estoiko asko arimaren terapia gisa berreskuratu dira —esate baterako, bertutea, *apatia* eta *patua*—, ez filosofiatik bakarrik, baita beste esparru batzuetatik ere.

¹²⁵ Latinezko *statu quo* esapideak une jakin batean gauzak nola dauden adierazten du. “Egoera honetan” esan nahi duen *in statu quo ante* esamoldetik hartuta dago.

4.4. LABURPENA

Nondik dator estoizismoaren izena?

“Estoizismo” hitzak fundatzailearekin, Zenonekin, dauka zerikusia: Zenon agoraren **arkupean irakasten** hasi zenez eta grekoz arkupeari **stoa** deritzenez, arkupean biltzen zirenei esaten zieten “estoiko”.

Estoizismoa **Zitioko Zenonek sortu zuen**, aro helenistikoan. Hala ere, pentsalari estoiko **ezagunenak** Erromatar Inperioaren arokoak izan ziren: **Seneka, Epikteto eta Marko Aurelio**, hain zuzen ere.

Zertan datza estoizismoa?

Platonek eta Aristotelesek ezarri zituzten filosofia teorikoetatik urrun eta helenismoaren beste filosofiekin batera, estoizismoak defendatzen du **filosofiak bereziki praktikoa** (hots, **etikoa**) izan behar duela eta **eudaimonia** topatzen lagundu behar digula.

Zinismoan eta epikureismoan bezalaxe, estoizismoan ere, filosofiaren eta medikuntzaren arteko paralelismoa ezartzen da. **Filosofia arimaren terapia** bat da. Zertaz osatu behar dugu gure arima? Filosofia estoikoa grinen aurkako tratamendua da eta, grina horiek baretzean, aldarte-lasaitasuna (**apatia**) bilatuko du.

Estoikoen arabera, **etika** filosofiaren atal nagusia bazen ere, **logika eta fisika** ere garatu zuten. Filosofiaren atal horiek **baratze batekin alderatzen** dituzte estoikoek. Konparazio horretan, ortua mugatu eta defentsarako balio duen kanpoko harresia da logika. Zuhaitzek fisika irudikatzen dute, haiek gabe baratzerik egongo ez litzatekeelako. Azkenik, fruituak etikaren ikurra dira; ortuaren helburua fruituak lortzea den moduan, filosofiarena etika da. Ondoren, atal bakoitza aztertuko dugu.

1. Logika:

Logosaren zientzia da. Grekoz, *logos* hitz polisemikoa da, eta pentsamendu, hitz, lege edo diskurtso gisa uler daiteke. Logika ezagutzearen eta arrazoitzearen diziplina da.

Fisikan aztertu dugunez, unibertsoa arrazionala bada, gizakiok ere bai. Horregatik, gizakiok propio dugun arrazoimena erabiliz gero, aukera izango dugu unibertsoaren arrazoimen orokorra ezagutzeko.

Nolako da ezagutza-prozesua?

Logika estoikoa epikurotarra baino **konplexuagoa** da, besteak beste, gramatika eta proposizio-logika lantzen dituelako. Hala ere, bi eskola filosofiko horientzat, logikaren zeregina bera da: egia-irizpide bat ezartzea.

Estoikoen kasuan, **ezagutza-prozesuaren urratsak** hauek dira: lehenik eta behin, zentzumenek munduko gauzen sentrazioak hautematen dituzte; ondoren, gure psikeak sentrazio horien irudiak sortzen ditu; geroago, irudikapen mental horiek onar ala baztertu ditzakegu; halaber, irudikapen-multzoekin kontzeptu orokorrak sortzen ditugu; eta, azkenik, ideia horien gaineko balorazioak egiten ditugu.

Hortaz, ezagutzeko orduan, **gizakiok momentu pasiboa eta aktiboa** ditugu. Datuak hartzea pasiboa da; atzemateak, ideiak sortzeak eta iritziak eraikitzeak, ordea, subjektuaren inplikazio aktiboa behar dute.

2. Fisika:

Fisikak **munduan gertatzen** diren prozesuak, baita haien arteko harremanak ere, azaltzen ditu. Beraz, fisikak mundua edo natura ikertzen du. Bereziiki filosofia estoikoan, **mundua, natura, kosmosa eta unibertsoa sinonimotzat** hartuko ditugu. Hala, estoikoentzat *fisika* zenari gaur metafisika deitzen diogu.

Zer ezaugarri ditu fisika estoikoak?

Fisika estoikoa **ez da materialista**: estoikoentzat, gorputzak bi elementuz osatuta daude: materiaz eta adimenaz (jainkoa edo *logos*). Beraz, adimena materiatik bereiz dagoenez, munduan ez daude gauza materialak soilik.

Fisika estoikoari, materialista esan beharrean, **bitalista** esatea komeni da, *mundua, natura* edo *unibertsoa* izendatutako errealitatea izaki bat dela ulertzen duelako, hau da, kosmosa organismo handi bakar bat da, non izakiak, gizakiak barne, zati ñimiño batzuk besterik ez baikara.

Bitalista izateaz gain, fisika estoikoa **arrazionala** da, unibertsoak egitura arrazionala duela proposatzen duelako, hau da, dena arrazionalki antolatuta

dagoela. Horrela, kosmosean dauden izaki guztiak goi-unitate baten (natura baten) zatiak dira, eta naturaren adimenak (*logosak*) arrazionalki antolatzen ditu.

Antolaketa arrazionala duen unibertso batean, ba al dago askatasuna izateko aukerarik?

Gizakiok, beste izakiak bezala, unibertsoaren barruko atalak garenez, unibertsoaren bilakaera arrazionalaren prozesuan parte hartzen dugu. Kausa-efektuzko bilakaera hori **patua edo halabeharra** da. Alde horretatik, naturak, gizakiok barne, helburu bat du, eta ezin da helburu horretatik desbideratu. Hau da, munduko izaki guztiok gaude **patuaren menpe**. Estoikoak adibide honetaz baliatzen dira ideia hori argitzeko: **gurdi baten atzeko aldera lotuta dagoen txakur batek** gurdi horri jarraitu nahi badio, jarraituko dio; eta jarraitu nahi ez badio, berdin-berdin segitu beharko dio, baina arrastaka. Ondorioz, etikaren atalean beste galdera bati erantzun beharko diogu: **etikoki jokatzeko askatasuna behar bada eta, estoikoen ustez, patuak mugatzen bagaitu, ez dago askatasunik? Ezta etikarik ere?**

Zer da gizakia?

Estoizismoak gizakiaren garrantzia birplanteatzen du. Alde batetik, garrantzi gutxiago duela ematen du, ez baita izaki handiago baten, kosmosaren, zati bat besterik. Baina beste alde batetik, unibertso horren zatien artean, **pribilegiozko posizio bat du** gizakiak, **unibertsoaren arrazionaltasunean gehien parte hartzen duen izakia** baita. Izan ere, gainerako animaliek, senei jarraitzen dietenez, ez dute naturaren adimenean hainbeste parte hartzen.

Hala, **gizakion arima** munduaren arimaren partikula bat da, eta munduaren arrazionaltasun horretan parte hartzen du. Arrazoimena da arimaren gida, eta irrikak gutxietsi egiten dira. Arima materiala da, eta, kosmosa ez bezala, hilkorra da.

3. **Etika**: arimaren terapia da, eta gizakia zorionera, bizimodu on batera, eramatea du helburua. Etika estoikoan, zehazki, giza jokabideak bateratsu jokatu behar du unibertsoarekin, alegia, kosmosaren adimenak ezartzen duenarekin bat egin behar du giza arrazoimena.

Patua existitzen bada, badago askatasuna eta etika salbatzerik?

Fisikan aipatu dugunez, izaki guztiok daukagu patu bat kosmosean, gizakiok barne. **Hortaz, gizakion etorkizuna aldeztu aurretik idatzita badago, nola salbatu askatasuna? Zer leku uzten dio beharrak etikari? Hau da, egiten**

duguna egiten dugula ere emaitza berbera bada, zergatik pentsatu nola portatu behar dugun? Gizaki pasibo bihurtu ote gaitu patuak?

Filosofoak kosmosean zer kokapen duen jabetu, eta halabeharra onartu behar du. Patuaren legeak bere gaintetik egon arren, askatasunez eta, ondorioz, etikoki jokatu dezake. Hala, estoizismoan, askatasuna da norberaren bizitzan unibertsoaren adimenaren arabera (arrazionalki) jokatzeari.

Horren haritik, Epiktetok *amor fati* edo patua maitatzearen ideia defendatzen du; gizakiok, patua onartu ez ezik, maitatu ere egin behar dugu. Hau da, gure bizitza indibiduala baino handiagoa den logika batetik, unibertsoaren logikatik, ulertu, onetsi eta atsegin izan.

Zer da ona eta zer da txarra? Eta axolagabea?

Naturan, zentzu hertsian, ez dago ez **ona** eta ez **txarra denik**. Horiek gizakion kontuak dira. Logikan ikusi dugunez, gure adimenak ideiak sortzen ditu zentzumenetatik lortutako sentrazioekin. Ideia horien gaineko usteak sortzen ditugu. Iritzi horiek eraikitzean, errealitatea deskribatzeaz batera, epaitu egiten dugu, eta ekintza horretan erratu egin gaitezke. Adibidez, huts egiten dugu axolarik ez duen kontu bat **ona** balitz bezala baloratzean. Hori dela eta, kontuan hartuz gure usteak bakarrik kontrola ditzakegula, ezinbestekoa da **ona**, **txarra** eta **axolagabea** bereiztea ganorazko iritziak sortzeko.

Izan ere, **ona** edo **txarra** ekintza **moralarekin** dago **lotuta**. Unibertsoaren arrazoimenarekin bat egiten duen giza ekintza da **ona**. Hori bertutearekin lotuta dago. Aldiz, **txarra** deritzogu kosmosaren arrazoiak jarraitzetik aldentzen den ekintzari. Aurreko hori eta bizioa erlazionatuta daude. Moraletik at dauden kontu guztiak, alegia, bertutearekin edo bizioarekin zerikusirik ez duten auziak **axolagabeak** dira, eta ez dugu horietan denborarik galdu behar.

Zer auzitan dugu eragina? Bizitzaren zer kontu aldatu ditzakegu?

Ezbairik gabe, gure egunerokoan gauza asko gertatzen zaizkigu, batzuk gure gustukoak eta beste batzuk ez. Horien aurrean, betiere kosmosaren adimenaren ikuspuntua kontuan hartuz, Epiktetok sailkapen bat egitea gomendatzen digu, zer aldatu dezakegun eta zer ez argitzeko. **Gure esku dauden kontuen** artean, gure baitan sortzen ditugunak daude: esate baterako, desirak, apetak, suminak... **Gure esku ez dauden gaien** artean,

gorputza, aberastasuna, familia, ospea... ditugu. Horregatik, **gure esku dauden kontuetan baino ez dugu jardun behar**. Gure esku ez dauden haietan aritu nahi izanez gero, aldaketarik lortu ezean, frustratu egingo baikara.

Nola lortu bertutea?

Naturarekin bat egiten duten kontuak onartzean eta haien aurka daudenak ukatzean datza **bertutea**. Bertutea arrazionalki jokatuz lortzen da. Gizabanakoaren arrazionaltasuna unibertsoaren arrazionaltasunarekin uztartzea da kontua. Beraz, bertute askori buruz hitz egiten bada ere, bertute bakar bat dago: norberaren betebeharrari ekitea, hots, **kosmoserako komenigarria dena egitea** (*kathekon, officium* edo *convenientia*). Bertutea garatzeko, ezinbestekoa da **esfortzua** (*ponos*). Beraz, gauzak ahalik eta ondoen egiteko bertutea izateak eguneroko lana eta arreta eskatzen du.

Irriek eta emozioek zaildu egiten dute bertutea aurkitzea?

Aurretik esandakoaren arabera, giza arrazoimenak markatzen du bertuterako bidea. Animaliek sena dute; **gizakiok**, ordea, **arrazoimena dugu** naturara moldatzeko. Berezia da gizakion kasua, beste izakiek ez bezala, geure adimenari jarraitu behar diogu eta. Ikuspuntu horretatik, estoizismoak joera du arrazionala ez dena baztertzeke; izan ere, haien ustez, gizakion endekatzeak kontu irrazionaletan eta grinetan du jatorria.

Grinak gehiegizko desirak edo bulkadak dira. Emozioek aldatu egin dezakete filosofoak lortu nahi duen jarrera hausnarkor eta arrazionala. Beraz, jarduera aske eta zoriontsuari dagokion animo barea lortzeko asmoz, estoikoek **emozioak kontrolatzen** dituzte, eta **grinak baztertzen**. Horri *apatia*¹²⁶ edo *aldarte-leuntasuna* deritzote.

Askotan **txarto ulertu izan da** estoikoen *apatia*, sentimendurik ezarekin identifikatu delako. Edonola ere, *apatia* ez da sentimendurik ez izatea, baretasunari traba egin diezaioketen emozioak kontrolatzea baizik. Hala, bizitzako nahigabeak aldartea gogortzeko aukera baino ez dira.

¹²⁶ Grekoz *apatheia*, besteak beste, “beldurgaiztasuna”, “lasaitasun” edo “axolagabetasun” itzuli izan da. Baina IRALEko Kontsulta Zerbitzuaren aholkuei jarraituz, “aldarte-leuntasuna” eta “aldarte-baretasuna” kontzeptuak hitz grekoaren esanahitik hurbilago daudela uste dugu.

Nola aurre egin heriotzari?

Unibertso osoaren logikatik ulertuta, **erlatibizatu** egin behar dugu **norbanakoen heriotza**. Alde horretatik, Epiktetok unibertsoak emandako opari gisa ulertzen du bizitza. Heriotza ez da ona, ezta txarra ere; **axolagabea** da. Gainera, **gure esku ez dauden gauzetako bat da**. Senekaren ustez, ez dakigu noiz eta nola, baina badakigu hil egingo garela. Edonoiz hil gaitzkeelako ideiak, ondoeza sortzea baino gehiago, **denbora balioestea** ekarri beharko liguke.

4. Politika:

Nola antolatu gizartea?

Estoizismoak, gizabanakoengan zentratu arren, alde soziala eta politikoa ere berreskuratzen¹²⁷ ditu, neurri batean. Gizakia **animalia soziala** da. Gizakiaren alde soziala ez da eraikuntza historiko edo kultural baten ondorioa, baizik eta giza naturaren ondorioa.

Unibertsoaren adimenak sortzen duen lege unibertsalari jarraitu behar diogu, hura baita lege legitimo bakarra. Hala, lurralde bakoitzean dauden antolaketa politikoez harago joanda, **kosmopolitismoa** defendatzen dute estoikoek. Kosmosaren legeei jarraitu behar diegunez, munduko hiritarrak gara gizakiok.

¹²⁷ Zenonen eta Krisiporen ondoren, politika berreskuratzen hasi ziren estoizistak: autore horiek oraindik nahiko indibidualistak ziren.

5. JARDUERAK

Atal honetako jardueren bitartez, sakon aztertuko ditugu aurretik azaldutako pentsamendu filosofikoak. Horrela, ideia horiek gaurkotzeko parada izango dute ikasleek.

Zeregin horiek bi multzotan sailka daitezke: alde batetik, jarduera ludikoak (**Sofiaisia** atala); eta beste alde batetik, jarduera konbentzionalak, hau da, testu-iruzkinak eta disertazioak (**Filokizun** atala). Horrez gain, partaidekopuruaren arabera izena hartuko dute jarduerak: banakakoa, **Barnebidea**; taldekakoa, **Elkargunea**; eta gela osokoa, **Gelapolisa**.



<https://www.bing.com/>

5.1. SOFIAISIA

5.1.1. ZINIKOAK

1. Soinu-banda:

A) **Gelapolisa** (gela osoa): entzun Uxue Alberdiren eta Maialen Lujanbioren [bertsoak](#) eta Meraki (EP) taldearen [Eskola zinikoa](#) abestia.

<https://bertsoa.eus/bertsoak/16018-uxue-alberdi-eta-maialen-lujanbio-askatasunaren-aldeko-aldarria>

eta

<https://www.youtube.com/watch?v=7RNT9SHRdXg>

B) Zuen iritziz, zer da zinikoa izatea (edo zinismoa)?

- Bilatu *ziniko(ak)* edo *cínico(s)* izenburua duen beste abesti bat, entzun eta aztertu letra. Horren ostean, erantzun galdera honi: zer da *zinikoa* izatea abesti horretan?
- Bilatu hiztegian *ziniko* hitzaren esanahia eta konparatu abestian duen esanahiarekin.

C) **Barnebidea** (banaka): irakurri testua eta erantzun galderei (arrazoitu erantzuna).

Hizkuntza askotan (euskaraz eta gaztelaniaz, adibidez), hitz bakarra dago zinismoa adierazteko. Alemanez, ordea, bi hitz bereizten dira: *Kynismus* eta *Zynismus*. *Kynismus* terminoak erreferentzia egiten dio Antzinako Grezian gizartearen sofistikazioak bertan behera uztearen alde egiten zuen joera filosofikoari. *Zynismus* hitzak, aldiz, hainbat esanahi izan ditzake: (1) bere garaiko ideiek mesfidantza eragiten dieten pertsona-multzoaren jokabidea edo (2) sortzen dituzten egoera negatiboak muzin egiten dieten pertsonen jokabidea edo (3) faltsuak edo inkoherenteak diren pertsonen jokabidea izendatzeko erabil daiteke. Beraz, *Kynismus* agorako txakur jakintsuei egiten die erreferentzia, eta *Zynismus* hortzik gabeko kanixeei. Ez ditugu bi hitz, ez euskaraz, ezta gaztelaniaz ere, bereizketa hori egiteko.

- Zer bereizketa azaltzen du testuak?
- *Kynismus* eta *Zynismus* hitzen arteko bereizketak auzia ulertzen laguntzen du edo zaildu egiten du?

D) **Elkargunea**: entzun abestia eta irakurri letra. Gero, erantzun galderei.

<https://www.youtube.com/watch?v=3rcJTo8L9EQ>

Plastikozko janariak

Kajoi baten barruan
oilaskoak hazitzen
konpuesto kimikoak
ipurditikan sartzen
zakurren haragia
hanburgesak egiteko
Coca-Cola botila
hautsez egindako edaria

Zenbat diruzale!!
Zenbat putaseme!!

Baserriko bizitza
bai dela garbia
landatuko gauzak
sartzen bait dira gorputzera
Sandwich alu bat baino
hobe azababarruna
zoazte pikutara
plastikozko janariekin

BAP!!, *Zuria beltzez*

- Zein da gaia? Zergatik lot dezakegu zinismoarekin?
- Zer esan nahi dute BAP siglek? Bilatu taldearen gaineko informazioa.
- Konparatu zinismoa eta punk¹²⁸ mugimendua.
- Erkatu zinismoa gaurko beste adierazpen (edo mugimendu) batekin.

¹²⁸ BAP!! taldeak punka ez diren beste estilo batzuk ere nahasi zituen, baina onartuko diguzue erkaketa hori egitea.

2. Ziniko bihurtu nahi duzu? (Barnebidea)

Egin praktika zinikoen dekalogo bat. Hona hemen adibide bat:

- I. Joan zaborra botatzera, pijama jantzita.
- II. Igaro Gabonak opariak erosi (eta jaso) barik.
- III. Oporretan bazoaz, eraman zorro batean (edo gehien jota, 25 kg-ko bizkar-zorro batean) sar daitekeena bakarrik.
- IV. Negua bada, bainatu errekan edo itsasoan.
- V. Deserosoa bada ere, esan egia.
- VI. Hautsi zure inguruko ohituraren bat.
- VII. Ezagutu beste kultura bat.
- VIII. Pasatu astebete mugikor barik (edo hobeto esanda, pantaila barik).
- IX. Anforarik ez baduzu, egin lo lurrean.
- X. Ez bete zure burujabetza bultzatzen ez duen dekalogorik.

3. Nor da askea? (Elkargunea)

Irakurri dilema, hausnartu eta erantzun galderari.

Dilema. Bi gizon izan daitezke askeak: bata, denek obeditzen duten pertsona da, eta bestea, inor obeditzen ez duena.

Alexandro Handia: *“Denek obeditzen dutena baino ez da askea”*.

Diogenes: *“Inor obeditzen ez duena baino ez da askea”*.

- Bi horietatik, nor da askea, **denek men egiten dioten pertsona edo inori men egiten ez diona?** Hau da, nork du askatasuna (edo askatasun gehien)? Arrazoitu erantzuna.



Diogenesen eta Alexandroren estatuak
Korintoko golkoaren aurrean

4. Ziniko garaikideak

A) **Barnebidea:** irakurri Mikel Santos 'Belatz' en *Gerezi garaia* eleberri grafikoa (posible ez bada, [Lucio dokumentala](#) ikusi).

<https://www.youtube.com/watch?v=7VNY982YVD8>).

B) **Elkargunea:** egin ondoren proposatzen zaizkizun jarduerak.

- Zerrendatu zertan diren antzeko Lucio Urtubia eta antzinako zinikoak.
- Bilatu gaur egungo beste ziniko bat. Egin horri buruzko aurkezpen bat, eta azaldu gelakideei.

5.1.2. EPIKUROTARRAK

1. Soinu-banda (Gelapolisa)

Entzun *Sustrajah* bandaren [Plazer galduen irla](#) abestia edo *Cojón prieto y los guahalotes* taldearen [El hedonista](#).

https://www.youtube.com/watch?v=fZj_ry5xCRo edo

<https://www.youtube.com/watch?v=IISDozjP6Eg>

2. Desirak eta plazerak

A) Desirak¹²⁹:

Barnebidea: ikusi [desiraren gaineko bideoa](#) *Geruzak*¹³⁰ web-orrian.

<https://geruzak.eus/desira/#uael-video-gallery-75b7309>

Elkargunea: bideo hori abiapuntu izanda, taldeka, pentsatu eta idatzi desiraren gaineko galdera bat.

¹²⁹ Desiraren gaineko jarduerak *Haur-filosofiaren metodoan* oinarrituta daude.

¹³⁰ *Geruzak* proiektuak feminismoa, soziolinguistika, kultura eta pentsamendua lantzen ditu gazteen kezketatik abiatuta. Web-orri horretan, desirarekin batera, hainbat auzi garatzen dituzte; besteak beste, askatasuna, sormena, boterea, taldetasuna, ondo bizitzea.

Gelapolisa: talde guztien galderak arbelean idatzi ostean, egin mahai-inguru bat. Solasaldi horretan, aztertu epikurotarren ikuspuntua ere, honako galdera hauen bitartez:

- Zer pentsatzen du Epikurok desiren gainean? Nola sailkatzen ditu desirak? Nola definituko lituzke Epikurok bideoan agertutako plazer normatiboak? Zein asebate behar ditugu?

B) Plazera (Gelapolis)

Eztabaida horretan, desirez ez ezik, plazerei buruz ere hitz egin dezakezue:

- Plazerei buruz hitz egiteko galderak: sinonimoak ote dira *plazer* eta *desio* Zer plazer-mota dago? Zein dira garrantzitsuenak? Plazer guztiak baztertu/onartu behar ditugu? Ekar dezake plazerak desplazera? Eta desplazerak plazera?

3. Zoriontasuna (Elkargunea)

“Diruak zoriontasuna ematen duela esan beharrean, zoriontasunak dirua emango digula litzateke gaurko leloa.”

Iñigo Martinez Peña¹³¹, *Mandamentu hipermodernoak* (2021)

Ikusi Steve Cuttsen [Zoriontasuna](#) film laburra, eta erantzun galdera hauei¹³² (arrazoitu erantzuna):

<https://www.youtube.com/watch?v=e9dZOelULDk>

- Zer gauzatan bilatzen du protagonistak zoriontasuna? Zer pentsatuko luke Epikurok horri buruz?
- Zer da zuentzat zoriontasuna? Parekatu daiteke poztasunarekin? Zuen ustez, zeren bitartez lor daiteke zoriona?
- Gauza bera al dira *eudaimonia* eta zoriontasuna? Zerk eramango gaitu bizipozera, plazerak ala bertuteak? Lan honetan azaltzen diren

¹³¹ Iñigo Martinez Peña filosofia-irakaslea ez ezik, filosofoa ere bada. Besteak beste, *Mandamentu hipermodernoak* (2021) eta *Pantailen garaipena* (2023) lanak idatzi ditu.

¹³² Galdetegi honetako galdera batzuk baino ez proposatu. Galdera-sorta irekia da, hortaz, osa dezakezue bururatzen zaizkizuen galderekin.

proposamen filosofikoen artean, zein da *eudaimonia* lortzeko aproposena? Eta zein da gutxien konbentzitzen zaituztena?

- Arrazoi al du Sokratesek intelektualismo etikoa defendatzean? Hau da, zoriontsuagoa da jakintsua buruzuria baino?
- Izan gaitezke zoriontsu gaitz egiten?
- Izan gaitezke zoriontsu gure albokoek sufritzen badute? Oro har, posible da zoriontasuna zorigaiztoko mundu batean?
- Auzi pribatua ala publikoa al da zoriontasuna? Eta zer da, banakakoa ala kolektiboa?
- Eskuratu dezaket zoriontasuna ondasun materialen bitartez? Ba al dira aberatsak txiroak baino zoriontsuagoak?
- Bizitza honetan posible ez bada, lor daiteke zoriontasuna beste bizitza batean? Ba al dago beste bizitzarik?
- Justizia bilatzean geroko zoriontasuna bilatzen dugunez, ez al dugu galtzen momentuko zoriontasuna lortzeko aukera?
- Zer galdera izan duzue faltan galdetegi honetan?

4. Hiritarrak ote?

A) **Barnebidea:** irakurri testua eta erantzun galderei (arrazoitu erantzuna).

“Ezin da esan Euskal Herrian etorkinak ondo tratatzen ditugula (beste tokietan ez bezala, antza denez), eta, aldi berean, ghettoak nola sortzen diren hotz-hotz ikusi, hau da, auzo edo eskola baztertuetan etorkinak nola metatzen ari diren hotz-hotz ikusi. Etorkinak (etorkin gehienak) gure enpatia zirkuluetatik urruntzen ditugu benetan, kanpoan uzten ditugu, esanak esan”.

Agustin Arrieta Urtizberrea, *Bidez bide hausnarrean*.



- Zein da testuaren tesia?
- Integrazioari dagokionez, zer egoera dago EHko hezkuntza-zentroetan? (Bilatu beste informazio-iturri batzuetan ere).
- Auzi honetan, zein izango litzateke Epikuroren ikuspuntua? Eta Zenonena? Eta Diogenesena? Eta zein da zurea?

B) **Gelapolisa:** guztion arteko solasa.

5.1.3. ESTOIKOAK

1. Soinu-banda (Gelapolisa)

Bukaera taldearen edo *Skakeitan* taldearen “Apatia” abestia entzun.

<https://www.youtube.com/watch?v=elITWCHbgM4>

edo

<https://www.youtube.com/watch?v=-rXpykftxe4>

2. Patua

A) Comotú, Marina eta Gines

Gelapolisa: ikusi [bideoa](#) eta [argazkiak](#), eta erantzun galderari.

https://www.youtube.com/watch?v=6iOzCSk0C_4



- Nor da Comotú? Nor da Marina? Nor da Gines?
- Hiruretatik, nor da aske eta nor ez?

Elkargunea: irakurri bi testu hauek eta erantzun galderari modu arrazoituan.

Oinez, bizikletaz, zaldiz... Donejakue bidea egiteko era asko daude. Artziniegako 66 urteko Ginés Lopez erretiratuak oso bidaide bereziekin egingo du, Marina astoarekin eta Comotú txakurrarekin, hain zuzen. Igandean, abiatuko dira hirurak Santiagorantz, eta datozen hilabeteetan, 1.700 kilometroko ibilbideari (joan-etorria) egingo dio aurre hirukoteak.

Gurdi baten atzeko aldean lotuta dagoen txakur batek gurdiari jarraitu nahi badio, jarraituko dio; baina, jarraitu nahi ez badio ere, berdin-berdin jarraitu beharko du aurrera, arrastaka. Ondorioz, etika atalean, beste galdera bati erantzun beharko diogu.

Esaera estoikoa

- Beraz, estoikoen arabera, hiruretatik, nor da aske eta nor ez?
- Patua egonez gero, badugu askatasunik? Eta erantzukizun moralik? Patua baldin badago, badu zentzurik injustiziaren aurka borrokatzeak?
- Patuaren mende baldin bagaude, begiratu beharko genuke bi aldeetara zeharbidea gurutzatu baino lehen?
- Zuen iritziz, askeak gara?

B) Zenon eta haren esklaboa (Barnebidea)

Behin, Zenon estoikoa konturatu zen bere esklaboa lapurretan ari zitzaiola. Alkandora erantzi zion esklaboari eta makilarekin astintzen hasi zitzaion. Joka zebilkion bitartean, errukitzeko eskatu zion esklaboak Zenoni:

-Ez da nire errua, nagusi, lapurtu egin behar nuen: horixe zen nire patua.

-Bai, badakit-erantzun zion Zenonek-, baina idatzita zegoen makilakadaka zigortu behar zintudala ere.

- Nork du arrazoa: Zenonek, esklaboak, biok ala inork ez? Argudiatu erantzuna.

C) Irakurri testua eta erantzun galderari; eman arrazoiak.

“Batetik, denok pentsatzen dugu gure bizitzan zehar behin baino gehiagotan gure erabakiak askatasunez hartzen ditugula... Bestetik, gizakiak joera dauka gertakarien arteko harreman kausaletan arakatzeko... Eguneroko bizitzan kausalitatera jotzen dugu, gertakari arruntak azaltzeko eta ulertzeko... Beraz, bi ikuspegi aipatu ditut, askatasunaren ikuspegia eta ikuspegi kausala”.

Agustin Arrieta Urtizberea, *Gogoeta-bide irekiak*

Bateragarriak dira testuan aipatutako bi ikusmoldeak? Zergatik?

3. Apatia

Gelapolisa:

“Emozioek eragin zuzena dute gure arretan eta gure errendimenduan.”.

Daniel Goleman

Egin gogoeta esaldi horretaz. Ondoren, ikusi [bideoa](#).

<https://www.youtube.com/shorts/xVYj4gy-IEs>

Elkargunea: zer da adimen emozionala? Bilatu informazioa eta egin aurkezpen bat. Ondoren, erantzun honako galdera hauei:

- Konparatu Daniel Golemanen adimen emozionala estoikoen apatiarekin.
- Zuen ustez, apatikoak izan beharko genuke? Zergatik?

4. Animalia estoikoa (Barnebidea)

Zinikoak txakur gisa irudikatu izan ziren eta epikurotarrak, berriz, txerri gisa. Estoizismoa nolakoa den jakinda, **zer animaliarekin irudikatuko zenituzke estoikoak?** Marraztu zure animalia estoikoa.

5. Stoic Week (Barnebidea)

Bizi astebete estoiko baten antzera. Ikusi [bideoa](#) .

<https://www.youtube.com/watch?v=mrG9dJucUdk>

5.1.4. ZEHARKAKOAK

1. Heriotza ¹³³

A) Barnebidea:

Hil egin zara. Zer esango luke zure lagun batek edo senide batek zure hiletan? Egin 100 hitzeko idazki bat. Horretarako, kontuan izan:

- Testuingurua (hileta bat)
- Hitz egiten duenaren ikuspuntua (nola ikusten zaituen, zer sentimendu izango lituzkeen).
- Nola hil zaren.



Norbaitek Heriotza irabaz dezake?

The Seventh Seal, Ingmar Bergman (1957)

B) Elkargunea¹³⁴. Erantzun galdera hauei eta arrazoitu erantzunak:

“Heriotzaz pentsatzen ez dudan guztietan, iruzur egiten dudala iruditzen zait, neure baitan dagoen norbait engainatzen dudala.”

E.M. Cioran

- Zergatik sentitzen da Cioran iruzurgile heriotzari erreparatzen ez dion bakoitzean?
- Zuen ustez, badauka arazorik heriotzaz asko pentsatzen duenak?
- Zer toki uzten diozue heriotzari zuen pentsamenduetan? Egunero, zenbat aldiz pentsatzen duzue heriotzaz? Eta zer datorkizue burura?
- Pentsatzeaz aparte, zer sentitzen duzue auzi horren aurrean?
- Gure gizartean, mintzatzen al da heriotzari buruz?
- Ondo dago heriotzaren gainean solas egitea?
- Badago loturarik bizitzaren eta heriotzaren artean? Egonez gero, zein?
- Beharrezkoa al da heriotza?

¹³³ Itsaso Azkarraga Agirrerren *Heriotza: auzi filosofikoa hainbat diziplinaren begiradan* lanak gai horretan sakontzeko aukera ematen du. Lan hori *IRALE* barruan kokatzen den proiektu bat da, eta eskuragarri dago *EIMA* katalogoan: <https://www.klasikoa.eimakatalogoa.eus/cgi-bin/koha/opac-detail.pl?biblionumber=44295>

¹³⁴ Jarduera honetan agertzen diren galdera anitz Imanol Alvarez Varelaren *Oilarraultza* lanekoak dira. Eleberri filosofiko horrek Batxilergoko lehen mailako ikasleek filosofatzea du helburu. Imanol Alvarez Varela *haur filosofia* metodoan oinarritzen da ikasleei (eta ez-ikasleei) pentsarazteko. Horren alde lan egiten duen *Jakinmin* elkarteko kidea da.

C) Barnebidea: Sarearen harira

“Behin, Diogenesi galdetu zioten ea nola gustatuko litzaiokeen lurperatua izatea.

-Zelaian botata uztea nahi dut- erantzun zuen.

-Nola, ba! -parte hartu zuen batek-. Txoriek eta animalia basatiek irenstea nahi al duzu?

-Utz diezadatela nire makila! Horrela, uxatuko nituzke.

-Uxatu! -oihu egin zuen beste pertsona batek-. Hilda bazaude, ez duzu ezer sentituko.

-Orduan, -esan zuen Diogenesek- zer axola dit txoriek ni irenstea?”

Heinrich Von Kleist, *Diogenes eta heriotza* ipuina

- Zein da *Diogenes eta heriotza* ipuinaren tesia?

Oraingo honetan, Diogenes solasean jarriko dugu Epikuro, Epikteto eta Onfray filosofoekin. Taula honetan, filosofo bakoitzaren gogoeta bat daukazu.

HERIOTZARI BURUZKO HIRU IRITZI		
“Ona eta txarra den gauza oro sentazioan gertatzen da eta heriotza sentazioaren gabetzea da... Beraz, gaitz ororen artean ikaragarriena, heriotza, guretzat ez da ezer. Izan ere, gu existitzen garen bitartean, heriotza ez dago presente eta heriotza presente dagoenean, gu ez gara existitzen.”	“Bizitza naturak emandako dohain bat da. Heriotzarekin, mailegu hori naturari bueltatzen diogu.”	“Tradizio judu-kristauaren seme-alabak garenez, mundu honetako bizitza gutxiesteaz gain ez dakigunez ziur salbatuko ote garen, beldurra sentitzen dugu heriotzaren aurrean.”
Epikuro	Epikteto	M. Onfray

Eman dezagun hausnarketa horiek sare sozial batean jarri ditugula eta iruzkin-kate amaigabe baten abiapuntu izan direla. Zuk ere zure iritzia idatzi nahi duzu. Beraz, Diogenesen eta autore horien iritzia kontuan hartuta, zer

pentsatzen duzu auzi horretaz? Eman arrazoiak (Prestatu 250-280 karaktereko erantzun bat).

2. Politika (Barnebidea)

Lau filosofiak eztabaidan jarriko ditugu, berriro ere. Pentsaera horiek abiapuntu izanda, balia zaitez arrazoimenaz idazki batean galdera honi erantzuteko: **munduko hiritarra ala kultura bateko hiritarra al naiz?**

Zer zara zu? Munduko hiritarra ala kultura bateko hiritarra?			
Kosmopolitismo hitzak Diogenesengan du jatorria. Behin, nongoa zen galdetu ziotenean, kosmopolita, munduko hiritarra zela erantzun zuen Diogenesek.	Epikurorentzat, bere Lorategiko adiskideak baino haratago, ez dago komunitate politikorik.	Estoikoen arabera, gizakiok munduko hiritarrak gara, kosmosaren legeak jarraitu behar ditugun heinean.	Simone Weilen ustez, izaki batek erro bat dauka kolektibitate baten existentzian errealki, aktiboki eta naturalki parte hartzen duelako.

3. Estetika (Elkargunea)

Erantzun galdera hauei eta arrazoitu erantzunak:

“Bizarrak ez du filosofoa egiten.”

- Zergatik ez?
- Zerk egiten du filosofoa, orduan?
- Gure janzteko moduak bereizi ala gizarteratu (taldekatu) egiten gaitu?
- Zer dio zure janzkerak zutaz? Edo, beste era batera esanda, zer transmititzen duzu janzkerarekin?
- Ba al du zerikusirik janzkerak estetikarekin? Eta politikarekin?



<https://www.craiyon.com/>

4. Helenismoaren alabak (eta ilobak)

Elkargunea: aukeratu zerrenda honetako emakume filosofo bat -Hiparkia eta Hipatia izan ezik-, eta egin haren pentsamenduari buruzko lan bat. Aurrera eramateko zailtasunik izanez gero, islatu lanean bertan.



Emakumeak agoran

(Fikziozko irudia)

<https://www.bing.com/>

EMAKUME-FILOSOFIEN ZERRENDA HELENISMOTIK ERROMATAR INFERIORA			
ZINISMOA	EPIKUREISMOA	ESTOIZISMOA	PLATONISMOA ETA NEOPLATONISMOA
Hiparkia	Mammarion	Portzia	Axiotea,
	Erotion	Arria (ama)	Gemina (ama)
	Hedeia	Arria (alaba)	Gemina (alaba)
	Nikidion	Fania	Anfilia
	Leontion	Teofila	Zerelia
			Hipatia

Gelapolisa: irakurri “[Non daude emakume filosofoak?](#)” artikulua eta egin balorazioak.

<https://redescuelas.es.amnesty.org/eu/blog/historia/articulo/non-daude-emakume-filosofoak/>

5.2. FILOKIZUN

Hemengo ataza guztiak Barnebideak dira, banaka egitekoak.

5.2.1.- TESTUEN AURREAN

1.- “Nik, Hiparkiak, ez nituen soineko zabaleko **emakumeen lanak** aukeratu,

txakur indartsuen bizimodu kementsua baizik.

Ez zitzaizkidan brotzez eutsitako arropak gustatu,
ezta oinetakoak, ezta zinta lurrintsuak ere, baizik eta
zakutoa eta makila, mantu bikoitza

eta, ohe gisa, zoru gogorra. Eta horrela, nire ezagutzagatik,
Menaliongo Atalanta baino hobea naiz ehizan.”

Antipatro¹³⁵, *Antologia palatinarra*, VII, 413

A AUKERA

A.1.-Laburtu testua, ideia nagusiak kontuan hartuz.

A.2.- Azaldu azpimarratutako hitzak (bakoitza 50-75 hitzetan).

A.3.- Hiparkiaren iritziz, emakumea eraikitzeke orduan, hautamen-prozesu batek egon behar du. Iruzkin bat egin tesiaren aldeko eta aurkako ideiak aztertuz. Amaitzeko, eman zeure iritzia, argudioez baliatuz (200-300 hitz).

B AUKERA

B.1.- Identifika ezazu testuaren tesia edo ideia nagusia, eta deskriba ezazu egileak zer argumentu-egiturari jarraitu dion tesi horretara iristeko.

B.2.- Zer galdera filosofiko jorratzen du testuak?

B.3.- Zer beste erantzun eman diezaiokezu aurreko puntuan formulatu duzun galderari?

B.4.- Testu honetan oinarrituta, zer jarraipen eman diezaiokezu hausnarketari? Imajinatu testuaren egilea zarela eta gaur egungo munduan bizi zarela. Egin ezazu tesiaren egungo bertsio bat, behar dituzun argudioak emanaz.

¹³⁵ K.a. II. mendeko Antipatro olerkariak “Emakumeei” deitutako epigrama hau eskaini zion Hiparkiarri. Hiparkiaren lanak ez zaizkigu heldu. Badirudi emakume haren lanen artean zeudela *Hipotesi filosofikoak*, *Epikeremak* eta *Auziak* “ateo” ezizenez ezagututako *Teodosiori*.

2. Diogenesi ez zitzaion **desegokia** iruditzen tenplu batetik edozer gauza eramatea, ezta edozein animaliaren haragia jatea ere. Beste herri batzuek **egiten zuten moduan**, giza haragiaren zatiak jatea ere ez zitzaion gaizki iruditzen. Antropofagia arrazoimenarekin bat zetorrela aipatzen zuen, atomistek zioten moduan dena gauza guztietan zegoelako eta gauza guztietan zebilelako.

Diogenes Laertzio, (itzulita, moldatuta) *Filosofo zinikoen bizitzak*

A AUKERA

A.1.- Laburtu testua, ideia nagusiak kontuan hartuz.

A.2.- Azaldu azpimarratutako hitzak (bakoitza 50-75 hitzetan).

A.3.- Diogenesentzat, mahai-ohiturak zalantzazkoak dira. Iruzkin bat egin tesiaren aldeko eta aurkako ideiak aztertuz. Amaitzeko, argudioez baliatuz, eman zeure iritzia (200-300 hitz).

B AUKERA

B.1.- Identifika ezazu testuaren tesi edo ideia nagusia, eta deskriba ezazu egileak zer argumentu-egiturari jarraitu dion tesi horretara iristeko.

B.2.- Zer galdera filosofiko jorratzen du testuak?

B.3.- Zer beste erantzun eman diezaiokezu aurreko puntuan formulatu duzun galderari?

B.4.- Testu honetan oinarrituta, nola jarraitu zenezake hausnarketa? Imaginatu testuaren egilea zarela eta gaur egungo munduan bizi zarela. Eguneratu testuaren tesia behar dituzun argudioak emanaz.

3. Era berean, ongi gorena eta naturala denez —hain zuzen horregatik—, ez dugu edozein plazer hautatzen. Aitzitik, **plazer** ugari alde batera uzten ditugu, haien eskutik etor daitezkeen ondorioak oso kaltegarriak izan baldin badaitezke. Halaber, pentsatzen dugu **sufrimendu** asko plazera baino hobekak direla, baldin eta sufrimendu horiek denbora luzez jasatearen ondorioz guretzat handiagoa den plazera lortuko badugu. Hortaz, plazer oro, bere natura egokia dela eta, ona da; baina, hala ere, plazer oro ez da hautatu beharrekoa.

Epikuro, *Menekorentzako gutuna*¹³⁶, 129

A AUKERA

A.1. Laburtu testua, ideia nagusiak zein diren adieraziz.

A.2. Azaldu azpimarratutako hitzak (bakoitza 50-75 hitzetan).

A.3. Epikuroren iritziz, plazeraren kalkulua egin behar da. Egin iruzkin bat, tesi horren aldeko eta aurkako ideiak aztertuz. Amaitzeko, eman zeure iritzia, argudioez baliatuz (200-300 hitz).

B AUKERA

B.1. Identifika ezazu testuaren tesi edo ideia nagusia, eta deskriba ezazu egileak zer argumentu-egiturari jarraitzen dion tesi horretara iristeko.

B.2. Zer galdera filosofiko jorratzen du testuak?

B.3. Zer beste erantzun eman diezaiokezu aurreko puntuan formulatu duzun galderari?

B.4. Testu honetan oinarrituta, zer jarraipen eman diezaiokezu hausnarketari? Imajinatu testuaren egilea zarela eta gaur egungo munduan bizi zarela. Eguneratu testuaren tesiak behar dituzun argudioak emanaz.

¹³⁶ Epikuroren *Menekorentzako gutuna* eta *Iritzi nagusiak* Javier Agirrek eta Jonathan Lavillak itzultitako *Zoriontasunaren defentsan* lanean aurki daitezke.

4. Egunsentian, esaiozu zure buruari: “diskreziorik gabeko batekin egingo duzu topo, esker txarreko batekin, harroputz batekin, faltsu batekin, bekaizti batekin, garratz batekin... Baina horietako inork ez dizu kalterik egingo, haien ekintzek ezin baitizute lotsarik eragin.” Oinek, eskuek eta betazalek elkarri laguntzen dioten moduan, edo goiko hortzek eta behekoek elkarri laguntzen dioten moduan, gizonok¹³⁷ elkarlanean aritzeko jaio gara. Arerio gisa jokatzea **naturaren** kontrakoa da, eta naturarekiko errespetuagatik gure **nahigabea eta ezinikusia menderatu** behar ditugu.

Marko Aurelio, *Gogoetak*, II, 1

A AUKERA

A.1. Laburtu testua, ideia nagusiak kontuan hartuz.

A.2. Azaldu azpimarratutako hitzak (bakoitza 50-75 hitzetan).

A.3. Marko Aurelioren iritziz, gizakion arteko elkarlana naturala da. Iruzkin bat egin, tesiaren aldeko eta aurkako ideiak aztertuz. Amaitzeko, eman zeure iritzia, argudioez baliatuz (200-300 hitz).

B AUKERA

B.1. Identifika ezazu testuaren tesi edo ideia nagusia, eta deskriba ezazu egileak zer argumentu-egiturari jarraitzen dion tesi horretara iristeko.

B.2. Zer galdera filosofiko jorratzen du testuak?

B.3. Zer beste erantzun eman diezaiokezu aurreko puntuan formulatu duzun galderari?

B.4. Testu honetan oinarrituta, zer jarraipen eman diezaiokezu hausnarketari? Imajinatu testuaren egilea zarela eta gaur egungo munduan bizi zarela. Egin ezazu tesien bertsio eguneratu bat, behar dituzun argudioak emanaz.

¹³⁷ Unibertsala adierazteko orduan, *gizon* terminoa baino hitz egokiagoak (*pertsona* edo *gizaki*, kasurako) egon arren, jatorrizko testuko hitza, hau da, *gizon* hitza erabili dugu, ahal den neurrian garaiaren eta autorearen pentsamendua bere horretan adierazteko. Ikusi “Sarrera” ataleko “Zailtasunak ote?”. Hala ere, ikasleei honako galdera hau planteatu diezaikegu: “Gaurko testua izango balitz, nola moldatuko zenukete inklusiboagoa izateko?”.

5. **Munduan** dagoen guztia gainerako gauzeekin lotuta dago. Gauza batzuk gure esku daude eta beste batzuk ez. Iritziak, desirak, motibazioak, gutziak, haserreak eta, hitz batean, gure ekintza den guztia gure esku dago. Aldiz, ez daude gure esku gorputza, aberastasuna, ospea, kargu publikoak eta, hitz batean, gure ekintza ez den guztia... Erratzen bazara eta mendeko ekintzak asketzat hartzen badituzu, moteldu egingo da zure bizitzaren aurrerapena, sarritan asaldatuta eta goibel sentituko zara, jainkoekin¹³⁸ eta beste gizonekin¹³⁹ haserretuko zara... Baina **zure esku dauden horietan** kontzentratzen bazara, gainerako gauzei buruz tinko esan dezakezu: *Ez dit ezertan eragiten.*

Epikteto, *Bizitzaren gidaliburua*, 1

A AUKERA

A.1.- Laburtu testua, ideia nagusiak kontuan hartuz.

A.2.- Azaldu azpimarratutako hitzak (hitz bakoitza 50-75 hitzetan).

A.3.- Epiktetoren ustez, nire esku dauden kontuetan jarri behar dut arreta. Iruzkin bat egin, tesiaren aldeko eta aurkako ideiak aztertuz. Amaitzeko, eman zeure iritzia, argudioez baliatuz (200-300 hitz).

B AUKERA

B.1.- Identifika ezazu testuaren tesi edo ideia nagusia, eta deskriba ezazu egileak zer argumentu-egiturari jarraitzen dion tesi horretara iristeko.

B.2.- Zer galdera filosofiko jorratzen du testuak?

B.3.- Zer beste erantzun eman diezaiokezu aurreko puntuan formulatu duzun galderari?


B.4.- Testu honetan oinarrituta, zer jarraipen eman diezaiokezu hausnarketari? Imajinatu testuaren egilea zarela eta gaur egungo munduan bizi zarela. Eguneratu testuaren tesiak, Behar dituzun argudioak eman.

¹³⁸ Jainkoak aipatzen ditu, eta ez jainko-jainkosak, gizarte grekoan ez ezik, Olinpon ere, gizonen esku geratzen baitziren ahalmen gehienak. Zentzu horretan, jatorrizko testuetan ez die jainkosei aipamenik egiten. Ikusi "Sarrera" ataleko "Zailtasunak ote?".

¹³⁹ Unibertsalak adierazteko orduan, *gizon* terminoa baino hitz egokiagoak (*pertsona* edo *gizaki*, kasurako) egon arren, jatorrizko testuko hitza, hau da, *gizon* hitza erabili dugu, ahal den neurrian garaiaren eta autorearen pentsamendua bere horretan adierazteko. Ikusi "Sarrera" ataleko "Zailtasunak ote?". Hala ere, ikasleei honako galdera hau planteatu diezaiekegu: "Gaurko testua izango balitz, nola moldatuko zenukete inklusiboagoa izan dadin?".

5.2.2. IRUDIEN PAREAN

1. Behatu irudia, eta haren gainean hausnartu. Hori egin ondoren, beti zergatiak eman ez, erantzun galdera hauei:



Gypsie Raleigh

1.1. Deskribatu irudia, eta aztertu bertan agertzen diren elementu filosofikoak: aztertu konposizioa, koloreak, irudiak edo esanguratsuak izan daitezkeen osagarriak. Nola interpreta dezakegu irudia? Zer buruzkoa da?

1.2. Irudian oinarrituta, besteak beste, adiskidetasunaz hausnar dezakegu. Bizi gaitzke lagun barik? Lagunek berez dute balioa ala tresnak dira gure eskuetan? Erabateko konfiantza izan behar dugu haiengan?

1.3. Hainbat filosofok adiskidetasunari buruz hitz egin dute. Zer balio dute lagunek haientzat? Eta gure eguneroko bizitzan? Bilatu argudioak (eta adibideren bat) zure tesia defendatzeko.

1.4. Sare sozialek hurbildu ala urrundu egiten gaituzte lagunengandik? Justifikatu erantzuna.

2. Irudia aztertu, eta haren gainean hausnartu. Hori egin ostean, erantzun galdera hauei, zergatiak emanez:



Antonio Castillo Riaño

2.1. Deskribatu irudia, eta aztertu bertan agertzen diren elementu filosofikoak: aztertu konposizioa, koloreak, irudiak edo esanguratsuak izan daitezkeen osagarriak. Nola interpreta dezakegu irudia? Zeri buruzkoa da?

2.2. Irudian oinarrituta, besteak beste, gogoeta egin dezakegu ikas-zentroen gainean. Nolakoa da? Zer eragin dauka ikasgunea modu batekoa ala bestekoa izateak, ikasteko orduan? Eta harremanak izateko orduan? Nolakoa da espazioaren erabilera? Esate baterako, zer dago eraikuntzaren erdian eta zer dago ertzetan? Egin eraikuntzaren arkitekturari buruz egin daitezkeen irakurketa filosofikoak. Adibidez, nola antolatzen da espazioa jolastokian, jantokian edo

ikasgeletan (publikoa-pribatua, neskak-mutilak, ikasleak-irakasleak, naturala-artifiziala...). Aurrekoarekin batera, hezkuntza-zentroen arteko konparazioak egiteaz gain, zentroek hirigunean duten kokapena ere balora dezakegu.

2.3. Filosofoek, eskola emateko, leku desberdinak erabili zituzten (dituzte), joera filosofikoaren arabera. Bururatzen zaizu adibideren bat? Zertarako ematen zuten (dute) eskola han? Zure iritziz, ba al du garrantzirik zer kokalekutan ematen (edo jasotzen) den eskola? Nolakoak izan beharko lukete gure zentroek eta inguruko espazioek? Bilatu argudioak (eta adibideren bat) zure tesia defendatzeko.

2.4. Zure iritziz, zein da gaur eskolaren zeregina? Zeinek izan beharko luke? Justifikatu erantzuna.

3. Erreparatu irudiari, eta haren gainean hausnartu. Hori egin ondoren, erantzun galdera hauei, zergatiak emanaz:



<https://www.img2go.com/ai-creator-studio>

3.1. Deskribatu irudia, eta aztertu bertan agertzen diren elementu filosofikoak: aztertu konposizioa, koloreak, irudiak edo esanguratsuak izan daitezkeen osagarriak. Nola interpreta dezakegu irudia? Zer buruzkoa da?

3.2. Irudian oinarrituta, adiskidetasunaz hausnar dezakegu besteak beste. Nola irudikatzen dugu amodioa? Existitzen al da amodioa? Existitzen bada, zer da? Maitemintzea hormonon ondorioa ala eraikuntza kulturala al da? Askatasun- ala mendekotasun-iturri da? Amodioa betiko izan daiteke? Badute zerikusirik maitasunak eta sexu-harremanek?

3.3. Hainbat filosofok hitz egin dute amodioari buruz. Zer balio du maitasunak haientzat? Eta sexu-harremanek? Eta zein da maitasunaren eta sexu-harremanen balioa gure eguneroko bizitzan? Bilatu argudioak (eta adibideren bat) zure tesia defendatzeko.

3.4. Maitasunari dagokionez, nola ulertu (eta bizi) dute gure aurrekoek? Nola ulertu (eta bizi) dugu guk? Nola ulertu (eta bizi) beharko genuke? Justifikatu erantzuna.

6.- BIBLIOGRAFIA

- AGUIRRE, Javier, LAVILLA, Jonathan (2023). *Zoriontasunaren defentsan*. Iruñea: Katakarak.
- ALVAREZ VARELA, Imanol (2023). *Oilarraultza: filosofiari sarrera eleberritu bat*.
- ARISTOTELES (2002). *Moral a Nicómaco*. Bartzelona: Espasa (Euskarazko bertsioa: ARISTOTELES (2001). *Nikomakorentzako etika*. Bilbo: Klasikoak).
- ARRIETA URTIZBEREA, Agustin eta beste batzuk (2008). *Filosofiaren historia*. Donostia: Elkar.
- ARRIETA URTIZBEREA, Agustin (2023). *Gogoeta-bide irekiak*. Bilbo: EHU eta UEU.
- ARRIETA URTIZBEREA, Agustin (2023). *Bidez bide hausnarrean*. Bilbo: EHU eta UEU.
- AZKARRAGA AGIRRE, Itsaso (2017). *Heriotza: auzi filosofikoa hainbat diziplinaren begiradan*. Irale (EIMA katalogoa).
- BRAVO, Gonzalo (2022). *Historia del mundo antiguo*. Madril: Alianza.
- DIOGENES LAERCIO (2013). *Vida y opiniones de filosofos ilustres*. Madril: Alianza.
- DZIELSKA, Maria (2009). *Hipatia de Alejandría*. Madril: Siruela.
- EPIKURO (2008). *Obras*. Madril: Tecnos.
- INFANTE, Eduardo (2021). *No me tapes el sol*. Bartzelona: Ariel.
- INFANTE, Eduardo (2023). *Aquiles en tiktok*. Bartzelona: Ariel.
- GARCÍA GUAL, Carlos (2008). *La filosofía helenística*. Madril: Síntesis.
- GARCÍA GUAL, Carlos (2021). *La secta del perro*, Madril: Síntesis.
- GLEICHAUF, Ingeborg (2005). *Mujeres filósofas en la historia*. Bartzelona: Icaria.
- LUCRECIO (2022). *La naturaleza de las cosas*. Madril: Alianza (Euskarazko bertsioa: 2000, *Gauzen izaeraz*. Bilbo: Klasikoak).
- MACINTYRE, Alasdair (2023). *Tras la virtud*. Bartzelona: Austral.
- MARTINEZ PEÑA, Iñigo (2021) *Mandamentu hipermodernoak*. Donostia: Elkar.

- MÉNAGE, Gilles (2009). *Historia de las mujeres filósofas*. Barcelona: Herder.
- ONFRAY, Michel (2016). *La sabiduría de la antigüedad (Contrahistoria de la filosofía: vol I)*. Barcelona: Anagrama.
- PAJÓN LEYRA, Ignacio (2019). *Los filósofos cínicos*. Madrid, Tecnos.
- PAJÓN LEYRA, Ignacio (2021). *Claves para entender el escepticismo antiguo*. Madrid: Antígona.
- REALE, Giovanni, ANTISERI, Dario (2004). *Historia del pensamiento filosófico y científico*. Barcelona: Herder.
- SANTOS, Mikel “Belatz” (2018). *Gerezi garaia: Lucio Urtubiaren biografía ilustratua*. Tafalla: Txalaparta.
- SELLARS, John (2021). *Lecciones de estoicismo*. Madrid: Taurus.
- SELLARS, John (2021). *Lecciones de epicureismo*. Madrid: Taurus.
- TORNÉ, Gonzalo (2023). *Estoicismo: De la stoa a Marco Aurelio*. Madrid: Hermida.

Beste iturri batzuk:

- Alberdi Estibatitz, Uxue eta Lujanbio Zugasti, Maialen (2018). Askatasunaren aldeko aldarria. bertsoa.eus. <https://bertsoa.eus/bertsoak/16018-uxue-alberdi-eta-maialen-lujanbio-askatasunaren-aldeko-aldarria>
- Alonso, Vega (2022). [Non daude emakume filosofoak?](https://redescuelas.es.amnesty.org/eu/blog/historia/articulo/non-daude-emakume-filosofoak/) Amnesty international. <https://redescuelas.es.amnesty.org/eu/blog/historia/articulo/non-daude-emakume-filosofoak/>
- Alvarado Bañares, Txabi (2015). [Mandoak ez dit baiezkorik ez ezezkorik eman Santiagoko bidea berriz egitearen inguruan](https://aiaraldea.eus/artziniega/1481079145855-mandoak-ez-dit-baiezkorik-ez-ezekorik-eman-santiagoko-bidea-berriz-egitearen-inguruan). Artziniega: Aiaraldea komunikabide faktoria. <https://aiaraldea.eus/artziniega/1481079145855-mandoak-ez-dit-baiezkorik-ez-ezekorik-eman-santiagoko-bidea-berriz-egitearen-inguruan>.

- Arregi, Aitor eta Goenaga Jose María (2007). *Lucio (Dokumentala)*. Madril: RTVE <https://www.rtve.es/play/videos/el-documental/lucio/961865/>
- BAP!! taldea (1986). *Plastikozko janariak*. Andoain: Hilargi records. <https://www.youtube.com/watch?v=3rcJTo8L9EQ>
- Bukaera rock taldea (1986). *Apatia*. Tolosa. <https://www.youtube.com/watch?v=elITWCHbgM4>
- Cutts, Steve (2017). *Happiness*. <https://www.youtube.com/watch?v=e9dZOelULDk>
- Cano Cuenca, Jorge (2022). *El estoicismo, la filosofía como práctica transformadora*. Madril: Canal March. <https://canal.march.es/es/coleccion/estoicismo-filosofia-como-practica-transformadora-39605>
- Cojón prieto y los huajalotes (1993). *El hedonista*. Iruñea: Gor diskak. <https://www.youtube.com/watch?v=IISDozjP6Eg>
- Garcia Gual, Carlos (2022). *La filosofía helenística: Epicuro y algunos epicúreos*. Madril: Canal March. <https://canal.march.es/es/coleccion/filosofia-helenistica-epicuro- algunos-epicureos-39501>
- Geruzak web orria (2022). *Desira*. <https://geruzak.eus/desira>.
- Hernandez de la Fuente, Ignacio (2022). *La filosofía helenística: el neoplatonismo*. Madril: Canal March. <https://canal.march.es/es/coleccion/filosofia-helenistica-neoplatonismo-39612>
- Meraki musika (EP) (2014). *Eskola zinikoa*. Fruiz: Gauaprodukzioak. <https://www.youtube.com/watch?v=7RNT9SHRdXg>
- Pajon Leyra, Ignacio (2022). *Introducción a la filosofía helenística: el escepticismo y el cinismo*. Madril: Canal March. <https://canal.march.es/es/coleccion/introduccion-filosofia-helenistica-escepticismo-cinismo-39296>
- Polat, Brittany eta beste batzuk (2022). *We invite you to Stoic week 2022*. Londres: Modern Stoicism. <https://www.youtube.com/watch?v=mrG9dJucUdk>

- Raleigh, Gypsie. *15 impactantes ilustraciones que te harán pensar*. Oregon <https://rolloid.net/15-impactantes-oscuras-ilustraciones-te-haran-pensar-4>
- Sierra Gonzalez, Angela (2023). *Las trayectorias olvidadas de las filósofas de la Antigüedad (Ciclo filósofas en la historia)*. Tenerife: Tenerifeko unibertsitatea. <https://www.youtube.com/watch?v=9Or1QUhEMaO>
- Skakeitan, Xsakara eta Lopez, Janire (2019). *Apatia*. Mauka musikagintza. <https://www.youtube.com/watch?v=-rXpykftxe4>
- Sustrajah banda (2020). Plazer galduen irla. Lekeitio: La Cúpula music. https://www.youtube.com/watch?v=fZj_ry5xCRo
- Vesperini, Pierre (2018). *Lucrèce : archéologie d'un classique européen*. Bordeaux: Librairie Mollat. <https://www.youtube.com/watch?v=gXqcuH3BAAY>
- Zapiain Agirre, Markos (2013). *Diogenes zinikoa*. Eibar: eibar.org <https://eibar.org/blogak/zapiain/diogenes-zinikoa>
- Zapiain Agirre, Markos (2013). *Epikuro salbatzaile (I eta II)*. Eibar: eibar.org <https://eibar.org/blogak/zapiain/epikuro-salbatzaile-1> eta <https://eibar.org/blogak/zapiain/epikuro-salbatzaile-eta-ii>
- Zapiain Agirre, Markos (2013). *Lukrezio eta San Jeronimo*. Eibar: eibar.org <https://eibar.org/blogak/zapiain/lukrezio-eta-san-jeronimo>
- Zapiain Agirre, Markos (2008). *Lukrezio eta Sarrionandia*. Eibar: eibar.org <https://eibar.org/blogak/zapiain/lukrezio-eta-sarrionandia>
- Zapiain Agirre, Markos (2013). *Estoikoak*. Eibar: eibar.org <https://eibar.org/blogak/zapiain/estoikoak>
- Zapiain Agirre, Markos (2013). *Pirron*. Eibar: eibar.org <https://eibar.org/blogak/zapiain/pirron>

Iaren bitartez irudiak sortzeko erabilitako web-orriak:

- Bing: <https://www.bing.com>
- Claiyon: <https://www.crayon.com/>
- Clipdrop: <https://clipdrop.co/>
- IMG2GO: <https://www.img2go.com/ai-creator-studio>

